# ZEINEK ZAINTZEN DU ETA NOLA?

## Vitoria-Gasteizen

ETXEKO-LANGILEEN egoera Vitoria-Gasteizen: hurbilketa bat



Zentzuz kontsumitu
consume con Sentido

Proiektua:

medicusmundi · Mugarik Gabe · Setem

Finantzaketa:

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz · Vitoria-Gasteizko Udala

# ZEINEK ZAINTZEN DU ETA NOLA Vitoria-Gasteizen?

## ETXEKO-LANGILEEN egoera Vitoria-Gasteizen: hurbilketa bat


**IKERLANAREN PRESTAKETA ETA LANDA-LANA**

Errotik, gizarte ekimeneko kooperatiba feminista (lehen Harilka Elkartea deitua).

errotik

**IKERTZAILE NAGUSIA**

Gisela Marisa Bianchi Pernasilici.

**Ikerketa-taldea:**

Ester Escudero Espinalt, Udane Hermosilla Fernández eta Gisela Marisa Bianchi Pernasilici.

**Jarraipena, berrikuspena eta ikerlanerako ekarpenak:**

Zentzuz Kontsumitu – Consume con sentido

Zentzuz kontsumitu consume con Sentido

Medicusmundi Araba

SETEM Hego Haizea

Mugarik Gabe

**ITZULPENA**

Luis Miguel Sainz Pezonaga

**FINANTZAKETA**

Vitoria-Gasteizko Udala

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

**DATA**

2018ko apirila

# EDUKIAK

**1. SARRERA ... 4**

**2. ZAINTZA-LANARI ETA ETXEKO ENPLEGUARI BURUZKO ELKARRIZKETA TEORIKOA MUNDU GLOBALIZATUAN ... 7**

2.1. Ekonomia feministaren ikuspegia erabiltzea ikertutako testuingurua analizatzeko. ... 8

2.2. Interdependentzia eta *social care* ... 9

2.3. Zaintza-lana ... 12

2.4. Zaintza-lanaren alderdi globalak ... 14

2.5. Zaintza-lanaren eta etxeko enpleguaren alderdi pertsonalak ... 23

**3. IKERLANA TESTUINGURUAN KOKATZEA ... 26**

3.1. Lege-testuingurua ... 27

3.2. Etxeko enplegua zifretan ... 35

**4. METODOLOGIA, TEKNIKAK ETA LANDA-LANA ... 49**

4.1. Ikerlanaren helburuak ... 50

4.2. Epistemologia eta ikertzeko metodologia eta metodoak/teknikak ... 50

4.3. Landa-lanaren xehetasunak ... 58

**5. VITORIA-GASTEIZEN ETXEKO LANGILEEK DUTEN EGOERARA IKUSPEGI KUALITATIBOTIK HURBILTZEA ... 60**

5.1. 1. helburua. Etxeko langileek Vitoria-Gasteizen dituzten lan-baldintzak, zereginak, erantzukizunak, soldatak eta egoerak ezagutzea. ... 61

5.2. 2. helburua. Etxeko enpleguko lan osasunean, fisikoan zein mentalean, sakontzea ... 90

5.3. 3. helburua. Etxeko langileen gogoetak eta aldarrikapenak ... 102

5.4. Sareak sortzeko beharra ... 105

**6. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK ... 107**

6.1. Etxeko enpleguaren inguruan maila sozialean lan egiteko gomendioak ... 109

6.2. Etxeko enplegua duintzeko behar diren lege-aldaketei buruzko gomendioak ... 109

6.3. Alertak Laneko Ikuskatzailetzarentzat eta arloan eskumena duten erakunde publikoentzat, etxeko langileen eskubideen aurka errepikatzen diren urraketak direla eta. ... 112

6.4. Lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzako eskubideak urratzea ... 113

6.5. Etxeko enplegua eskuratzeko bide informalak eta lan-bitartekotzako erakunde ofizial eta publiko baten beharra ... 115

6.6. Sindikatuentzako gomendioa, etxeko enpleguaren sektoreko negoziazio kolektiboa sustatu eta bultzatzeko ... 115

6.7. Vitoria-Gasteizko kolektibo feministei, emakume-elkarteei nahiz beste elkarte batzuei zuzendutako gogoeta ... 116

6.8. Indarkeria matxista, arrazista eta klasistak ikusgai jarri eta salatzea ... 116

6.9. Etxeko alderdi enplegatzailearekin nahiz maila sozialean landu beharreko gaiak ... 117

6.10. Enplegatzaileentzako gomendioak, beren enplegatuen lana segurtasun eta higieneko baldintza egokietan egin dadin zaintzeko ... 117

6.11. Etxeko langileekin lantzeko gaiak ... 119

**7. ETORKIZUNERAKO IKERKETA-ILDOAK ... 120**

**8. BIBLIOGRAFIA ... 122**

**9. ERANSKINAK ... 131**

1

# SARRERA



# 1. SARRERA

**Zentzuz Kontsumitu-Consume con Sentido (ZK)**[1] proiektu kolektiboaren helburu nagusietako bat da tresnak bultzatzea, lagungarriak izan daitezen maila globalean –arlo estruktural, ekonomiko, sozial nahiz generokoan– dauden berdintasunik ezeko eta jasangarritasuneko arazoak ulertzen nahiz kontsumoaren bitartez toki-mailan, gure eguneroko errealitateetan, gertatzen denarekin lotzen.

**Toki-maila eta maila globala lotzeko** saio horretan, eta toki-mailan kontsumo arduratsuko praktiken bidez bestelako garapen bat sustatzeko erantzunen bila, **ikusezin dagoen gai bat aztertzea erabaki dugu: zaintza**.

Nolako zaintza-kontsumoa egiten dugu gure gizartean? Zaintzaren kontsumo arduratsu bat egiten dugu ala desparekotasunak betikotzen laguntzen duen kontsumo bat? Zer rol jokatzen du sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkalak eredu horretan? Zaintzaren balioa ikusgai jartzen dugu, dinamika kapitalista, arrazista eta patriarkalek fagozita ez gaitzaten, ala bizitzarako funtsezkoa den arlo hori ikusezin atxikitzen laguntzen dugu? Jasangarritasuneko, hurbiltasuneko, elkartasuneko eta ardurako irizpideak dituen kontsumo bat sustatzen ote dugu, lan hori, berriz ere, emakumeen esku uzten duena?

Kontsumo arduratsua aipatzen dugunean bizimoduez ari gara, xedea ez baita marka edo produktu baten ordez beste bat aukeratzea soilik, baizik eta bizitza gogobetegarri bat eramatea planetaren mugen barruan, eguneroko praktikak eta balioak batuz horrela. Horretarako, funtsezko bi elementu hartu behar dira oinarritzat: bizitzaren jasangarritasuna, ingurumenaren eta zaintzaren dimentsioan; eta justizia soziala, ekitatearen, elkartasunaren, demokratizazioaren eta birbanaketaren alderdiak barne. Izan ere, ez da posible kontsumo eta bizimodu jasangarriak egotea, baldin ez badugu bizitzaren zaintza erdigunean jartzen, ikuspegi ekofeminista bat sartuz, beraz.

**Kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaile baten aldeko apustua egitea**, funtsean, emakumeek eta gizonek barneraturik dauzkaten zereginak zalantzan jartzea eta desnaturalizatzea da, zaintza gizartean antolatzeko beste era bat bultzatzea epe ertain eta luzera, eta bai emakumeek, bai gizonek berezkotzat hartu dituzten praktikak desikastea eta deseraikitzea, horrela alternatibak sortu ahal izateko, emantzipatzaileak, eraldatzaileak, eta justizian, "erantzunkidetasunean" nahiz antzeko balioetan oinarrituriko ekitatearen sustatzaileak. Aldi berean, eskatzen du nabarmen dadila etxeko eta zaintzako lanaren berebiziko beharraren balioa, gure sistema ekonomiko eta sozialari eusteko, eta desagerraraz dadila sexuaren araberako lan-banaketa, non emakumeek etxeko lanak beren gain hartzen baitituzte.

Esku artean daukazun agiriaren xedea da lehen hurbilketa bat izatea, ikusezinak diren eta zaintzaren eta kontsumoaren esparruan naturalizaturik dauzkagun eguneroko errealitate horietako batera, merkatu-arloan etxeko eta zaintzako lanak egiten ari diren edo egin izan dituzten hogeita hamar emakumeren lekukotasunen bidez. **Ikusgai bihurtu nahi ditugu etxeetako zaintzan lan egiten duten gure hiriko ehunka emakume** "ezkutu"; izan ere, haien bizi-esperientziek bide ematen digute gure tokiko dinamikak ekonomia- eta migrazio-fluxu globalekin lotzeko, eta, emakume horiek gabe, sistema honen engranaje askok eta askok ez lukete funtzionatuko. Horrek guztiak agerian jartzen du bizitzaren eta pertsonen zaintzarekin zerikusia duten genero-gatazka garrantzitsuenetako bat: zaintzaile-rola gehienbat emakumeek hartzen dute eta, azken urteetan, Hegoaldeko herrialdeetako emakumeek, zaintza-kate globala deitutakoa sortuta horrela. Azken hori, hain

1. MUGARIK GABEren, SETEM HEGO HAIZEAren eta MEDICUSMUNDI ARABAren garapenerako hezkuntzako proiektu bat da, eta 10 urte baino gehiagoko ibilbide bat du egina. Haren azken helburua da Vitoria-Gasteiz erreferentziazko hiria bihurtzea kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaile bat oinarritzat duen eta bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzearen alde egiten duen ekonomia sozial eta solidarioko eredutzat.

zuzen, agirian zehar azalduko dugu, eta ikusiko dugu, halaber, gure hurbileko eta tokiko errealitatean nola islatzen den.

Egungo ereduan, zaintzari lotutako lanak –emakumeak halakoetan aditu direla “inperatibo sozialez”– gutxietsi egiten dira eta txarto ordaintzen dira, eta, emakumeak lan-munduratu diren heinean, sistemak behar izan du beste emakume batzuk etor zitezen, zaintzaileen eta etxeko langileen postua betetzera, lehen familia-nukleoaren bidez betetzen zen postua bat, hain zuzen. Ez gobernuak, ez enpresak, ez gizonak ez dira antolatu beren ohiko dinamiketan ordena sozial berri horrek ekarritako aldaketak txertatzeko. Gaur egun, kapitalismoak kontsumoko ondasun eta zerbitzu merkantilizatuen esparruan sartu du zaintza. Kapitalismoaren logika horrek –zaintza-merkatuaren eta -kontsumoarenak– ez du desagerrarazi sexuaren araberako lan-banaketa; aitzitik, sozializaturik gauden egitura heteropatriarkal eta arrazistarekin aliatu da, etekin handiagoa ateratzeko, zaintza ikusezin atxikitzearen eta bizitza mantentzeko duen zentraltasuna ez aitortzearen ondorioz. Hortik aurrera, lehentasunezko interesik behinena irabazi ekonomikoa metatzea da, eta ez erantzun ekitatiboa, erantzunkidetasunezkoa eta kalitateduna ematea zaintzaren eta afektuen oinarrizko giza beharrizanei, arlo pribatuan zeuden desparekotasunak merkatuaren esparruan erreproduzituta: balio gutxiago; ikusezintasuna; eskubide gutxiago; bereizkeria; eta ikerlan honetan jaso ditugun beste asko. **Halako praktikek xedatzen dute, hain zuzen, nagusi den gizarte-ereduaren esparrua, indarkeria matxistak baliatzen direlarik sistema hori betikotzeko estrategiatzat, maila globalean zein toki-mailan.**

Vitoria-Gasteizen etxeko langileek duten egoerara eginiko hurbilketa honekin, egiaztatu dugu haien errealitatea konplexua dela eta faktore askok parte hartzen dutela, eta errealitate hori aztertzeko begirada intersekzional bat behar dela: etxeko langileen egoera ikusgai jartzea, gure gizartean zaintzaren egungo antolaketaren barruan jokatzen duten rola aitorturik, eta emakume horiek sarritan aurre egin beharreko indarkeriak, menderakuntza- eta botere-harremanak, eskubide-urraketak eta desberdintasunezko tratua salatzea. ZKn espero dugu ikerlan honetan parte hartu duten **hogeita hamar emakumeen lekukotasunak** tresna baliagarria izatea hiriko eragile sozialek zaintzaren antolaketa sozial bidezkoa, ekitatiboa eta erantzunkidetasunezkoa sustatu ahal izateko.

# 2

# ZAINTZA-LANARI ETA ETXEKO ENPLEGUARI BURUZKO ELKARRIZKETA TEORIKOA MUNDU GLOBALIZATUAN



# 2. ZAINTZA-LANARI ETA ETXEKO ENPLEGUARI BURUZKO ELKARRIZKETA TEORIKOA MUNDU GLOBALIZATUAN

Hasi baino lehen, komeni da aipatzea **ikerlan hau ez dela neutroa eta egungo garapen-ereduari egiten zaion kritika bat duela abiapuntu, begirada global, internazionalista eta feminista** batetik, toki-mailan eta maila globalean gertatzen dena elkarri lotuta. Ekonomia feministaren postulatuetatik abiatzen gara, azken horrek, hain zuzen, oihartzuna lortu baitu maila sozialean, bereziki egungo sistemaren aurreko alternatibak bilatzen dituzten mugimendu eta antolakundeen artean. Hortik aurrera, egile jakin batzuengan oinarritu gara, Vitoria-Gasteizko hirian etxeko emakume langileen egoerara egin dugun hurbilketa dagokion esparruan kokatzeko eta bideratzeko.

## 2.1. Ekonomia feministaren ikuspegia erabiltzea ikertutako testuingurua analizatzeko

Nahiz eta “ekonomia” hitza *okomos* grekotik datorren eta hitzez hitz “etxearen administrazioa” esan nahi duen (*oikos* etxea da, jabetzaren zentzuan, eta *nemosen* esanahia “administratzea” da), ekonomia klasiko eta hegemonikoek, hasiera-hasieratik, etxearen antolaketa teorizaziotik eta eztabaidatik kanpo utzi izan dute, etxeko lana kontuan hartu gabe (Durán, 2014; Gálvez eta Torres, 2010).

Horren aurrean, **ekonomia feminista** tresna teoriko-analitiko bat da, bide ematen duena zaintzaren eta etxeko enpleguaren egoera analizatu eta ulertzeko, genero-desparekotasunak kontuan hartuz, beste ikuspegi batzuek ez bezala, halakoek alde batera uzten baitituzte.

Azpimarratu behar da ekonomia feminista proposatzen duena ez dela, besterik gabe, emakumeen ikuspuntua gehitzea, baizik eta ***“munduari beste era batean begiratzea”*** (Carrasco, 2013). Merkatuak gizarteen antolaketaren erdigunetik mugiaraztean datza, eta haien tokian bizitzaren jasangarritasuna jartzean.

Zenbait termino proposatzen dira bizitzaren jasangarritasunaz hitz egiteko, eta haien artean honako hauek nabarmentzen ditugu: ”bizitza mantentzea”, “hornitze soziala”, “berrekoizpen soziala”. Kontzeptu horiek balio dute, bai eta haien inguruan sortzen den eztabaidak ere, salatzeko ordena sozialak eta teoria hegemonikoek inposaturiko **ekoizpenaren eta berrekoizpenaren arteko banaketak ez duela ikusten uzten jendearen egunerokotasuna, haren ongizatea, eta haren interdependentzia** (Pérez Orozco, 2006a).

Arretagunea zabaldu, eta hainbat ezkutuko faktore aintzat hartzen direnean, sistemaren inkoherentziak irteten dira argitara. Amaia Pérez Orozcok dioenez, *“kapitalismoak berez inposatu behar du metatzearen logika, eta horrek bizitzaren aurkako mehatxu etengabe bat dakar berekin, kapital-metaketaren eta bizitzaren jasangarritasunaren arteko gatazka deitu dioguna”* (Pérez Orozco eta Lafuente, 2013, 101).

Gainera, ekonomia feministak oso tresna ahaltsu bat ematen du antolaketa soziala ulertzeko: **izozmendiaren metafora**. Zehazki, zaintza-lanaz hitz egiteko balio du, eta lan horrek gizartearen gainerako esparruei eusten dien moduaz. Amaia Pérez Orozcoren hitzetan: "*sistema hori izozmendi baten antzekoa da: epizentroan merkatu kapitalistak daude, maskulinitate zuriari lotutako metaketa-logika batek zuzenduak, eta sisteman pribilegiatua den subjektuaren mende: alegia, gizon zuri, burges, hiritar, heterosexual eta Iparralde Globalekoren mende. Alde ezkutuan, bizitza zaintzen duten prozesuak daude. Izozmendi hori ardatz heteropatriarkal, kapitalista eta kolonialista baten inguruan biratzen da; hark, hain zuzen, ezartzen ditu ikusgaitasun-mailak eta ikusezin atxikitzeko mekanismoak.*"

Metaforak aditzera ematen du izozmendiak urpean eta ikusezin mantenduta daukan aldearen tamaina, hori izanik ikus daitekeen gailurrari eusteko beharrezkoak diren energiak, lanak eta denbora irudikatzen dituen aldea; eta gailurra, merkatuaren aldea, antolaketa sozialaren, ekonomia klasikoaren erdigunea, azpian dagoena ahaztuz eta alde batera utziz. Metafora horren bidez ez da hainbeste proposatzen bi aldeak analisirako hein berean ikusgai egotea, garrantzi sozialari dagokionez; ordea, erakutsi nahi da **izozmendiaren alde ikusezina egitura ekonomiko guztiaren oinarria dela eta, halabeharrez, sistema heteropatriarkal, kapitalista, klasista eta arrazista honek funtzionatuko badu, ikusezin atxikirik jarraitu behar duela** (Pérez Orozco, 2006b).

## 2.2. Interdependentzia eta *social care*

María Jesús Izquierdok hau dio: *"indibidualismoa prozesu historiko baten emaitza da, sozializazio-mekanismoak, prozesu horretan, irudika litezkeen maila sofistikatuenetara iritsi eta gerokoa"* (Izquierdo, 2003, 4); izan ere, autonomoak, buruaskiak eta loturarik gabekoak garelako –edo izan gaitezkeelako– ideia barnerarazi digute, eguneroko errealitateak bestelakoa frogatzen duen arren.

Autonomia-ideia hori pertsona-tipologia ideal bat oinarri hartuz sortzen da, eta ideal hori "gizon buruaski" bat da, inoren beharrik ez duena, beti era arrazionalean aukeratzeko gai den gizon bat. Esaten ez dena da gizon-tipologia hori autonomoa izan daitekeela sozialki zapalduriko "emakume" bat duelako, ama, emazte, etxeko langile gisa, doan edo txarto ordaindurik gainerako guztiaz arduratzen dena, gizon horrek autonomoa eta loturarik gabekoa sentitu ahal izateko. Banakoaren prototipo ideal ez-erreal hori egungo antolaketa sozialaren zein lan-antolaketaren eredutzat hautatu da. Hala, antolaketa sozialaren analisi hegemonikoen arabera, banakoen egoera "*normala*" autonomia da, eta "*mendekotasuna*", aldiz, salbuespenezko eta une jakin bateko egoera bat litzateke.

Ekonomia feministaren arabera, aitzitik, ahultasun-egoera ez da pertsona-kategoria jakin batzuei dagokien ezaugarri bat, eta mendekotasun-egoerak ez dira salbuespenezko egoera batzuk (Paperman, 2011). Egia da pertsonen mendekotasun edo dependentzia nabariagoa dela bizitzako lehen urteetan, eta gaixotasun kroniko edo degeneratiboetan, bereziki halakoak zahartzaroan gertatzen direnean, baina nabarmendu behar da ez dela dependentzia edo independentzia, **interdependentzia baizik, gure giza izaeraren bereizgarria** (Tronto 1994) in (Esquivel, 2011).

Zaintzaren ikuspegi tradizionalak hiru printzipio ditu oinarri (Izquierdo 2003; Pérez Orozco 2006a; Vega Solís 2009):

1. Zaintza banakoaren arazoa da.
2. Zaintza pertsona batzuk beste batzuen mendekoak izatean oinarritzen da.
3. Zaintza noranzko bakarrean ematen da.

Kritika feministak zalantzan jarri ditu printzipio horiek, eta zaintzaren ikuspegi konplexuago eta multidimentsionalago batzuk proposatu ditu, sakonago eta eguneroko bizitzan txertatuago ulertzea eta analizatzea ahalbidetzen dutenak. Binomioak alde batera uzten saiatu behar da –hala nola independentzia/mendekotasuna, zaintzen duen pertsona/zaintza hartzen duen pertsona–, bai arlo teorikoan, bai arlo praktikoan, zaintza **"bizitzaren zaintza" gisa ikusteko joera izateko, ikuskera horren barnean pertsonen artean bizi-zikloan zehar eta hainbat dimentsiotan izaten diren interdependentzia ugariak eta askotarikoak hartuta** (Pérez Orozco, 2006a).

Gogoeta horren haritik, interesgarria da *"social care"* kontzeptua aipatzea, zaintzaren pluridimentsionaltasuna agerian jartzeko, eta bereziki haren izaera soziala, honako hau barnean hartzen duela: *"mendekotasuna duten helduen eta haurren beharrizan fisiko eta emozionalak asetzen parte hartzen duten jarduera eta harremanen multzoa eta halakoak esleitzen eta gauzatzen diren esparru normatibo, ekonomiko eta sozialak"* (Daly eta Lewis 2011, 231).

*"Social care"* delakoaren inguruko eztabaidan mahaigaineratu diren dimentsioen artean, hiru nabarmentzen dira:

- <u>Zaintza lan gisa:</u> zaintza lan bat da, soldatapeko lana gainditzen duena. Dimentsio honek bide ematen du emakumeek egiten dituzten lanak, bai eta emakumeak berak ere, ikusezin atxiki izanari buruz gogoeta egiteko, haien esperientziez jabetu izanari buruz, haien mendetasuneko eta erresistentziako bizipenen konplexutasuna ukatu izanari buruz, haien desberdintasunak ezeztatu izanari buruz, eta hierarkia sozialak birsortzerakoan merkatuek duten erantzukizuna gutxietsi izanari buruz, eta gure arreta metaketa-prozesu batera zuzentzen jarraitzea dakar berekin dimentsio honek, orobat, bizitza begiradaren erdigunean jarri beharrean. Dimentsio honek ahalbidetzen du zaintza-lana zein baldintzatan egiten den aztertzea, merkatuaren barruan zein merkatutik kanpo, erakundeen aldetik, edo etxeko enpleguaren zati gisa. Horiek horrela, ezinbestekoa da lan hori egiten diharduten pertsonen, erakunde edo entitateen taldea analizatzea, bai eta arazo honetan guztian ongizate-estatuak duen rola ere.

- <u>Zaintza betebehar eta erantzukizun sozialeko arau-esparru baten barruan:</u> dimentsio honek arau-esparruaren eta pertsona guztiek zaintza duina eta beren egoeraren araberakoa jasotzeko duten eskubidearen konplexutasuna dakar hizpidera. Horrela, agerian geratzen da ezin direla zaintzaren lan-arloko alderdiak soilik kontuan hartu, zaintzaren zati gehiena etxe barruko familia-erantzukizunen barruan egiten baita, era pribatu eta bakartian. Horregatik, komeni da arauen eta antolaketa sozialaren analisi bat egitea, eredu egokiagoak bilatze aldera, zaintza-erantzukizunen banaketa hobetzeko xedez.

- <u>Zaintza eta hura gauzatzeak dakartzan kostuak:</u> dimentsio honek bide ematen du zaintza-lanek arlo fisiko, emozional eta finantzarioan dakartzaten kostuei buruz ikertzeko, esparru publikoan zein pribatuan. Banakoen, familien eta gizartearen arteko kostu-banaketa ezinbestekoa da, antolaketa soziala hobetuko bada (Daly eta Lewis, 2011, 230–231).

Kontzeptu honen alderdi berri eta interesgarria da aldi berean ikuspegi makroa eta mikroa hartzen dituela barnean, interakzioak agerian utzirik arlo pribatuaren eta arlo publikoaren artean, arlo formalaren eta informalaren artean, soldataz ordaintzen denaren eta ordaintzen ez denaren artean nahiz diruzko prestazioen eta zerbitzuzko prestazioen artean; hala, sakonago analizatzen da zaintza nola antolatzen den eta pertsonentzat zer ondorio dakartzan maila pertsonalean eta intimoagoan (Daly eta Lewis, 2011).

Egungo antolaketa sozial kapitalista **globalizatuan**, zaintza-beharrizanak ekonomia misto baten bidez asetzen dira, eta honako hauek dira haren oinarriak: estatua, merkatua, familia, eta boluntariotza-sektorea (Evers eta Svetlik, 1993). **Gizartea amatu beharko litzateke, eta emakumeak desamatu,** zaintza-lanen banaketa apur bat orekatzeko lau oinarri horien artean, zeren pisu gehiena familien gain eta merkatuaren gain erortzen baita eta, bitartean, estatuaren inplikazioa bigarren mailakoa eta eskasa izaten baita (Lagarde, 2003).

Gure ustez *"social care"* kontzeptuan azpimarratu behar den beste alderdi bat da zaintza herritarren eskubidetzat legitimatzera daramala, lehen pertsonan bizitzeko eskubide gisa (Lagarde, 2003). Zaintza-lana historian zehar justiziari eta herritartasunari buruzko eztabaidetatik baztertu izan da; orain unea iritsi da honela ikusteko: ***"herritarrek komunitate politikoarengana dituzten betebeharren zati gisa, baina ahultasun-egoeran daudenei bermatzen zaien eskubide gisa ere bai"*** (Gómez Urrutia, 2010, 713).

Zaintza jasotzeko eskubidea eta zaintzeko eskubidea aitortzen diren bezala, ez zaintzeko eskubidea ere kontuan izan behar da (Tobío, 2013), halako lanek nahitaezkotasunezko ezaugarria izan ez dezaten, erantzunkidetasun, bidezkotasun eta nahigarritasunezkoa baizik. Aintzane Saituak eta Maru Sarasolak diotenez (hemen aipatuta: Esteban, 2003), ***"jarrera etiko bat soilik da posible norberarengan dauden elkarren kontrako eta kontraesanezko desira, sentimendu eta grinak aitortu, eta haien artean hautatzen denean,*** *onerako zein txarrerako erantzukizuna norbere gain harturik. Ekintza etiko orok hautatzeko askatasuna inplikatzen du, halabeharrez, hura planteatzen den egoera edo zirkunstantzia zehatz bakoitzean. Alabaina, zaintzaren etika tradizional femeninoa ez da oinarritzen emakume bakoitzak eginiko hautu batean, baizik eta inposaketa bat da, bertute femenino behinenean oinarritutakoa, abnegazioan, alegia, azken hori aldez aurretik ziurtzat jotzen dela eta nahitaezkoa dela"* (Saitua eta Sarasola, 1993, 29).



## 2.3. Zaintza-lana

Behin analizaturik izaki interdependenteak garela eta zaintza eskubide bat eta betebehar bat dela –eta, ondorioz, hura asetzeak eragile sozial guztiak inplikatzen dituela, justizia eta ekitatezko baldintzetan–, zaintzaren kontzeptu horretan sakonduko dugu.

1969. urteraino egingo dugu atzera, Margaret Benstonek *"Political economy of women's liberation"* argitaratu zuen urtera, hain zuzen, zaintzaren inguruko eztabaidan aitzindaria den testu bat. Egilearen helburua da gizarte kapitalistetan emakumearen mendetasuna eragiten duten arrazoiak ikertzea, agerian utzita halako gizarteetan **gauzen balioa merkatuak eta diruak ezartzen dutela, eta, horregatik, ordaindu gabeko etxeko lana**, etxe barruan emakumeek egiten dutena, gutxietsi eta ikusezin atxiki egiten dela.

Horren inguruan, Engelsek hau dio: *"emakumearen emantzipazioa eta gizonekiko berdintasuna ezinezkoak dira eta hala izaten jarraituko dute, emakumeak ekoizpen-lan sozialetik bereizita eta etxeko lanean –hots, lan pribatu batean– mugatuta dirauen bitartean"* (Engels, 1968/2000, 92–93). Hala ere, Margaret Benstonek argudiatzen du, Engels baino harago joanik, arazoaren gakoa ez dela emakumeak bete-betean ekoizpen-arloan sartzea, baizik eta ***"etxeko lanaren esparruko ekoizpen pribatua ekoizpen publiko bihurtzea"*** (Benston, 1977, 88). Honela dio, horren harira, *"etxeko lana ekoizpen pribatuko arazo bat izan eta haren erantzukizuna emakumeen gain egon bitartean, lan bikoitz batean jardungo dute, besterik ez"* (Benston, 1977, 93).

Halaxe gertatu da, hain zuzen ere: emakumeak era masiboan lan-merkaturatu ondoren, ez da jarraian etorri ez etxeko lana eta zaintza sozializatzea, etxeetako espazio pribatuan zokoraturik geratzen direla horrela, ez gizonak –era masiboan halaber– etxeko espazioetan sartzea. Izan ere, gaur egun gizartean etxeko zereginak emakumeek egin beharreko lantzat ikusten dira oraindik ere. Amaia Pérez Orozcok eta Siria Del Ríok diotenez, emakumeak ***"zartaginetik atera, eta soldata-lapikoan erori dira (zartagin eta guzti)"*** (Pérez Orozco eta Del Río, 2002, 9).

Maiz behatzen denez emakumeek azkenean lan bikoitza egiten dutela, bata lan-merkatuan eta ordaindua –"etxetik kanpo"– eta bestea etxe barruan eta ordainik gabekoa –"etxe barruan"–, gizonek ez bezala, azken horien artean gehienek ordainpeko lan-merkatuan baino ez baitute lan egiten, egoera hori gizarte-zientzietatik ikusgai bihurtu eta teorizatu egin behar da.

Aipatu ohi dira ***"lanaldi bikoitza"*** (Hochschild eta Machung, 1989) eta ***"presentzia bikoitza"*** (Balbo, 1978) lan-kargen banaketa ekitatiborik ez dagoela ikusarazteko, agerian utzirik lanaldi edo presentzia bikoitzeko egoera hori –alegia, lan ordainduan eta familiaren barruko ordaindu gabeko lanean– antolaketa soziala eratzen duten mekanismoetako bat bilakatu dela. Egia da emakume helduaren presentzia bikoitz hori gizarte kapitalista berantiarren bereizgarrietako bat dela (Balbo, 1978).

Mariarosa Dalla Costaren eta Selma Jamesen (1975) arabera, etxeko lanak funtsezko rola du sistema kapitalistaren barruan, zeren –termino marxistetan– langilearen gorputzean bertan dagoen lan-indarra ekoizten baitu. Gertatzen dena da produktu hori, *"lan-indarra"*, ikusezin atxikitzen dela eta aurretiaz ziurtzat jotzen dela, sistemak merkatuko ondasun eta produktuei soil-soilik ematen dielako balioa.

Eztabaida horretan, etxeko eta zaintzako lanaren produktua –hau da, termino marxistetan, lan-indarraren ekoizpena– ikusgai bihurtzeko, ***"berrekoizpen sozial"*** terminoa erabiltzen da. Kontzeptu horren azpian sartzen dira pertsonek gizarteen barruan irauteko beharrezkoak diren energia, zeregin eta lanak; eta erabiltzen da agerian jartzeko, ekonomian hainbeste erabiltzen den *"ekoizpen"* kontzeptuari kontrajarririk, gizarte kapitalistetan zer lotura estua dagoen ekoizpen-arloaren eta etxeko lanei eta pertsonen zaintzari dagokien arloaren artean (Dalla Costa eta James, 1972; Galcerán, 2006; Picchio, 1999).

Gai honi buruz eztabaidatzen eta ikertzen hasi zenean, etxeko lana, oro har, baino ez zen aipatzen; denborarekin, kontzeptu hori txiki geratu da lan horien tamaina eta askotarikotasuna agerian jartzeko. Hala, bada, **zaintza-lanaz ere hasi zen hitz egiten, etxeko lan horien konplexutasuna eta multidimentsionaltasuna ikusgai bihurtzeko, halakoak ez baitira fisikoak soilik, baizik eta emozionalak eta harremanezkoak ere.**

Gaztelaniaz, esaterako, *cuidar* aditza *cogitāre* latinezkotik dator, "pentsatu" esanahiz. Horrek gogorarazten digu pertsona edo etxe bat zaintzeak esan nahi duela zaintzaren objektuan etengabe pentsatzea, ahaztu gabe, zenbaitetan, aldi berean zaintzaren objektua eta subjektua izan daitekeela. Etengabe pentsatze hori, zerbait edo norbait beti gogoan izatea, da aditz horren eta lan horien funtsa.

Laburbilduz, Amaia Pérez Orozcoren hitzetan (2006): ***"zaintza iritzi ahal diogu bizitza eta osasuna egunerokoan kudeatu eta mantentzeari, bizitzaren jasangarritasuna ahalbidetzen duen beharrizan oinarrizkoen eta egunerokoenari. Badu dimentsio bikoitz bat: dimentsio "materiala", batetik, gorputzarena*** *(zeregin jakin batzuk egitea, emaitza ukigarriak dituztenak, gorputzaz eta haren beharrizan fisiologikoez arduratzea), dagozkion jarduera materialak maiz etxeko lanaren kontzeptuaren azpian kokatzen ditugula (sukaldatu, garbitu, lisatu); eta, bestetik, dimentsio* ***"immateriala", afektiboa eta harremanezkoa,*** *ongizate emozionalari dagokiona".*

Bestalde, nabarmendu behar da zaintzaren kontzeptua kategorizatzen zaila dela, merkatu formalaren barruan, merkatu informalean edo merkatutik kanpo gerta baitaiteke, eta, era berean, dirutan, gauzatan edo bietan ordain baitaiteke, edo ordaindu gabekoa izan.

Horrez gain, zaintza-lanaren bereizgarri bat haren **subjektibotasun-karga da, eta hura emozio, sentimendu, afektu, eta abarren eran zertzen da**. Alderdi subjektibo horren arriskua haren erabilera da, zaintzan eta amatasunean oinarrituriko identitate femenino bat eraikitzeko, askotan ukatuz alderdi hori gogortasun handikoa dela eta ez dituela halabeharrez bete behar ustez eransten zaizkion maitasun-eskakizunak (Carrasco, Cristina; Borderías, Cristina eta Torns, Teresa; 2011). Bereizi egin behar dira, batetik, zaintzea –emakumeen berezko zerbait, inperatibo sozialez– eta, bestetik, laguntzea, profesionalei edo zerbitzu publikoei dagokien zerbait.

Aipatu beharreko beste alderdi bat da, pertsonen zaintzaz hitz eginez gero, egiten diren lanek denboraren definizio kronometriko, lineal eta sekuentziala gainditzen dutela, lanok **multidimentsionaltasuna eta aldiberekotasuna** baitituzte bereizgarri. Denboraren erabilerei buruzko inkestetan, agerian geratzen da zein zaila den zaintzan emandako denbora neurtzea, aldiberekotasun hori dela bide (Bianchi eta González-Rábago, 2015). Adibidez, "presentzia-denbora", alegia, begiratzen edo kontu egiten ematen den denbora, beste jarduera batzuen aldi berekoa izan daiteke. Ez dira bakanak, esaterako, janaria prestatzen ari den bitartean, laguntza behar duten pertsonei adi egoten zaien egoerak.

## 2.4. Zaintza-lanaren alderdi globalak

Zaintza eta etxeko enplegua kontzeptualizatu eta ezaugarritu ondoren, arreta haien dimentsio global eta transnazionalean jarri nahi dugu.

Hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko urteetako **migrazio-fluxuetan**, industria-ekoizpena elikatzen zituzten langileak ziren nagusi, eta **laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, ordea, zerbitzuen lan merkatura sartu ziren era masiboan, hurbileko eta zaintzako zerbitzuen arloan batik bat** (Herrera, 2013). Saskia Sassenek dioenez (2002), sistema sozial eta ekonomiko globalizatuaren barruan gertaturiko eraldaketen ondorioa da migrazio-fluxuen aldaketa kualitatibo hori. Aldaketa horrekin batera, kontuan izan behar dira, batetik, migrazioen helmugako herrialde edo herrialde "aberastuetan" dagoen *"zaintza-krisiko"* egoera (Carrasquer, 2013; Pérez Orozco, 2006a), eta jatorriko herrialde edo herrialde "pobretuetan" dagoen *"berrekoizpen sozialaren krisia"* (Herrera, 2007; Quiroga, 2009; Federici, 2012), bestetik.

Iparralde Globalak daukan ***"zaintzaren krisiari"*** dagokionez (Benería, 2011; Carrasquer, 2013; Ezquerra, 2011), esan behar da termino hori sortu zela bizitzaren zaintzaren antolaketa sozialerako sistemaren jasangarritasunik eza eta funtzionamendu bidegabea agerian jartze aldera. Kontzeptu horrek herrialde mendebaldartuetako gizarte-ereduaren baliozkotasuna berriz planteatzera darama; izan ere, eredu horrek logika heteropatriarkal eta kapitalista batzuk ditu oinarri, bizitzaren jasangarritasunerako egiten diren jarduera eta lan garrantzitsuak, besteak beste, alde batera utzi eta ikusezin atxikitzen dituztenak.

*"Zaintzaren krisia"* kontzeptu baliagarria da, zaintza-horniduraren defizita eta zailtasunak jendaurrean ikusgai jartzen dituelako eta, maila sozioekonomikoan, lagungarria delako zaintza-lanaren antolaketa soziala analizatzeko, zaintzen dutenek nahiz zaintza jasotzen dutenek atzemaniko eta pairaturiko sistemaren disfuntzioen gainean argi eginda (Paperman, 2011). Hala eta guztiz ere, Beatriz Gimenok dioenez (2012), ez da nahasi behar; krisia esaten baldin bada, aditzera eman daiteke lehenago oreka eta ekitateko egoera bat zegoela, zaintzako eta etxeko lanak berdintasunez banatuta eta inolako arazorik eman gabe, eta hori ez da inondik inora egia.

Bibliografia espezializatuaren arabera, *"zaintzaren krisia"* eragin duten aldaketa sozial nagusiak hauek izan dira:

1. **Demografia-piramidea alderantzikatu** izana, jaiotza-tasa apala eta bizi-itxaropenaren luzapena direla eta, zaintza-beharrizanen gehikuntza agerian utzita (Bettio *et al.,* 2006).

2. **Zaintzaren gaineko ikuskeretan eta haren praktiketan eta kalitatean izaniko aldaketa**k, familia-eren nahiz genero-rol, -espektatiba eta -identitateen aldaketei loturik (Tobío, 2013).

3. **Ongizate-estatuaren estaldura nabarmen murriztu izana** gizarte- eta zaintza-zerbitzuetarako, politika neoliberalekin, ekonomia-krisiarekin zein doikuntza-programekin justifikaturik (Gálvez eta Torres, 2010).

"Zaintza-krisiko" testuinguru horretan, mendekotasuna duten pertsonentzako laguntzaren eskaria gehitu egiten da, adineko pertsonentzat bereziki, baina etxeko lanerako eskariarena ere bai (Sassen, 2002, 2003), antolaketa sozialaren zein lan-antolaketaren jasangarritasunik eza dela bide (pertsonek ez dute astirik beren etxeak zaintzeko), eta genero-desparekotasunak direla bide (etxeko lanak ez dira ekitatiboki banatzen emakumeen eta gizonen artean, eta, arazoari irtenbidea emateko, lan horiek esternalizatzea erabakitzen da).

Herrialde aberastuetako eskari-gehikuntza horrek nabarmen eragin die pertsonen migrazio-fluxuei, gero eta globalizatuago dagoen mundu baten luze-zabalean (Anderson, 2000; Ehrenreich eta Hochschild, 2004; Hondagneu-Sotelo, 2001; Parella, 2003; Parreñas, 2001; Sassen, 2003). Maurizio Ambrosinik eta Luca Queirolok (2007) **ongizate-estatuaren berregituraketa gisa aipatzen dute emakume migratuak –lan bila, etxeko enpleguaren sektorean sartzeko gertu– iritsi izana.** Egile horien arabera, horrela ziurtatzen da familiaren instituzioa iraunaraztea, gero eta jasangarritasun gutxiagoko eredu baten barruan, familiako emakumeek eginiko etxeko eta zaintzako lana ordaindugabearen ordez, beharrizan ekonomikoak dituzten eta, askotan, legezko ahultasun-egoeran dauden emakumeek egiten duten enplegu gutxi ordaindua ezarriz.

Hegoalde Globalari eragiten dion herrialde pobretuetako ***"berrekoizpen sozialaren krisiari"*** dagokionez, María Rosa Dalla Costak hau azaltzen du: *"laurogeikoa 'hamarkada erabakigarria' izan zen berrekoizpenerako*[2] *; izan ere, haren gainean, nazioarteko zorraren mekanismoa eta egiturazko doikuntzarako ondoriozko politikak baliatuz, egiazko "azpigarapen-operazio" bat gauzatu zen, planetan aurrekaririk gabeko pobrezia bat sortzeko xedez, metaketa-fase berri batek abiada hartzeko aurrebaldintza gisa. Hain zuzen ere, globalizazio neoliberalak (erabat garatuko zen hura laurogeita hamarreko hamarkadan) pobreziaren beharra zuen, langileek mundu guztian beren espektatibak apal zitzaten eta edonolako baldintzak eta prekarietatea onar zitezen, neoliberalismoaren eskakizun gisa, enpresak arinago mugitu eta lehiatu ahal izateko edonon"* (Dalla Costa, 2006, 68). Aipu horrekin nabarmendu nahi dugu pobrezia –etxeetako berrekoizpena zailtzen duela– eta prekarietatea –Hegoalde Globaleko lurraldeetan hedatua dagoela– estrategia bat izan direla, sistema kapitalistaren logiken esparruan kokatutakoa. Herrialdeen artean sorrarazitako gehiegizko desberdintasun hori substratu ezin hobea da berrekoizpen-lanaren nazioarteko banaketa berrirako eta etxeko enplegua nazioartekotzeko.

Gainera, garrantzitsua da onartzea globalizazioak Hegoalde Globalean izaniko ondorio nagusietako bat **"pobreziaren feminizazioa"** izan dela (García-Mina eta Carrasco, 2004; Sassen, 2003). Egungo ekonomia-sistema globalak emakume horiek migratzera bultzatu ditu, erresistentzia estrategia gisa, beraien herrialdeetako "berrekoizpen sozialaren krisiari" loturik dauden kostu eta arriskuei aurre egite aldera, eta bestelako bizibide batzuk edo aukera hobeak bilatze aldera.

Iparralde Globaleko herrialde aberastuetara egiten duten migrazio-bidaian, emakume pobretu horiek nazio-estatuen legediei aurre egin behar izaten diete, haien jatorriaren arabera mugimenduak, lan-aukerak eta bizitza-helburuak mugatu eta oztopatzen dizkiete eta. Eta engranajearen atal horretantxe mamitzen dira Iparralde eta Hegoalde Globalen arteko berdintasunik ezeko harremanak, non eta emakumeen bizitzetan, esperientzietan eta gorputzetan bertan.

2. Aurrerago azalduko denez, termino horrek berrekoizpen sozialari egiten dio erreferentzia, bizitza mantentzeko beharrezkoak diren energien, lanen eta denboraren multzo gisa.

**"Herrialde pobretuak"**, labur esanda, **"eskulan merkeko enpresa erraldoi bat" bilakatzen dira** (Federici, 2012, 116). Munduaren zati bat pobretzeko politikaz gain, egoera hori gertatzeko mekanismo nagusietako bat da pertsonen kontrola, arauketa eta bazterketa; horrela, bermatu egiten da migratzaileak, helmugako herrialdeetara iristen direnean, bitan balioz gabetzea, "etorkinak" izateagatik, agiririk gabeko langileak izateagatik eta, emakumeen migrazioari dagokionez, emakumeak izateagatik ere (Federici, 2012; Parella, 2003).

Encarnación Gutiérrez-Rodríguezek (2010) nabarmentzen du zer paradoxa den, Europan etxeko enpleguaren eskariak gora egiten duen bitartean, Europako pasaporterik ez duten pertsonentzat sartzeko eta kokatzeko aukerak zorrozki murrizturik egotea.

Paradoxa hori dela eta, emakume horiek denbora batez lege-egoera irregularrean lan egitera beharturik aurkitzen dira. Hori izaten da maiz baldintza beharrezko bat, baina ez nahikoa, errotzearen ondorioz bizileku- eta lan-baimenak edukitzea ahalbidetuko dieten prozeduretara jo ahal izateko[3].

Lorenzo Cachónek salatu egiten du (1995, 2009) pertsona migratuek aurre egin beharreko **"bereizkeria instituzionala"**, iritsi berriak badira, bereziki. Dioenez, Estatuaren egitura sozial eta legaletik abiatuta, pertsona horientzat lan-azpimerkatu bat sendotuz joaten da, lan-indar ahulen, otzanen eta merkeentzat hartzen baitira.

## 2.4.1. Zaintza-kate globalari buruz

Mundu globalizatuan etxeko enpleguak betetzen duen rolak nazioarteko eztabaiden arreta erakarri du azken urteetan, eta, hain fenomeno konplexua izanik, hainbat tresna teoriko sortu dira hura aztertzeko. Esaterako, aipatzen dira afektu eta laguntzako mundu-kateak (Arlie Hochschild, 2001), zaintzaren transnazionalizazioa (Gioconda Herrera, 2007), zaintza-krisi anizkoitzak (Zimmerman Litt eta Bose, 2006), eta zaintzaren ekonomia politiko transnazionala (Fiona Williams, 2010). Gure aburuz, interesgarria da –migrazioen globalizazioa, zaintza-krisi globala, eta berrekoizpen sozialaren eta etxeko enpleguaren krisia direla eta– bizi dugun egoera konplexua azaltzen saiatzen diren tresna teoriko horien laburpen bat egitea. Bakoitzak alderdi batzuetan edo besteetan jartzen du arreta, asmatuz batzuetan eta mugekin beste batzuetan:

### AFEKTU ETA LAGUNTZAKO MUNDU-KATEAK EDO ZAINTZA-KATE GLOBALA (ARLIE HOCHSCHILD)

"Afektu eta laguntzako mundu-katea" kontzeptua ("zaintza-kate globala" ere deitua) erabiltzen lehena Arlie Hochschild izan zen, honako hau adierazteko ***"mundu guztiko pertsonen arteko lotura pertsonal batzuk, ordaindutako edo ordaindu gabeko laguntza-lan batean oinarritutakoak"*** (Hochschild, 2001, 188). Egile horren lanak, Rachel Parreñasen (2001) eta Pierrette Hondagneu-Soteloren eta Ernestine Ávilaren (1997) ikerketekin batera, besteak beste, agerian jartzen ditu mundu globalizatu bateko migrazio-fluxuek pertsonarteko eta familiako harremanen gainean izaten dituzten ondorioak, askotarikoak eta multidimentsionalak, non kate bakoitzak laguntzaren *"giza ekologia"* ikusezin bat[4] ematen baitu aditzera. Horrez gain, aditzera ematen du nola gertatzen den zaintza-erantzukizunen eskualdatzea, eta erakusten du, katean zenbat eta beherago joan, hainbat txikiagoa dela lanari ematen zaion balioa, pixkanaka ordaindu gabeko lana bilakatu arte (Yeates, 2005).

3. Aurrerago, beste atal batzuetan, azalduko da xeheki bizileku- eta lan-baimenak eskuratzeko moduak.

4. A. Hochschildek "Bizitza intimoaren merkantilizazioa. Etxea eta lana" (2008) liburua osatzen duten bost saiakeretatik laugarrenari "Zaintzaren ekologia" izenburua jarri zion, eta hark hiru artikulu dauzka: "Maitasuna eta urrea"; "Geografia emozionala eta kapitalismoaren hegaldi-plana"; eta "Politikaren kultura".

Hasieran, *“zaintza-kate globala”* kontzeptua migrazio-mota jakin batean oinarritzen zen, emakumeen migrazioan, hain zuzen, eta zaintza-mota bakarrean, alegia, helmugako herrialdean haurrak zaintzen dituzten ama migratuek gauzatutako zaintzan, jatorriko herrialdean hirugarren batek haien seme-alabak zaintzen dituzten bitartean, hirugarren horrek ere bere haurrak beste pertsona batzuen esku utzi dituela. Maila teorikoan, eta ikerketa feministen esparruan, oso kategoria garrantzitsua izan da, baina maila enpirikoan zenbait muga dituela erakutsi du, kontuan hartzen bada egungo migrazioek sortzen dituzten harreman pertsonal zein familia-harremanak askotarikoak eta konplexuak direla oso, eta guztiak ez zaizkiola egokitzen *“zaintza-kate globala”* deritzon kategoriari.

Oso kategoria baliagarria da migrazioko eta garapeneko prozesuak elkarrekin lotzeko, globalizazioa antolatzen duen dinamika ikustarazteko bide emanda, bai eta migrazioen feminizazio-prozesua ere, ongizate-estatuaren eraldaketaren testuinguruan. Esan dezakegu, Saskia Sassenen hitzetan, ikerkuntzaren **alderdi estrategiko bat dela, *“globalizazioa antolatzen duen dinamika aztertzeko eta generoaren dimentsioak nola funtzionatzen duen argitzen hasteko”*** (Sassen, 2005, 69). Hain zuzen ere, Amaia Pérez Orozcok dioenez, *“zaintza-kate globalak dimentsio transnazionalak dauzkaten kate batzuk dira, egunerokoan bizitza mantentzeko eratzen direnak, non etxeek zaintza-lanak batzuetatik besteetara transferitzen baitituzte, botere-ardatz batzuetan oinarrituz, azken horien artean generoa, etnia, gizarte-klasea eta jatorria nabarmendu behar direlarik”* (Orozco, 2007).

## ZAINTZAREN TRANSNAZIONALIZAZIOA (GIOCONDA HERRERA)

**Pertsonen bizi-esperientzietan baino gehiago, egituretan oinarritzen den ikuspegi batetik,** Gioconda Herrerak (2007) agerian jartzen du nolako eragina duten migrazio-fluxuetan, batetik, nazioarteko migrazioen helmugako herrialdeetako *“zaintzaren krisiak”* eta, bestetik, jatorriko herrialdeetako *“berrekoizpen sozialaren krisiak”*.

Helmugako testuinguruaz aritzean, “zaintza-krisia” kontzeptua erabiltzen da (aurreko atalean deskribatutakoa, hain zuzen), azken hamarkadetan gertaturiko aldaketa sozialak nahiz zaintzaren antolaketarekin eta hornidurarekin duten lotura azaltzeko (Carrasquer, 2013). Bestalde, jatorriko gizarteei dagokienez, “berrekoizpen sozialaren krisia” aipatzen da, honako hau adierazteko: *“biztanle-sektore handiak sistematikoki baztertzea beren berrekoizpen-beharrizanak –berrekoizpen biologikokoak zein sozialekoak– asetzeko ezinbesteko baliabideak eskuratzeko aukeratik”* (Quiroga, 2009, 78). Horrela, etxe askok familiakideren batek migra dezan erabakitzen dute, etxeak mantentzeko eta iraunarazteko gastuei aurre egin ahal izateko.

## ZAINTZA-KRISI ANIZKOITZAK (ZIMMERMAN, LITT ETA BOSE)

Migrazio-fluxuen eta jatorriko zein helmugako lekuetako zaintzaren berrantolaketaren arteko harremana testuinguru bat –Mary Zimmermanek, Jacquelyn Littek eta Christine Bosek (2006) ***“zaintza-krisi anizkoitzak”*** deitutakoa– sortzen ari da, bai eta, aldi berean, berrelikatzen ere, non genero, zaintza eta globalizazioko harremanak elkarrekin gurutzatzen baitira.

Batetik, baldintzak oso desberdinak izan arren, bai migrazioaren jatorriko herrialdeetan, bai helmugako herrialdeetan badaude behar bezala asetzen ari ez diren zaintza-eskari eta zaintza-beharrizan batzuk. Horrez gain, prekarietatea eta lan-esplotazioa ezaugarritzat dauzkaten lan-nitxo batzuk sortzen ari da zaintzaren merkantilizazioa, ongizate-estatuek gai horietan izaten duten inplikazio eskasa lagun. Halaber, berrekoizpen sozialean, aukera, zerbitzu, tresna eta praktikei logika neoliberalak eta ekonomia-krisiak eragiten diete. Eta, azkenik, egileek estratifikazio globaleko sistemak sortu izana atzeman dute, etnian, klasean, generoan eta adinean oinarritutakoak, zaintza-lanen globalizazioaren ondorioz.

### ZAINTZAREN EKONOMIA POLITIKO TRANSNAZIONALA (FIONA WILLIAMS)

Zaintza-kate globalen kontzeptuaz harago joan nahian, Fiona Williamsek (2010a; 2011a) *"zaintzaren ekonomia politiko transnazionala" (transnational political economy of care)* proposatzen du hizpidetzat, bereiziak baina, era berean, aldiberekoak diren prozesuak elkarrekin biltzeko.

Nabarmendu nahi du ***etxeko eta zaintzako lanen transnazionalizazioak,*** etxeetan egindako lanak ez ezik, zaintzaren erarik zabalenari lotutako erakundeetan egiten diren lan kalifikatuak ere barne hartzen dituela, hala nola osasun-arloko eta/edo hezkuntzako lan profesionalak. Halaber, ***zaintza-konpromisoen dinamika transnazionalak*** ere aipatzen ditu; halakoetan, migratzen duten pertsonek urrutitik zaindu behar diren familiarteko batzuk uzten dituzte (Baldock, 2000; Herrera, 2013; Parreñas, 2001). Horrez gain, ***zaintza-kapitalaren mugimendu transnazionala*** azpimarratu nahi du. Mugimendu horrek halako lanen esternalizazioaren azelerazioa du pizgarri, eta, haren ondorioz, hainbat enpresa pribatuk osasunaren eta zaintza-zerbitzuen merkatu pribatuaren negozio emankorra dute esku artean. Eta, azkenik, ***zaintza-arloko diskurtso eta politiken eragin transnazionala*** jartzen du agerian. Horren adibide bat da zaintzari buruzko politika publikoek duten eragina; izan ere, diru publikoa laguntza ekonomikoak ematen inbertitzen dute, *egitura publikoak sortu eta/edo eraldatzeko* erabili beharrean.

Bestalde, *"zaintzaren ekonomia politiko transnazionalak"* erreferentzia egiten dio mugimendu sozial, GKE eta nazioarteko beste antolakunde batzuen jardun transnazionalari ere, halakoak funtsezkoak izan baitira etxeko langileen eskubideak defendatzeko hainbat jarduera politiko eta legaletan.

## 2.4.2. Etxeko enplegua

Ikerlan honen gaiari helduz, gogorarazi behar da, lehen ere esan dugunez, ekonomia konbentzionalak lana enpleguaren sinonimotzat hartu izan duela, ekonomiaren mugak merkatuetan marratu dituelako, alegia, diru truke salerosten diren osasun, zerbitzu eta faktoreetan. Merkatuez soil-soilik arduratzen denez, ez ditu kontuan hartu eta ez-ekonomikotzat eta ez-ekoizpenezkotzat jo izan ditu merkatuetatik kanpo, bizitza mantentzeko funtsezkoak izan arren, aurrera eramaten diren jarduerak oro. Lehen deskribaturiko zaintza-kontzeptuaren barnean sarzen diren lanez ari gara, batik bat. **Ekonomia feministaren ikuspegitik, "lana" dira ondasunak, zerbitzuak eta ongizatea ekoizteko eta berrekoizteko xedea duten denetariko ekintzak, ordainduak zein ordaindu gabeak** (Legarreta, 2012).

Ekintza eta zeregin horien multzoan eragina izango du sexuaren araberako lan-banaketaren barruan[5] emakumeen eta gizonen artean dagoen maila-desparekotasunak, bai eta sistema kapitalista heteropatriarkalaren egiturak berak ere. Lan-denboraren eta lanik gabeko denboraren denborazko dimentsioa nabarmendu behar da, halakoak ere bestela gauzatzen baitira gizonentzat eta emakumeentzat. Halaber, gizonek eta emakumeek lanarekin duten harremana nahiz hark dakartzan esperientzia subjektiboak desberdina eta desberdinak dira.

Hegoaldetik egindako begirada batek lagun dezake, batetik, enplegua (ofizialki aberastasuntzat kontabilizatzen diren eta eskubideak sortzen dituzten jarduerak) eta, bestetik, lana (bizitza mantentzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak) bereizten dituen marra lausotzen. Egurra edo ura biltzeko, baratzea lantzeko edo etxe-abereak hazteko lanak eta kideko beste batzuk bizirauteko oinarria dira Hegoaldeko herrialde asko eta askotan. Halako lanak, pertsonen zaintza eta etxeko gainerako lana bezala, emakumeek egin ohi dituzte; izan ere, bizitza mantentzea emakumeen bizkar botatzen da, gizarte-mailan nahiz familia-mailan. Gure ustea izan litekeenaren aurka, soldatako lana gutxiengoa da Hegoaldeko herrialde gehienetan, eta gutxitzen ari da; ordaindu gabeko lanaren guztizko bolumena, bestalde, maila globalean eta lan egindako orduetan neurtuta, lan ordainduarena baino handiagoa da[6] . Horren arrazoia da ordaindu gabeko jarduerak, funtsean, autokontsumorako ekoizpena eta etxeko eta zaintzako lana direla. Laburbilduz, bizitza neurri handiagoan mantentzen da merkatutik kanpo, merkatu barruan baino.

Ikerlan honetan, **zaintza-lanaren merkantilizazioan zentratzen gara**, merkatu formalaren barruan egiten den lanari zein merkatu informalean egiten denari dagokionez, zaintza ordainduen erarik ohikoena izanik. Horrelako jarduerak badakar berekin harreman hierarkiko bat, etengabe negoziatzen ari diren muga lauso batzuk dituena, arlo publikoaren eta arlo pribatuaren artean, arlo pertsonalaren eta arlo profesionalaren artean, "barruan" eta "kanpoan" egotearen artean, bai eta klase, genero eta etniako harremanen birkokapen bat ere (Lutz eta Schwalgin, 2005). Gainera, enplegu horrek ordaindu gabeko zaintza-lana gutxiestea eragin ohi du; hori dela eta, soldataren eta lan-baldintzen aldetik zigorturiko sektore bat izan ohi da (Razavi eta Staab, 2010). Hain zuzen ere, LANEren arabera[7]: ***"etxeko lana mundu guztiko milioika emakumerentzat langintza zahar eta garrantzitsuenetako bat da, erroak esklabotzaren, kolonialismoaren eta bestelako mendetasun-era batzuen mundu-historian barneraturik dauzkana".***

Labur atzera begiratzen badugu XX. mendeko Espainiako Estaturantz, ikusiko dugu etxe-zerbitzua klase burgesaren estatus-ikur bat bihurtu zela, maila sozial bat aditzera ematen zuena, neskamea izateko ahalbidea zutenak gastu hori beren gain ezin har zezaketenetatik bereizten zituena. Berariazko eta gizarteak onarturiko sehigo-harreman bat[8] izanik, neskameak *"familiakotzat"* hartzen ziren, baina, emakumeak, pobretuak eta gazteak izanik, estatusik apalena zuten etxeetako antolaketaren barruan; eta, horrexegatik, askotan ozta-ozta mantenuaren eta ostatuaren truke lan egiten zuten, ***"denetarako neskameak"*** zirela (García Sainz, 2012). Denborarekin, "neskame" kontzeptua zaharkitua geratu zen, eta ordez "etxeko langilea" kontzeptua erabili zen, eta gero, "etxeko enplegatua", izaera horren estigma kentzeko, eta lan horiek profesionalizatzeko zein lanok egiten dituztenak "zerbitzatu behar dutenak" direlako ideiatik urrutiratzeko. Hala ere, oraindik bide luze bat dago egiteko, zaintzak bidezko antolaketa sozial bat izan dezan erdiesteko, lan horiek merkatuaren arloan egiten direnean, eskubide guztiak errespetatuz eta justizia-baldintzetan egiten direla bermatuko duena.

5. Sexuaren arabera esleitzen diren lanen espezializazioa, halako lanek bestelako balioztapen sozial eta ekonomikoa nahiz sinbolikoa ematen dutelarik.

6. Nazio Batuen arabera, 1991tik 2009ra bitartean, munduko biztanleria enplegatua % 62,2tik % 60,4ra jaitsi zen. 2009. urtean, emakumeen % 48k baino ez zuen enplegu bat munduan. Durán Heras, María Ángeles (2012).

7. Lanaren Nazioarteko Konferentzia, 99. bilera, 2010. Lan duina etxeko langileentzat.

8. Sehigo deritzon praktika sozialean, landa-eremuko familia pobretuetako neskak –eta neurri txikiagoan, mutilak– hirugarren batzuen etxeetan bizitzera eramaten dira, etxebizitzaren eta janaren truke. Maiz aski, ez dira eskolara joaten eta abusua jasaten dute.

### 2.4.3. Intersekzionaltasuna: generoaren, klasearen eta jatorriaren gurutzaketa zaintza-lanean eta etxeko enpleguan

Osasun publikoaren gaietan aditu Hilary Graham (1991) britainiar soziologo eta politologoak bere interesa etxeko enpleguan jarri, eta, bigarren memento batean, genero-desparekotasunak soilik aintzat hartuz analizatu zuen. Hurren, hainbat ikertzaile beltzek eta antirrazistak haren lanari eginiko kritikei esker, ondorioztatu zuen ezin uler zitekeela lan-mota hori, etnizitatearen eta klasearen inguruan eraikitako banaketa sozialetara –generoaren ingurukoez gain– jo gabe.

Aldagai asko dira pertsonak, harremanak eta arazo sozialak sortzen, moldatzen, dituztenak eta haiengan eragina dutenak, eta aldagai-gurutzaketa mataza nahasi baten irudiaren bidez uler daiteke. Metafora horren bidez, agerian jartzen du zein konplexu diren bizi-esperientziak eta fenomeno sozialak. Horregatik, analisi sozialak egiteko, begirada poliedrikoa izan behar da errealitate sozialari heltzeko, begirada intersekzional bat (Platero, 2013).

Analisi-mailan, genero, klase eta jatorriko aldagaiak hiru dimentsio independentetzat hartu ohi dira, baina, ordea, pertsonen bizipenetan intrintsekoki loturik daude, beraien gorputzetan. Hiru aldagai horiek elkar egituratzen dute, elkarrekin konbinatuz eta elkar berrelikatuz. Funtsezkoa da hainbat aldagai aintzat hartzea, emakume bakoitza taula sozialeko zein laukitxotan dagoen ulertzeko, haren ezaugarrien arabera. Horrela, **hobeto ulertuko da zergatik sortzen diren egoera jakin batzuk, nola bizi izaten dituzten egoerok, eta zer agentzia-ahalmen duten** (Bhavnani eta Coulson, 2004).

**Genero-isuriek, egitura patriarkalek eta ingurune sozial eta politiko** zapaltzaile batek baldintzaturik daude emakumeak (Pavlou, 2011). Atzerritarrak diren aldetik, daitekeena da arrazakeriari edo xenofobiari loturiko arazo gehigarriak jasatea, haien jatorri etnikoa, kolorea, erlijioa edo beste elementu batzuk direla eta, bai eta mugapenak ere beren eskubide sozial, politiko, zibil, ekonomiko eta kulturaletan, haien estatus juridikoaren eta migrazio-politika murrizgarri batzuen ondorioz. Azkenik, etxeko langileak diren aldetik, enplegatzaileen etxea den esparru pribatu horretan konfinaturik daude, maiz lan-baldintza eskas batzuen azpian eta haien eskubideak ikuskatu eta babesteko sistemetara jotzeko aukera gutxi dutela.

Etxeko eta zaintzako enpleguaren esanahia halako lanak nork eta zer baldintzatan egiten dituen aldatzen da. Egun, bizi garen sistema soziala birplanteatu beharrean, berrekoizpen-lana esternalizatu egiten da, era informalean askotan, eta prezio txikian, Estatua eta genero maskulinoa berrekoizpen sozialean duten erantzukizunetik libre utzirik. Horrela, erraztu egiten da herritarrek gizartean eta beren estatu sozialaren berrekoizpenean parte har dezaten, atzean utzirik halako emakume langileen figurak, ikusezin; izan ere, beren lan-eskubideak erabat ezin erabil ditzaketen emakume batzuk dira, sektorea berdintasunik ezeko egoeran dagoelako (Anderson, 2000).

Laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, etxeko lana esternalizatzeko beharrarekin batera, beharrizan ekonomiko handiak zituzten emakumeen iritsiera gertatu da; gainera, emakume horiek, atzerritarrak izanik, gizarte-bazterketako egoeran aurkitzen dira. Batzuetan, familiatik urruti ere daudela, gertu daude kontratatzen dituzten etxeetan *"familiakoak"* bilakatzeko, ordainsari eskas baten truke, beren guztizko prestasuna eskainiz horrela, egunean hogeita lau ordukoa eta astean zazpi egunekoa ere izan daitekeela muturreko egoeretan.

Zenbait egileren aburuz (Parella, 2003; Gil eta Gonzalez, 2012), "emakumeen arteko erantzukizun-eskualdatzea" gertatzen da, "non genero-berdintasunik ezaren egiturari jatorri etniko eta sozioekonomikoko desparekotasunak gainjartzen baitzaizkie". Horrela, gehitzen dutenez, "bikote barruko berdinzaletasun berriaren mitoa mozorrotzen da, eta patriarkatuak aldatu gabe jarraitzen du, etxeko egituren eta enplegu ordainduaren atzean datzalarik". Testuinguru horretan, **langile migratzaileek periferiako "erreserbako armada" bat balira bezala jokatzen dute, berrekoizpen sozialari loturiko zerbitzuen kostua merkatzea ahalbidetzen duena, bai kapitalarentzat, bai Estatuarentzat, emakumeen arteko desparekotasun sozialak gehitzeari esker.** Horregatik, egile horiek uste dute etxeko enpleguaren gehikuntza neurri handiagoan dagoela klase-berdintasunik ezaren mende, beste faktore batzuen mende baino, hau da, immigrazioaren edo amak laneratzearen mende baino.

Pierrette Hondagneu-Sotelok dioenez (2001), etxeko langileen "armadaren" zati handi bat askotariko herrialde batzuetatik eta zeharo desberdinak diren egoera batzuetatik datoz, baina guztien ezaugarria da herrialde aberatsetara beharrizan ekonomiko handiekin eta atzerritarrei buruzko legediak oso mugaturik iristen direla, "lan zikina" egiteko, beharrezkoa baina sozialki oso gutxi balioztatua (Anderson, 2000).

Bestalde, enplegatzen den pertsona hautatzeko irizpideei begiratzen badiegu, ikerlan askok diote etxeko langilea hautatzean eragina izaten dutela jatorriko kultura eta herrialdeei buruz izaten diren aurretiazko ideiek eta aurreiritziek.

Familia eskatzailearen bilaketa-irizpideen artean zenbait ezaugarri pertsonal nabarmentzen dira, hala nola ardura, konfiantza, esperientzia, tratu atsegina, sostengu emozionala emateko gaitasuna, eta elkarbizitzako intimitatea gordetzea. Halako ezaugarriak, tradizionalki eta kulturalki, zaintzailearen sexu femeninoari eta heldutasunari lotu ohi zaizkie (Rodríguez *et al.*, 2010). Jakina, beste faktore nagusi batzuk dira prestasun-maila eta soldata.

Baina badira, gainera, zaintzailea hautatzerakoan eragina duten beste irizpide batzuk. Batetik, irizpide objektibo batzuk daude, hala nola hizkuntzaren edo kulturaren aldetiko hurbiltasuna; eta, bestetik, irizpide subjektibo batzuk, iruditeria kolektiboan nagusituriko aurreiritzi eta estereotipoekin zerikusia dutenak. Gure gizartean, nabaria da latinoamerikar zaintzaileak nahiago izaten direla. Martínez–Bujánen arabera (2008), *"ez dago ebidentziarik lehenespen horren arrazoia denik kolektiboa kontratatzerakoan kostu ekonomikoa desberdina izatea, eta egoera horrek beste elementu batzuetan pentsarazten du, prestasunarekin, hurbiltasun kulturalarekin (hizkuntza eta erlijio berak, adibidez) eta emakume latinoei egozten zaizkion zenbait nortasun-ezaugarrirekin lotuta, halakoen ondorioz adineko pertsonak zaintzeko bereziki gai direlakoan"*.

Zenbait egilek ohartarazten dutenez, **generoari eta pertsonen jatorriari loturiko aurreiritziek hierarkia batzuk eratzen dituzte, historia kolonialek, erlijio-antagonismoek, eta egungo gizarteetako ulertu ezin kulturalek zeharkaturikoak, eta hori guztia etxeko enpleguaren sektorean ere islatzen da** (Gutiérrez Rodríguez, 2010).

Etxeko enpleguko zereginak egiten diren baldintzak desparekotasun sozialen ispilu dira; sektore hori funtsezko pieza bat da genero, klase eta jatorri/etniako desparekotasunek markatutako pertsonarteko harremanen berrekoizpen-mekanismoaren barruan (Anderson, 2000).

Pertsonarteko harremanak beraiek garatzen diren testuinguruaren mende daude, eta langileen diskurtsoen bidez atzematen denez eta etxeko enpleguari buruzko ekoizpen teorikoan jasotzen denez, bereizkeriak maiz samarrekoak dira, eta langileen bizi-garapenari nabarmen eragiten diote (Lutz, 2002; Parella, 2003).

Izan ere, **etxeko enpleguan, egiturak eta erakundeek ezarritako legezko bereizkeria ez ezik, pertsonarteko harremanetan eta maila subjektiboago batean agertzen diren bereizkeriak ere pairatzen dira.**

Mespretxua hainbat alderditatik transmititzen da: aitormen sozial eta ekonomiko eskasaren bidez; egiten den lana gutxi aintzat hartuz; lan-baldintza txarren bidez; beste pertsonaz ez arduratuz, kontuan ez hartuz, ikusezin bihurtuz, errua egotziz, kuestionatuz, gutxietsiz. Egoera larriagotu egiten da etxeko langilea Europako Erkidegokoa ez den atzerritar herritarra izanez gero; izan ere, halakoetan, haien negoziazio-ahalmena ia hutsa da, eta askotan egoera onartezinak jasaten dituzte, arazorik ez sortzeko, eta salaketen eta kanporaketen beldur direlako (Anderson, 2000; Ehrenreich eta Hochschild, 2004; Gutiérrez Rodríguez, 2010; Lutz, 2002; Parreñas, 2001). Encarnación Gutiérrez Rodríguezek dioenez (2013), horrelaxe transmititzen zaie, hain zuzen, gutxiagotasunezko sentimendua Europako Erkidegokoak ez diren atzerritar langileei.

Nahiz eta, legez, “arrazari” loturiko arrazoien ondoriozko desparekotasunak esplizitatzen ez diren, atzerritarrei buruzko lege-sistemaren barruan Europako herritartasuna dutenen eta ez dutenen artean bereiziz ezartzen dira halakoak, modu horretan erabakitzen baita herritar eskubidedunen multzoan sartzea edo multzo horretatik baztertzea.

Ildo horretan, aditzera ematen da atzerritarrei buruz Estatuek ematen dituzten arauak (izaera publikokoak) etxeko lanaren bidez (izaera pribatukoa) lotzen direla etxeetako espazio intimoarekin. Hortxe, hain zuzen, txertatzen eta mamitzen da dimentsiorik makroena pertsonen bizitzen dimentsio mikroan.

Emakumea, pobrea, eta beste jatorri batekoa izatearen ondoriozko bereizkeria sektore horretan ez ezik, gizartean oro har ere nabaritzen da. Hala ere, etxea toki enblematiko bat da, non harremanek osagai afektibo oso nabarmena baitute eta buruz buru gertatzen baitira. **Etxea da batzuen gehiagotasuna beste batzuen gutxiagotasunaren aldean zertzen den lurraldea** (Anderson, 2000; Gutiérrez Rodríguez, 2013).

Laburbilduz, etxeko eta zaintzako enplegua eman edo hautatzean, generoak ez ezik, jatorriak, klaseak, sexualitateak eta etniak ere badute eragina. **Pertsona-talde batzuk sozialki “zerbitzatzeko” esleitzen dira, eta beste batzuk, ordea, zerbitzatuak izateko duintzat jotzen dira** (Arango, 2010).

## 2.5. Zaintza-lanaren eta etxeko enpleguaren alderdi pertsonalak

### 2.5.1. Identitateak eta sexuaren araberako lan-banaketa

Azaldu dugunez, etxeko eta zaintzako enplegua egiten da, batetik, jarduera fisiko batzuen bidez eta, bestetik, harreman emozional eta pertsonarteko batzuen bidez. Pertsonarteko harremanen bidez, **espero izaten da zaindu egiten duten pertsonek maitasuna, ardura, eta ahalegina eman ditzaten, eta ez soilik besteen kargua har dezaten, haietaz kezkatu ere egin daitezen** (Abel eta Nelson, 1990).

Besteen ongizaterako maitasunaz, arduraz eta ahaleginaz hitz egiten denean, eta kontuan hartuz etxeko enpleguaren sektorea lan-sektore feminizatu bat dela eta halako lanak historian zehar emakumeek egin izan dituztela ordaindu gabeko lan gisa, ezinbestekoa da hitz egitea etxeko eta zaintzako lanaren dimentsio identitarioenaz, eta sozialki femeninotzat determinaturiko identitateen bereizgarriez.

María Jesús Izquierdo (2003) identitate maskulino eta femeninoez aritzen da, eta halakoek pertsonak zaintzeko jarduerekin duten loturaz Egilearen arabera, enplegu-lana antolaketa sozialaren erdigunean daukan gizarte honetan, sexuaren araberako lan-banaketa, ekoizpena antolatzeaz gain, funtsezko mekanismo bat da identitateak moldatzeko eta zenbait balio barneratzeko sozializazio-prozesuan.

Esaterako, sexu femeninoko pertsonek bat etorri beharreko rola zaintzara orientatzen da, besteekiko lotura onartzera, eta inoren beharrizanak asetzeko prestasunera, **“bestearen” irudia gakoa dela hura gauzatzeko. “Beste” hori, kezkaren objektua izateaz gain, “emakumearen errealizaziorako nahiz emakumearen balioa baiesteko tresna da”** (Izquierdo, 2003, 123).

Gizarte kapitalista eta patriarkalean, sexuaren araberako lan-banaketa bi rol “idealen” osagarritasunean oinarritzen da: batetik “etxekoandrea” dago, zaintzan diharduena; bestetik, “ogi-irabazlea”, hornidura ekonomikoan diharduena. Lehenaren identitatea moldatzen da besteen onurarako produktu eta zerbitzuak egitean oinarrituz, eta bigarrenaren identitatea, berriz, helburuak lortzera bideratzen da batik bat, lan egiteko ekintzan oinarrituz, gainerakoen balioztapenak aintzat hartu gabe (Izquierdo, 2003). “Etxekoandrearen” figuraren kasuan, oso harreman pertsonal eta zuzen bat dago zaintza ematen duenaren eta zaintzaren onura jasotzen duenaren artean, eta “ogi-irabazlearen” kasuan, ordea, ez.

Oro har aipatzen dira, noski, gizonen eta emakumeen identitatea eta haren sozializazioa, pertsona baten identitatearen eta ezaugarrien definizioan faktore eta aldagai ugari jokoan sartzen dela jakitun. Horrexegatik, ezin da homogeneotasunaz hitz egin emakumeen taldearen barruan, ez eta zaintza-lanei dagokienez ere.

Sexuaren araberako lan-banaketari atzera ere helduta, Margaret Mead antropologoaren lanak abiapuntu, Dolors Comasek (1995) nabarmendu egiten du zer garrantzi duen testuinguru eta kulturaren osagaiak pertsonen erabakian, lana –eta, ondorioz, gizartean izango duten lekua– bilatzeko garaian. Esate baterako, batzuetan etxeko eta zaintzako enplegua hautu bat izan daiteke, baina **emakume pobretu askok historian zehar lan hori egin dute beste sektore batzuetan sartzeko eta goi-mailako hezkuntza hartzeko aukerarik ez zutelako, eta ez hala nahi zutelako.**

### 2.5.2. Emozioak eta afektuak etxeko enpleguan

Esan dugunez, zaintza-lana badu dimentsio *"immaterial"* bat, alderdi afektibo eta *harremanezkoari* dagokiona, ongizate emozionalarekin lotuta. Arlie Hochschildek (1979) "lan emozionala" kontzeptua erabiltzen du, norberaren sentimendu eta emozioak maneiatzea behar duten lan horiei guztiei egiten baitie erreferentzia, eta jartzen duen adibidea da *"lan-tresna bihurtutako irribarrearen"* rola.

**Etxeko eta zaintzako lanean bereziki, ezagutzak eta tresnak behar dira, emozioen aldetik kritikoak diren egoera batzuei aurre egiteko, bai haurrekin, bai adinekoekin.** Halakoak izan ezean, daitekeena da lan horiek pertsonarteko harreman gaixotiak eta kaltegarriak sortzea eta, hori dela eta, ondorio larriak ekartzea tartean diren pertsonentzat.

Zaintza gauzatzean, batetik, zaintzaileak lan horiek egiten dituen modua sartzen da jokoan, beste alde batetik, emaniko zaintza hautematen den modua, eta, azkenik, badago oso garrantzitsua den hirugarren faktore bat, alegia, bi pertsonen artean ezartzen den harremana, zaintza ematen duenaren eta zaintzaren onura jasotzen duenaren artean. Irudikteria kolektiboan, harreman horrek, berez, maitasun eta konpromisozkoa izan beharko luke, baina nabarmendu behar da daitekeena dela etsaitasuna, arbuioa, eta erresumina sentitzea, beste sentimendu batzuen artean (Izquierdo, 2003).

Hala, bada, zaintza-lanak egitea eta jasotzea bi ahoko ezpata izan daiteke, eta esker on zein erresuminezko sentimenduak sor ditzake, eskuzabaltasun zein ahanzturazkoak, zor zein leialtasunezkoak, autokonplazentzia zein altruismozkoak, *"azken batean, boterea zein esplotazioa"* (Vega Solís, 2009, 97). Hartara, **lan honen alderdi emozionala aintzat hartu behar da, eta etxeetan bizi diren afektu eta emoziozko loturak agerian jarri, botere-, esplotazio- edo indarkeria-harremanak salatze aldera, halakorik sortuz gero.**

Kontuan izan behar dugu gizakiok hartzen ditugun erabakiak, oro har, ez direla erabaki arrazional hutsak, era emozionalean ere hartzen ditugula. Hori horrela, eta emakumeen kontakizunen bidez aurrerago ikusi ahalko denez, zenbait kasutan zaindutako pertsonekiko emozioak eta konpromisoak beren interes ekonomiko eta pertsonalen aurretik jartzen dituzte etxeko langileek.

Orain arte esan denaren arabera, etxeko eta zaintzako enplegua, Bridget Andersonen hitzetan (2000), ez da beste lan ordaindu bat gehiago[9], zeren, batetik, alderdi emozionala oso indartsua baita eta, bestetik, etxeko lan bat egiteagatik soldata bat izateak oso espazio intimo batean egotea baitakar berekin, alderdi enplegatzaileak boterea eta nagusitasuna erabil ditzakeen toki batean, hain zuzen. Gainera, enplegatuak etorkinak badira, botere-logikak markatuagoak izan daitezke, eta, horrela, etxeen barruan harreman kolonialak berpizten dira zenbaitetan (Salazar, Jiménez eta Wanderley, 2010).

Bestalde, **mendekotasuna duten pertsonak zaintzen diharduten etxeko langileei egiatan eskatzen zaiena da *"familiako kide"* gisa joka dezaten**, ama edo aita gisa, haurrak zaintzean, eta seme eta alaba gisa, adinekoen zaintzaren kasuan, laguntza emateko, ez makina batek emango lukeen eran, gizaki batek emango lukeen eran baizik (Anderson, 2000; García Castro, 1993)

9. Jatorrizko hizkuntzan: domestic labour is not just another paid job.

Etxeko langileek, lan-indarraz gain, *pertsona-izaera bera* saltzen dute, etxeek giza izaerari estu lotutako zeregin batzuk egin daitezen behar dutelako. Ez da bakarrik pixoihalak aldatzea edo jaten ematea, baizik eta zainketa holistiko eta osoak ematea, pertsonaren beharrizan-mota bakoitzari –fisikoa den zein psikologikoa den– arin erantzuteko gaitasunarekin. Hori ezin da makina baten bidez egin, eta, ordea, bada pertsonen berezko gaitasunetako bat.

Nolanahi ere, Mari Luz Estebanek dioenez (2010), **garrantzizkoa da zaintza-lanak emakumeen berezko zerbaitekin lotzen dituzten jarrera esentzialistak alboratzea;** izan ere, emakumeok "izaki emozionaltzat" hartuak izatea eraikuntza sozial bat baino ez da, eta mendetasun sozialerako tresna nagusietako bat, batzuek eta besteek egindako ekarpenak eta betetako espazioak bereizten eta hierarkizatzen dituelako. Egilearen hitzetan: *"(…) emakumeak finkatzen eta naturalizatzen dituzten planteamenduetatik ahalik eta urrutiena edukitzen gaituzten azalpenak eta teoriak bilatzearen alde egin beharko genuke, planteamendu horiek ez baitigute laguntzen aldaketarako alternatibak bilatzeko garaian. Era berean, ezinbestekoa da elkar laguntza, elkartasuna eta elkarrekikotasuna berriz definitzea, egungo familiako harreman eta ideologien mugak gaindituz. Edo, gauza bera dena, zaintzari buruzko eztabaida ez da soilik emakumeen eta gizonen arteko edo maila sozial desberdinak dituzten kolektibo batzuen arteko (etorkinak/autoktonoak) desparekotasun ekonomiko eta sozialei loturiko eztabaida bat, hori bada eta. Bada, orobat, familia, harremanak eta elkarbizitza berriz aztertzera behartzen gaituen eztabaida bat".*

## 2.5.3. Egoera anbibalenteak etxeko enpleguan

Sektore honetan, askotariko egoerak gertatzen dira lan-harreman zein harreman pertsonalen aldetik, errespetuan, aitormenean eta elkartasunean oinarrituriko baldintzetatik hasi, eta tratu txarrak, arbuioa eta etsaitasuna nagusi diren egoeretaraino (Gutiérrez-Rodríguez, 2013; Salazar, Jiménez eta Wanderley, 2010; Gorban, 2012).

Esate baterako, enplegatua *"familiakotzat"* tratatzea alderdi enplegatzailearen estrategia bat ere izan liteke, negoziazio-ahalmena areagotzeko eta, horrela, soldatetan eta lan-baldintzetan aurrezteko (Anderson, 2000). **Etxeko langileek, sarritan, beren lanen berezko anbibalentzia bizi izaten dute: aldi berean *"familiakoa modukoa"* izatea eta, beste batzuetan, *"langile hutsa"* izatea.**

Débora Gorbanek (2012) alderdi enplegatua eta alderdi enplegatzailearen arteko harremanak aztertu ditu, eta halakoetan sentimendu kontrajarriak azaltzen dira. Zenbaitetan, alderdi kontratatzaileak etxeko langilea *"beharrezko gaitz"* gisa ikusten du. Egileak agerian jartzen du bi alderdien artean eratzen den botere eta mendetasuneko harremana: *"boterea, desparekotasun sozioekonomiko batean oinarritzen delako, non, batetik, ogibidea bilatze aldera, beste emakume batzuen etxeetarako zaintzako eta garbiketako zerbitzuak eskaintzen dituen emakume bat baitago eta, bestetik, horrelakoak egotea behar duten beste emakume horiek, etxeetako berrekoizpenaren arloko zenbait zeregin eta erantzukizun haien esku uzteko"* (Gorban, 2012, 37).

**Nabarmendu behar da, lanera joateko, etxeko langilearen beharra duen emakumea ere badagoela bereizkeria-egoera batean.** Sozialki, haren gain jartzen da berrekoizpen sozialaren pisua, ez lan-antolaketa, ez Estatua, ez genero maskulinoa, ez direlako inplikatzen.

# 3

# IKERLANA TESTUINGURUAN KOKATZEA



# 3. IKERLANA TESTUINGURUAN KOKATZEA

Elkarrizketa teorikoak bide eman digu, ekonomia feministaren postulatuetan oinarrituz, zaintzaren krisi globala eta zaintzaren beraren antolaketa sozial bidegabea analizatzeko. Bidegabea, ikusgai bihurtutako eta gutxietsitako lan bat oinarri duelako eta menderakuntza kapitalista, heteropatriarkal eta kolonialistaren sistemetatik eratortzen delako; ondorioz, zaintza ordainduta egiten denean, botere-harreman horiek erreproduzitzen dira, eta indarkeria, prekarietatea eta eskubideen urraketa ekartzen dituzte. Ondoren, **egokia da ikerlanaren esparrua eratzen duten lege-testuinguruaren zein testuinguru kuantitatiboaren ikuspegi labur bat** ematea.

Lege-esparrua laburki deskribatuko da, gure arreta etxeko enplegua arautzen duen legedian eta atzerritarrei buruzko araudian jarririk. Bestalde, etxeko enpleguaren sektorearen deskribapen kuantitatibo bat egingo da, datuak sexuaren eta nazionalitatearen arabera banakatuz, Espainiako Estatuan, EAEn, Araban eta Vitoria-Gasteizen.

Atal honen xedea informazioa ematea da, ikerlan honetan aztertzen diren langileen kontakizunak sakonago ulertzeko.

## 3.1. Lege-testuingurua

Garrantzitsua iruditu zaigu atzerritarrei buruzko arau-esparruaren laburpen bat egitea, etxeko emakume langile atzerritarrek –irregulartasun-egoeran daudenek, bereziki– jasaten baitituzte ahultasun eta babesgabetasun handieneko egoerak indarkeria matxisten aurrean, eskubide-urraketako egoeraz gain, langile horien kontakizunetan aurrerago ikusiko dugunez.

### 3.1.1. Etxeko enpleguaren arloko lege-testuinguruaren deskribapen laburra

#### 3.1.1.1. Nazioarteko lege-testuingurua

Nazioartean, nabarmendu behar da Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) eginiko lana, mundu-mailan etxeko langileen eskubideak zaindu eta babesteko. Nazioarteko erakunde horrek etxeko langileentzat baldintza duinak aldarrikatzeko jarri duen interes adierazgarriak, batzuetan asmatuta zein beste batzuetan mugak topatuta ere, erakutsi egiten digu zer garrantzi hartzen ari den lan-mota hori lanaren nazioarteko antolaketan (OIT, 2014).

2011ko ekainean, LANEk 189. **Konbentzioa eta 201. Gomendioa ezarri zituen, mundu-mailan etxeko enpleguaren zehaztapen eta baldintzak arautzeko.** Konbentzioa nahitaezkoa izan dadin, Estatu bakoitzak berretsi behar du, baina berrestea ez da ezinbestekoa. Espainiako Estatuak ez du berretsi, eta horregatik ez du batere ondoriorik izan. Gomendioak ez dira nahitaezkoak, eta, ez badira berresten, konbentzioa hobeto eta zabalago interpretatzeko aholku hutsak dira.

Konbentzio horren arabera[10], etxeko langilea da etxeko lanak lan-harreman baten barruan egiten dituen pertsona oro, halako zereginak familiaren arloan egiten dituztenak kanpoan utzirik (1. artikulua). Haren xedea da tresna bat izatea lanaren zehaztapenak eta baldintzak nahitaez idatziz jaso daitezen, bereziki nabarmenduz lan-ordutegiak eta presentzia-ordutegiak[11], oporraldiak, eta eguneroko zein asteroko atsedenaldiak (7., 9. eta 10. artikuluak). Etxeko langileen giza eskubideak babesten ditu 3. artikuluan, lanaren oinarrizko printzipio eta eskubideak sustatuz[12]. Horrez gain, bidezko lan-akordioak sortzea aldezten du, lan-baldintza duin batzuetan oinarritutakoak, lan-ingurune osasungarriak bermatzeko modukoak, langileen osasun fisiko eta/edo mentala arriskuan jarri gabe, abusurik eta indarkeriarik gabe, gutxieneko soldata tokiko diruan jasota eta gizarte-babes zein gizarte-segurantzako eskubideak edukita, amatasunari dagokionez, bereziki (4., 5., 6., 11., 12., 13., eta 14. artikuluak).

Nabarmendu egiten da erakunde publikoen beharrezko eta funtsezko ikuskapen-eginkizuna, arau guztiak betetzen direla egiaztatzeko (17. artikulua), bai eta bitartekotza-agentzien arauketa eta kontrol sistematikoa egiteko eginkizuna ere, azken horiek adosten eta legitimatzen baitituzte askotan esplotazio-egoerak sektore horretan (15. artikulua).

Konbentzioaren atarikoan onartu egiten da lan horren zati handi bat pertsona migratuek egiten dutela, eta, horregatik, 8. eta 9. artikuluetan migratzaileei zehazki doazkien alderdi batzuk arautzen dira. Esaterako, norberaren bidaia- eta nortasun-agiriak gordetzeko eskubidea aipatzen da, eta langileek zerbitzuak emango dituzten herrialdean betearazlea den kontratu bat izateko eskubidea, kontratazioa jatorrian egiten denean, migratu aurretik lan-baldintzak xehakatuta, orobat, pertsonen salerosketa eragozte aldera (Albin eta Mantouvalou, 2012; OIT, 2014).

### 3.1.1.2. Estatuko lege-testuingurua

Historian zehar, etxeko enplegua egoera okerrago batean egon da, gainerako sektoreak baino. 1969. urtean, Etxeko Langileen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezia *(RESSTH)* sortu zen, eta, sektorea erregularizatu bazuen ere, erregularizazio horrek haren salbuespenezko izaera legitimatu zuen, bai eta tratu bereizia ematea ere, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean inskribaturiko gainerako langileen aldean.

1985ean, etxeko enplegua lan-harreman gisa arautu zen, 1424/1985 Errege Dekretuaren bidez, haren salbuespenezkotasuna eta gainerako sektoreekiko tratu desberdina ezarrita. Legezko tratu horren ondorioak izan dira, batetik, beste sektore batzuetan onarturiko Langileen Estatutuetako eskubide asko ukatzea eta, bestetik, pertsona kontratatuen eskubideak enplegatzaileen eskubideen mende jartzea.

Errege Dekretu horretan jasotzen ziren eskubide eta betebeharrak oso bigunak ziren; besteak beste, idatzizko kontratua ere ez zen beharrezkoa, bi alderdien arteko hitzezko kontratu bat nahikoa zen eta. Horrez gain, zegokion Etxeko Enplegatuen Sistema Berezian ez zegoen langabezia-prestazioa jasotzeko eskubiderik, eta bereizkeriazko baldintzak jartzen ziren, gainera, lan-istripu edo lanbide-gaixotasuneko, ezintasun iraunkorreko edo erretiroko kontingentzietarako.

10. 189. Konbentzioaren artikulu guztiak xeheki ezagutzeko, ikus (OIT, 2014).

11. Honako hau da presentzia-ordutegia: “etxeko langileek beren denbora libreki ezin erabil dezaketen eta etxean geratzen diren aldiak, etxekoen esanera, beren zerbitzuak eskatzen bazaizkie ere” (OIT, 2014, 10. art.). Ordutegi hori, 189. Konbentzioaren arabera, lan-ordutegitzat hartu behar da.

12. Haien artean hauek nabarmentzen dira: elkartzeko askatasuna; askatasun sindikala; negoziazio kolektiboa; bortxazko lana ezeztatzea; haurren lana ezeztatzea.

2011ko azaroaren 14an, LANEren 189. Konbentzioa, Espainiako Estatuan berretsi gabekoa, iragarri zen urte berean, estatuko Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak **1620/2011 Errege Dekretua plazaratu zuen, familia-etxeko zerbitzuaren lan-harreman berezia arautzekoa, non sektore horretako baldintza eta eskubideak berrikusten baitziren.** Ordukoan ere sektore honen salbuespenezkotasuna esplizitatu zen: *"jarduera ematen den ingurunea, familia-etxea, dela bide –hain loturik egonik pertsonaren eta familiaren intimitateari, eta erabat arrotz eta bestelakoa izanik lan-harremanen ezaugarri komunekin erkatzean– nahiz lotura pertsonala dela bide –familia-etxeko titularraren eta etxeko langileen arteko lan-harremanean, sortzez, nagusi den konfiantza-harreman berezi batean oinarritua–, zein ez baitu halabeharrez egon behar lan-harremanen gainerako motetan"* (BOE, 2011, 119046).

Errege-dekretu hori 2012ko urtarrilean sartu zen indarrean, eta, lehen aldiz, etxeko langileen lan-baldintza eta -eskubideak arautzeko beharra aitortu zuen, lan-harreman arruntek zituztenen antzekoak izan zitezen. Dekretu horren bi ardatz nagusiak hauek ziren (León, 2013):

1. Lan-baldintzak, lanorduak, atseden-orduak, zereginak eta ordainsaria kontratu idatzi batean zehazteko betebeharra.

2. Eskubide sozialak eskuratzeko aukera lan-harreman arruntenarekin parekatzea.

Etxeko enpleguaren ordainsariari dagokionez, 8. artikuluan lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) ezarri zen, lan egindako denboragatik ordaindu behar den zenbatekoa zehazteko erreferentziatzat. Gainera, soldatak dirutan ordainduko direla ezartzen da. Hala eta guztiz ere, *"etxeko zerbitzua ematean zenbait prestazio –hala nola ostatua edo mantenua– gauzatan jasotzeko eskubidea dagoen kasuetan, halako kontzeptuengatik alderdiek adostutako ehuneko bat deskontatu ahalko da, baldin dirutan lanbide arteko gutxieneko soldataren hileko zenbatekoa, bederen, ordaintzea bermaturik geratzen bada, kontzeptuon baturak soldata osoaren % 30 baino gehiagoko deskontua eragin gabe"*. Hau da, otorduetan egoten den eta, hortaz, presentzia-orduak egiten ari den etxeko langile bati bere soldataren zati bat deskontatuko zaio, jaten egoteagatik, hain zuzen. Horrek berekin dakar lan-denbora gehitzea, baina ez ordainsaria. Hori gutxi balitz, gauzatan ematen den lansariaren balioaren arabera aldez aurretik adosturiko zenbateko finko bat aplikatu beharrean, deskontua ehunekoetan egiten bada, kontzeptu beragatik desberdin kobratuko da, janaria berbera izan arren. Azkenik, gau osoan lanerako prest egoten diren barne-langileek ez dute gaueko lanaren plusa kobratuko beren nominetan, baizik eta deskontu bat jasango dute ostatuagatik.

Lan-denborari dagokionez, errege-dekretu horren 9. artikuluan daude xedaturik atsedenaldien gutxienekoak. Gutxienez hamabi orduko gaueko atsedenaldi batzuk aurreikusten dira lanaldi baten bukaeratik hurrengoaren hasierara bitartean; barne-langileen kasuan, baina, atsedenaldia hamar ordura arte murriztu ahalko da, gainerakoa, hamabi ordutaraino, lau aste arteko aldietan konpentsatuta. Horrez gain, argi ezartzen da barne-zerbitzuaren modalitatean diharduten langileak gutxienez bi orduko atsedenaldia izan beharko duela egunean, eta ondoz ondoko hogeita hamasei orduko atsedenaldi bat astean.

Artikulu berean, berariaz xedaturik dago Langileen Estatutuko 37. artikuluan aurreikusiriko jai eta baimenak izan beharko dituztela langileek, eta urteko oporraldia hogeita hamar egun naturalekoa izango dela. Oporrak hartzeko aldia edo aldiak bi alderdien artean adostu beharko dira, eta, hala gertatzen ez bada, enplegatzaileak 15 egun ezarri ahalko ditu, bere beharrizanen arabera, eta gainerako 15 egunak, enplegatuak.

Errege-dekretu horren eskutik, **Gizarte Segurantzako Sistema Eguneratu, Egokitu eta Modernizatzeko abuztuaren 1eko 27/2011 Legea eman zen, eta hark etxeko enplegua Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartu zuen, Etxeko Langileen Sistema Berezia *(SEEH)* sortuz.** Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartearen arabera[13] (ATH-ELE, 2012), honako hauek balioetsi behar dira:

1. Laneko lehen ordutik bertatik kotizatzeko eskubidea aitortu izana.
2. Alderdi enplegatzaileak pertsona kontratatuaren alta lehen ordutik bertatik egiteko erantzukizuna esplizitatu izana.
3. Lan-istripuak onartu izana.
4. Bajak kobratzeko, gainerako sektoreekin parekatu izana.

Pauso positiboa izan dela onarturik ere, bai etxeko enpleguaren lege-baldintzak hobetzeko, bai gainerako sektoreekin legez parekatzeko, agerian jarri behar da ez direla egin espero ziren aldaketa guztiak eta oraindik geratzen direla zenbait lege-hutsune sektore honi buruzko arauetan. Zehazki, arau honek ez du arreta jartzen presentzia-ordu anbiguoetan[14], eta, horrela, figura juridiko horrekin asteko 60 orduko lanaldiak legeztatzen dira. Gainera, dekretu horretan, ostatuaren eta mantenuaren deskontuetarako, ezartzen den gehieneko muga % 30 da; egiten diren lanorduen, soldataren eta ematen den mantenuaren arabera, deskontu hori gehiegizkoa eta bidegabea ere izan daiteke. Halaber, gaueko lanaldiaren baldintzek eta lansariek arautu gabe jarraitzen dute, eta sektoreari ez zaio onartzen langabezia-prestazioa.

Kontuan izan behar da, orobat, ez dela izan oso erraza, eta ez da izaten ari, dekretuaren ezarpena, hiru alderdi hauek direla eta, gutxienez:

1. **Atzerritarrei buruz indarrean den legediak** Europako Erkidegokoak ez diren eta egoitza- eta lan-baimenik ez duten atzerritar pertsonei **jartzen dizkien mugak**; izan ere, enplegatzaileak langileari kontratua eta alta egin nahi izanda ere, ezin du halakorik egin.
2. **Etxe barruko ingurunean ikuskapenak eta kontrolak egiteko zailtasuna,** kontrolatzeko ea langileek benetan Gizarte Segurantzako alta duten eta benetako lanorduen arabera kotizatzen ari diren.
3. **Gizarte Segurantzarako ekarpenaren zenbatekoa igo da familientzat.**

Indarrean sartu eta urtebetera, lehen aipaturiko errege-dekretuan aldaketa batzuk egin ziren, **Etxeko Langileen Sistema Berezian kudeaketa eta babes soziala hobetzeko eta izaera ekonomiko eta sozialeko beste neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 29/2012 Errege Dekretuaren bidez.** Eginiko aldaketen artean, aipatu behar dugu 2012ko errege-dekretu honetan, lan-harremanak hilean 60 ordu baino gutxiagokoak badira, Gizarte Segurantzako afiliazioa, altak, bajak eta datu-aldaketak enplegatuak egin ditzakeela zuzenean, aurreko errege-dekretuan enplegatuari laneko lehen ordutik alta egitera behartzen zenean enplegatzailea, kontratazio formala sustatze aldera. Halako kasuetan, alderdiek adostu ahal dute Gizarte Segurantzan alta egiteko erantzukizuna langileak hartzea, baina enplegatzaileak bere ekarpena egin beharko du, betiere.

13. ATH-ELE elkarteak egoitza Bilbon dauka nagusiki 1985az geroztik, sektore honetako langileen eskubideen alde borrokatzeko, eta erreferente bat da Euskal Herrian. Elkarteak astero doako aholkularitza juridikoa ematen du, eta espazio horretan, hain zuzen, biltzen dira langileei buruzko datuak, gero urteko estatistikak argitaratzeko. 2016. urtean, 462 pertsona igaro ziren aholkularitza horretatik, eta guztira 480 lan-kasutan eman zen laguntza.

14. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren arabera, presentzia-denbora da langilea enplegatzailearen esanera egoten den denbora, praktikan lanik gauzatu gabe. Etxeko enpleguan ezartzen da asteko 40 orduko gehieneko lanaldiari 20 ordu gehitu ahal zaizkiola, guztira 60 ordutara iritsi arte astean.

Aldaketa horrek badu garrantzia, ordu gutxitan enplegaturiko langileei zuzenean eragiten dielako. Aldaketa horren ondorioz eta –Gizarte Segurantzako kotizazioen tarteekin lotuta– 2013az geroztik indarrean sartu ziren aldaketen ondorioz, praktikan, lan-ordutegia zenbat eta laburragoa izan, hainbat handiagoa da ehunekoetan ekarpen gisa ordaindu beharreko dirua. Esan nahi baita, ordu gutxi lan egiten dutenek, proportzioz, diru gehiago ordaindu beharko luketela, ordu gehiago lan egiten dutenek baino. Horrexegatik, emakume horietako asko ez daude motibatuta alta egiteko, eta era horretan sektore honen zati handi bati ezkutuko merkatuan eusten zaio.

Lan-osasunari dagokionez, **Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko (LAPL) 3. artikuluko 4. zenbakian berariaz uzten dira beraren aplikazio-eremutik kanpo *“familia-etxeko zerbitzarien lan-harreman bereziak”*,** arau horiek enpresetarako pentsatuak direla eta, ez baitira familia-etxeko esparruan aplikagarriak (Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa, 2017).

Arau horien aplikazio-eremutik kanpo egoteak, praktikan, eragiten du alderdi enplegatzailea zenbait jarduera egitetik salbuetsirik geratzea, hala nola prebentzioa planifikatzea, arrisku-ebaluazioak egitea, osasunaren zaintza aurrera eramatea, lantokia egokitzea, edo enplegatuei behar bezalako prestakuntza ematea lan-osasunaren arloan (CCOO, 2016). Hala ere, LAPLak berak aditzera ematen du etxeko enpleguaren sektoreko alderdi enplegatzaileak *“nahitaez zaindu behar duela bere langileen lana segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan egiten dela”*; eta, horretarako, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren arabera *“helburu horretarako neurri eraginkorrak hartu behar dira, egin behar diren lanen berezko ezaugarrien arabera”* (Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa, 2017). Horrek esan nahi du enplegatzaileak badituela betebeharrak, baina, horren inguruko ez azterlanik, ez inongo araudirik ez dagoenez, haren aukeramen askearen mende geratzen da lan-arriskuen prebentziorako neurri horiek hartzea. Legezko araudia aplikagarria ez denez, ez dago jarraipen neurririk, ez eta, prebentzio-neurriak beteko ez balira, hertsapen-neurririk ere. Azken batean, LAPLak sektorea kanpo utzi izana etxeko enpleguaren gutxiespen sozial eta legalaren ondorio argia da.

Deigarria da nolako tratamendu bereizia ematen zaion etxeko enpleguari, gainerako lanen aldean, bereziki etxean egiten direnen aldean. LAPLa ez zaie aplikagarria etxeko enplegatuei, baina zaintza-lanak era *“kalifikatu”* eta *“profesionalean”* egiten direnean, bai da aplikatzekoa. Argi eta garbi, legezko bereizkeria baten aurrean gaude. Halaxe gertatzen da etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren kasuan (ELZ)[15]; izan ere, sektore horretan LAPLa aplikatu egiten da, nahiz eta lan hori ere etxean egiten den. Argi dago etxeko langileak erregimen orokorretik eta dagozkien eskubideen babes eta errespetutik baztertzeko arrazoi bakarra dela gure gizartean dagoen menderakuntza heteropatriarkal, kapitalista eta arrazistako sistema. UPV/EHUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle eta ATH-ELEko kide Isabel Otxoak azaltzen duenez: *“arriskuak berberak dira: erorikoak, kolpeak objektuekin, mugimendu errepikatuen edo laneko gorputz-jarrera desegokien ondoriozko nahasmendu muskuloeskeletikoak, ebakiak, harrapatzeak, erredurak, dermatitisa, arnasbideetako alergiak, eta lana egiten den etxearen bereizgarriek eragindako berezko arriskuak”* (Otxoa, 2012).



15. ELZ mendetasuna duen pertsonaren etxean gauzatutako jarduerek osatzen dute, eta jarduerok dena delako pertsona horren eguneroko bizitzako premietan laguntzeko izango dira, erakunde edo enpresa batzuek eskainita, horretarako behar bezala egiaztaturik badaude, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 23. artikuluan jasotakoaren arabera.

### 3.1.2. Atzerritarrei buruzko lege-testuinguruaren deskribapen laburra

Urtarrilaren 11ko **4/2000 Lege Organikoaren arabera (Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa),** Espainiako Estatuko lurraldean sartu nahi duten atzerritarrek arau zorrotz batzuk bete behar dituzte. Haien herritartasuna ez bada Europako Erkidegokoa, bisa bat behar dute[16].

Nahiz eta bisa eskuan eduki, egonaldiaren xedea eta baldintzak justifikatu egin behar dira, eta egiaztatu egonaldirako bizi-baliabide nahikoak edukitzea edo baliabide horiek legearen barruan eskuratzeko baldintzetan egotea. Nolanahi ere, pertsonek hainbat agiri aurkeztu behar dituzte, bidaia-motaren arabera.

Europako Erkidegokoak ez diren pertsonen kasuan, gehieneko egonaldia 90 egunekoa da, denbora luzeagoko ikasketak egiten dituzten ikasleak izan ezean. Estatuan bisarekin sartuz gero, ezingo da inola ere luzatu egonaldia, eta, ordea, sartzeko bisa behar ez duten herrialde batetik etorriz gero, salbuespenezko kasu batzuetan baino ezin da luzatu.

Lurraldean baimenez egon eta kokatzeko helburuz, sartzeko dauden eren artean, zenbait urtetan urteko kuotak egon dira Europako Erkidegokoak ez diren atzerritar langileentzat. Kuota horien barruan, etxeko enplegua protagonista izan zen 1993tik 2002ra bitartean, gutxi gorabehera (López, Planet eta Ramírez, 2009; Unzurrunzaga, 2003; Presidentetza Ministerioa, 1998; Observatorio Valenciano de las Migraciones, 2009). Gaur egun, kuota edo kopuruei *"kontratazioen jatorriko kudeaketa kolektiboa"* deritze, eta sasoiko nekazaritza-kanpainetarako baino ez dira erabiltzen.

Cristina Blancok azaltzen duenez (2007), hasieratik 2000ra arte, kopuru horiek bide ematen zuten estatuan bizi ziren Europako Erkidegotik kanpoko atzerritar langileak kontratatzeko, era irregularrean egon arren. Herrialdean agiririk gabe zegoen biztanleria migratua erregularizatzeko metodo ezkututzat hartu zen urteko kopuru hori. Izan ere, gobernuek une jakin batzuetan erregularizazio sistematiko eta masiboak egiten zituzten, eta halakoak gertatzen zirenean, langile-kopuruak ez zuen funtzionatzen. Espainiako Estatuan, egoera irregularrean zeuden Europako Erkidegotik kanpoko atzerritarren erregularizazio masiborako sei prozesu izan dira: 1985., 1991., 1996., 2000., 2001. eta 2005. urteetan.

Urteko langile-kopuru edo kupoek (horrela ere esaten baitzaie) Europako Erkidegokoak ez diren atzerritar pertsonak langile merketzat baino ez dituzte hartzen, lan-merkatuaren oso beharrizan partzial batzuk betetzekoak, horrelako kalifikazioa eskatzen duten eta soldata txikiak dituzten sektoreetan, hala nola etxeko enpleguan eta nekazaritza-sektoreetan (Unzurrunzaga, 2003).

Bizileku-baimenei eta nazionalizatze-prozesuei dagokienez, atzerritarrei buruzko egungo araudiak Espainiako Estatuan era erregularrean bizitzea eta, ondoren, Espainiako herritartasun edo nazionalitatea eskuratzea ahalbidetzen die, Kode Zibilari helduz, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik datozen pertsonei, ustezko errotzearen bidez, hiru egoera nagusi aintzat harturik: familia-errotzea, lan-errotzea eta gizarte-errotzea[17].

16. Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko 25 bis artikuluaren arabera, 7 bisa-mota daude: iraganbide-bisa; egonaldi-bisa; bizileku-bisa; lan- eta bizileku-bisa; sasoiko lan- eta bizileku-bisa; ikasketa-bisa; eta ikerketa-bisa.

17. Halako informazioak Immigrazio eta Emigrazioko Idazkaritza Nagusian kontsulta daitezke.

Bizileku-baimena lortzeko prozesua gizarte-errotzearen bidezkoa da. Kasu horretan, beharrezkoa da Espainiako Estatuan gutxienez hiru urteko aldi bat jarraian egon izana. Gainera, familia loturak izan behar dituzte estatuan bizi diren beste atzerritar batzuekin edo espainiar batzuekin, edo gizarteratu izana egiaztatzen duen txosten bat aurkeztu, ohiko bizilekua duten autonomia-erkidegoak edo udalerriko Udalak emana. Ezinbestekoa da, gainera, urtebeteko iraupeneko lan-kontratu bat izatea (kontratuaren lansariak LGSaren baliokidea izan behar du; hots, 2017an, 707,70 euro 14 soldatatan, edo 825,65 euro hilean, 12 soldatatan) eta enplegatzaileak ordaintzeko adinako ahalmen ekonomikoa izatea eta Gizarte Segurantzarekin zorretan ez egotea. Lanbide bereko zenbait kontratu aurkeztea onartzen da, enplegatzaile batentzat baino gehiagorentzat aldi berean lan eginez, kontratu guztiek gutxienez urtebetekoak izan behar dutela, eta guztien artean 30 orduko asteko lanaldi bat batuz gutxienez.

Baldintzak betez gero, errotzearen ondoriozko erregularizazio-prozesua abiarazten da, eta atzerritarren bulegoak aldi baterako bizileku- eta lan-baimen bat esleitzen dio interesdunari; azken horrek atzerritarrei buruz indarrean den legediaren arabera berritu beharko du baimena.

Lehen bizileku- eta lan-baimena urtebetekoa da, lehen aldiz berritu eta gero, bi urteko baimen baterako eskubidea emango da. Bigarren aldiz berritzeak ere beste bi urteko baimen baterako eskubidea emango du, eta, hortik aurrera, iraupen luzeko baimena lortuko da; azken horren txartela bost urtean behin berritzen da.

Berritu ahal izateko, frogatu behar da jarraitu egiten duela baimena lortzea edo berritzea ahalbidetu zuen lan-harremanak, edo beste lan-kontratu bat aurkeztea, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuko 71. artikuluan ezarrita dauden kotizazioaldiak kontuan hartuta (Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzko eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren erregelamendua onartzeko errege-dekretua da, 2/2009 Lege Organikoak hura erreformatu ondoren).

Bizileku- eta lan-baimena lortzeko beste bide bat da nazioarteko babeseko arrazoiengatik aldi baterako bizileku-baimena eskuratzea. Kasu horretan, asilo edo babesa eskatzeko salbuespenezko zirkunstantziak egiaztatu eta gero, 3 eta 6 hilabete artean itxaroten da bizileku- eta lan-baimena, urtebetekoa, emateko edo ez emateko ebazpena.

Herrialdean bizilekua izateko erregularizazioa lanaren mende dagoen sistema batean, etorkinen artean langabezia igotzeak asko eragiten die erregularizatze-prozesuei, oro har. *"Gerora sortutako irregulartasuna"* aipatzen da (Aierdi eta Oleaga, 2011; Moya, 2006; Vono de Vilhena, Domingo eta Bedoya, 2008), lan- eta bizileku-txartela eskuratu ondoren –gehienetan, hiru urte egoera irregularrean emandakoan–, lan-baimena berritzeko ezinbesteko baldintzak betetzea lortzen ez den eta berriz ere egoera irregularrera erortzen den egoerak adierazteko. Esan nahi baita, lehenago bizileku- eta lan-baimena lortu arren, legearen aldetik iritsierako baldintza beretara itzultzen da berriz, baldintzak ez betetzeagatik txarteletako bat berritzeko ezintasuna dela eta.



### 3.1.3. Etxeko enpleguaren egoera eta atzerritarrei buruzko legedia gurutzatzearen ondorioetako batzuk

Atzerritarrei buruzko legediaren eta etxeko enpleguaren arteko gurutzaketa hori zertan datzan esplizitatzeko, nabarmendu behar da emakume asko zor handi batzuetan sartzen direla, bisaren izapidea, bidaia eta gainerako eskakizunak ordaintzeko, eta horrek lana kosta ahala kosta aurkitzeko behar larria sortzen duela. Jakina, presio horrek gora egiten du jatorriko herrialdean diru-bidalketak behar dituen norbait badago, bizirauteko edo osasun edo hezkuntzako gastuak, besteak beste, arintzeko. Bestalde, emakumeek ez badute bizileku- eta lan-baimena, ezkutuko lan-merkatuan baino ezin dute lan egin, eta isunen edo kanporaketaren bidez zigortuak izateko arriskuan jartzen dira.

Atzerritarrei buruzko lege-esparrua da mekanismorik nabariena, pertsonen oinarrizko eskubideak gauzatzerakoan desparekotasun sozialak sortzeko. Paradoxikoki, **barne-zerbitzuaren modalitatean bereziki, etxeko enplegua gordeleku bat da lan- eta bizileku-baimenik ez duten emakumeentzat, alokairua ordaintzeko dirurik gabe, ezta gela batena ere, eta kanporaketaren beldurrez baitaude.** Konstituzioaren arabera, egoitza bortxaezina denez, balizko lan-ikuskapen bat agindu judizialez baino ezingo liteke egin, eta, arrazoi hori dela eta, ia ez dago kontrolik. Horrela, barne-zerbitzuaren modalitatea itxuraz seguruagoa izan daiteke, saihesten baitu kalean ibiltzea eta, beharbada, poliziaren nortasun-kontrol bati aurre egin behar izatea.

Egoera konplexua da: bertakoek baliabide gutxi izaten dute zaintza-beharrizanak estaltzeko, eta badirudi emakume migratuak direla erakundeen aldetik legeztaturiko *“low cost”* erantzuna, atzerritarrei buruzko legediak ezartzen dituen mugak eta emakume horien ahultasun sozial eta legaleko egoera direla bide.

Azaldu denez, lan- eta bizileku-baimenak eta haiek –errotze-prozesuen bidez– berritzea lanaldi osoko eta, gutxienez, urtebeteko lan-kontratu batzuen mende daude, eta, hori dela eta, hainbat emakume beharturik aurkitzen dira, *“mehatxu instituzionalaren”* azpian, haien eskubideak errespetatzen ez dituzten lan-baldintza batzuk jasatera. Horrez gain, ez da erraza iraunkorrak diren eta LGSa (lanbide arteko gutxieneko soldata) betetzen duten lan-kontratu formalak topatzea; horregatik, baldintza horiek betetzen dituen lan bat aurkitzen badute eta beren lan-baimenak berritu nahi badituzte, lan-postu horri eustera estrukturalki beharturik aurkitzen dira.

Atzerritar langileen kasuan, familiako norbait berekin berrelkartzea oso zaila da, atzerritarrei buruzko legediak ekonomia eta lan aldetik ezartzen dituen baldintzengatik. Gainera, helmugako herrialdean familiakoak, haurrak bereziki, badauzkaten emakumeek ere zail dute lan-bateragarritasuna. Ez da ahaztu behar zaintza informaleko sareak, familiakoenak kasu honetan, funtsezko eginkizun bat betetzen jarraitzen duela; horregatik, sare hori ez dutenek zailtasunak izango dituzte eguneroko bizitzako une kritikoak gainditzeko.

Atzerritarrei buruzko araubideak eta etxeko enplegua lotuz, egile batzuek diote, atzerritarrei buruzko legediaren bidez eta etxeko langileen erregimen bereziaren bidez ahultasun-egoera legal eta sozialean dagoen populazio bat sortuz, mendekotasuna duten pertsonei laguntzeko zerbitzu pribatu bat ekonomikoki babesten ari dela, familiako esparru pribatuan utzirik, horrela, arazoa (Stasiulis eta Bakan, 1997; hemen aipatuta: Parella, 2000), *“eragozpenik”* sortu gabe ez genero maskulinoari, zaintzaren eta zaintza-lanaren erantzukizunen banaketan arduraz eta protagonista gisa bat egin dezan, ez Estatuari, herritarrek dituzten laguntza- eta zaintza-beharrizanetarako politika publiko egokiak aurrera eraman ditzan.

## 3.2. Etxeko enplegua zifretan

Lege-esparrua analizatu eta gero, sektorearen egoerari buruzko ikuspegi labur bat aurkeztuko dugu zifretan, estatistika-datuen analisirako metodologia kuantitatiboa baliatuz. Esan behar da, etxeko enplegua gizartean gutxietsirik eta ikusezin bihurturik egotean, oso gutxi direla ikerlan kuantitatiboak eta datu-base ofizialak.

Nazioarteari begira, LANEk[18] kalkulatzen duenez, munduan 67 milioi pertsona heldu daude etxeko langile ordainduak direnak, haietatik % 83 emakumeak direla. Haiez gain, 17 milioi adingabe aritzen dira, 5 eta 17 urte artekoak, etxeko enpleguko lanetan, haietatik % 67 neskak direla (OIT, 2013). Ondoren, 1. grafikoan, etxeko enpleguak munduan duen banaketa ageri da.

1. grafikoa. Etxeko enpleguaren banaketa munduan, 2015




Iturria: LANEren webgunea

Etxeko enpleguaren bereizgarri bat da oso feminizaturik egotea. LANEren arabera, hamahiru emakume landunetik batek sektore horretan lan egiten du.

Munduan, 8,4 milioi etxeko langile nazioarteko migratzaileak dira. Haietatik, 680.000 Latinoamerikan daude, eta 1,8 milioi, Europan (OIT, 2015). Sektore horretan, haurren lana ere[19] izaten da ohikoa.

Hurren, Espainiako Estatuan azken urteetan gertatutakoaren ikuspegi bat eskainiko dugu, eta gero Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta, azkenik, Vitoria-Gasteizko datuei helduko diegu.

18. http://www.ilo.org/global/docs/WCMS_211145/lang--es/index.htm

19. Ez da haurren lantzat hartzen adingabeek egiten duten etxeko lan guzti-guztia. Honako hauetan gertatzen da haurren lana: lan hori 5 eta 11 urte arteko neskek edo mutilek egiten dutenean; astean 14 orduz baino gehiagoz etxeko lanean diharduten 12 eta 14 urte arteko adingabeak direnean; eta etxeko lan "arriskutsua" egiten duten 15 eta 17 arteko neska-mutilen kasuetan (hor sartzen da, orobat, astean 43 ordu edo gehiagoko lanaldiak egitea). Etxeko enpleguan dauden 17,2 milioi adingabeetatik, 11,5 sar daitezke haurren lanaren esparruan (% 65 neskak dira). LANEren datuak (OIT, 2013).

Espainiako Estatuan, kalkulatzen denez (Díaz Gorfinkiel eta Fernández López, 2016), 2015ean 614.200 pertsonak lan egiten zuten sektorean (% 89,7 emakumeak). Krisia 2007an hasi zenetik, enplegua galdu da, baina beste sektore batzuetan baino gutxiago. Baina, ordea, lan-baldintzak okerragotu egin dira, eta espainiar herritartasuna dutenek atzerriko langileak neurri batean ordeztu dituzte. Espainiakoen kopurua % 6,9 gehitu da, eta atzerrikoena, aldiz, % 33,1 gutxitu da. Egun, sektoreak Estatu Espainoleko gehiagori ematen die lana, atzerrikoei baino. Hurren, 2. grafikoan, Estatu Espainoleko etxeko langileen kopurua ageri da, nazionalitatearen arabera.

2. grafikoa. Etxeko langileen kopurua Espainiako Estatuan, nazionalitatearen arabera, (2010-2015)




Iturria: Díaz Gorfinkiel eta Fernández López (2016).

Bestalde, begiratzen badiogu etxeko langileen erregimeneko Gizarte Segurantzako afiliazioen serieari, 3. grafikoan, ikusiko dugu estatuan, azken 16 urteetan, *SEEH* sistemako afiliazioak nabarmen igo direla. Hala, Gizarte Segurantzako 150.000 afiliazio pasatxo izatetik, 2016an ia 450.000 izatera igaro ziren.

3. grafikoa. *SEEH* sistemako Gizarte Segurantzako afiliazioen seriea. Espainiako Estatua, 2000-2016




Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuak oinarri hartuta. (Urteroko maiatzaren azken eguneko datuak).

Datu horiek testuinguruan kokatzeko, aipatu behar da 90eko hamarkadaren hasieran eta 2000koen bukaeran, atzerriko pertsonak era masiboan iritsi zirela Espainiako Estatura. Hori horrela, pertsona askok kontratu formal bat izateko aukerarik ez zutela deritzogu, nahiz eta sektore horretan lanean jardun, atzerritarrei buruzko legeak ezarritako mugengatik. Hori dela eta, pertsona horiek guztiak aipaturiko grafikotik kanpo geratzen dira.

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuak (BAI) 2012ra bitarte erabiltzen dituzten beste ikerlan batzuetan ikusten denez (León eta Ibañez, 2014), eta Gizarte Segurantzako afiliazioen datuekin erkaturik (Bianchi, 2015; Felgueroso, 2016), atzematen da BAI inkestaren eta Gizarte Segurantzako afiliazioen arteko aldea 1999az geroztik igotzen dela, zaintzaren sektore informala orduantxe hasi zela hazten aditzera emanik. Merezi du aipatzea joera aldatzen ari dela. Florentino Felguerosok (2016) egin dituen azken analisien arabera, 2012az geroztik txikitzera egin zuen bi datu-baseen arteko aldeak (BAI eta Gizarteko Segurantzako afiliazioak), sektoreko merkatu informalaren jaitsieraren erakusgarri.

Etxeko enpleguaren sektorean dagoen estaldura tasa aztertzen badugu[20] , **2015ean, 189.777 pertsona leudeke sektorean lanean, Gizarte Segurantzan alta eginak agertzen ez direnak; horren arabera, estaldura-tasa % 69,1 litzateke.** 2010-2015 aldiko handiena litzateke zifra hori, eta alde nabarmenak erakusten ditu 2012 baino lehenagoko datuekin erkaturik, sektoreko langileen erdiak ere ez baitzeuden afiliaturik orduan, 1. taulan ikus dezakegunez.

1. taula. Estaldura-tasaren bilakaera Etxeko Enpleguan (EE), 2010-2015

| Año | Ocupadas EH * | Afiliadas EH ** | Población no afiliada | Tasa de cobertura (%) |
|---|---|---|---|---|
| 2010 | 735.400 | 291.670 | 443.730 | 39,7 |
| 2011 | 686.900 | 294.916 | 391.984 | 42,9 |
| 2012 | 653.500 | 416.124 | 237.376 | 63,7 |
| 2013 | 669.800 | 422.915 | 246.885 | 63,1 |
| 2014 | 657.000 | 428.905 | 228.095 | 65,3 |
| 2015 | 614.200 | 424.423 | 189.777 | 69,1 |

Iturria: Díaz Gorfinkiel eta Fernández López (2016).

** Díaz Gorfinkielek eta Fernández Lópezek egina, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) datuetan oinarri hartuta; urteko lau hiruhilekoetako biztanleria landunaren batezbestekoa; 2015eko datua urteko II. hiruhilekoari dagokio. Estatistikako Institutu Nazionala (INE).*

***Gizarte Segurantza, Etxeko Langileen Gizarte Segurantzako Erregimen Bereziko eta SEEH sistemako afiliatuak hilaren azken egunean; azken datua 2015eko abuztuari dagokio. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.*

20. Estaldura-tasa ondoriozta daiteke biztanleria landunaren datuak eta biztanleria afiliatuarenak erkatuz; izan ere, azken horiek erregistro ofizialetan inskribaturiko pertsonak jasotzen dituzte, eta biztanleria landunaren datuak, ordea, jarduera egiten dutela esan egin duten pertsonenak dira. Estaldura-tasak, beraz, egoera erregular eta babestuan dagoen biztanleria-proportzioa adierazten du.

3. grafikoa berriz analizatzean, bi gehikuntza adierazgarri nabarmentzen dira; 2005-2006koa, batetik, eta 2013koa, bestetik. Lehen gehikuntza interpretatzeko, kontuan izan behar da sektore horretan lan egiten duten pertsonen zati handi bat etorkinak direla. Gizarte Segurantzako afiliazioei buruzko datuak igoera nabarmena erakusten dute 2006an, eta baliteke horrek zerikusia izatea Europako Erkidegotik kanpoko pertsonen artean Espainiako Estatuan 2005ean egin zen erregularizazio masiboarekin; horren ondorioz, bizileku- eta lan-baimenak emango zitzaizkien estatuan baimen egokirik gabe lanean ari ziren hainbat pertsonari.

2007an, behera egin zuen Gizarte Segurantzako afiliazio-kopuruak etxeko enpleguaren sektorean;, baina 2008tik aurrera igoera txiki baina jarraitu bat izan zuen 2012ra arte, eta urte hartan, hain zuzen, afiliazioen berebiziko gehikuntza bat gertatu zen. 2012az geroztik gertatu zen igoera nabarmen horren arrazoia da Gizarte Segurantzako Sistema Eguneratu, Egokitu eta Modernizatzeko abuztuaren 1eko 27/2011 Legea indarrean sartu zela, etxeko enplegua Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sartu zuen legea, hain zuzen, Etxeko Langileen Sistema Berezia *(SEEH)* sortuta (familia-etxeko zerbitzuaren lan-harreman berezia arautzeko 1620/2011 Errege Dekretuaren bidez eman zen).

Analisian aurrera eginez, 4. grafikoa ikusten dugu **emakumeak direla etxeko enpleguko protagonista ukaezinak.** Gainera, nazionalitatearen araberako datuek diotenez, 2012ra arte, atzerritar emakumeek sektorearen % 50 hartzen zuten, baina egoera hori aldatu egin da urteek aurrera egin ahala. Hain zuzen, 2012tik 2016ra bitartean autoktonoek eratzen zuten talderik handiena, sektorean duten lekua areagotuta.

4. grafikoa. *SEEH* sistemako Gizarte Segurantzako afiliazioen seriea, sexuaren eta nazionalitatearen arabera. Espainiako Estatua, 2008-2016




Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuak oinarri hartuta. (Urteroko maiatzaren azken eguneko datuak)

Datu horiek analizatzeko, honako alderdi hauek aintzat hartu behar dira:

1. Nazionalitateak hartzen dira kontuan, eta daitekeena da denborarekin atzerriko jatorria dutenen zati batek nazionalitate bikoitza eskuratu izana eta, hortaz, estatistiketan espainiar herritartzat hartzea.
2. Atzerriko nazionalitatea duten pertsonak neurri handiagoan ageri dira estatistiketan, bertakoak baino; izan ere, atzerritarrek kontratu formalen beharra dute bizileku- eta lan-baimenak berritzeko eta bertakoek, ordea, presio hori ez dutela, ezkutuko merkatuan gelditu nahiago dute, zenbaitetan.

Horiek horrela, **2012az geroztik Gizarte Segurantzako berebiziko gehikuntza gertatu zen, etxeko empleguari buruzko legedia aldatzean, etxeko enpleguko lan-harremanak lan-merkatu formalera eramatea sustatu baitzen.** Aipatu beharreko beste alderdi bat da María Rodríguezek (2013) azpimarraturikoa; hain zuzen, berak dio daitekeena dela gehikuntza horrek lotura izatea, orobat, biztanleria ez-aktibo gisa kanpoan zeuden emakume asko lan-merkatura itzultzearekin, orain, lan-munduratzeko, sektore hori aukeraturik, beharbada haren ezaugarriak direla eta[21].

5. grafikoa. *SEEH* sistemako Gizarte Segurantzako afiliazioen seriea, nazionalitatearen arabera (atzerrikoa/Espainiakoa). Espainiako Estatua, 2008-2016




Fuente: Elaboración propia a partir de los datos del Ministerio de Empleo y Seguridad Social. (Datos a último día de mayo de cada año)

Hortaz, esan daiteke etxeko enpleguaren sektoreak ez duela krisia nabaritu; aitzitik erabat, era jarraituan hazi da, polikiago 2012ra arte, eta berebiziko neurrian etxeko enpleguari buruzko errege-dekretua eta *SEEH* sistema eratu zuen legea indarrean sartzean

**EAEri dagokionez, *SEEH* sisteman afiliazio gehien duten sei autonomia-erkidegoetako bat da.** Hala, 2010ean, Gizarte Segurantzako 7 afiliazio zituen mila biztanleko, eta 2016an, ordea, bazituen 14 afiliazio. 2. taulan, etxeko langileen erregimeneko Gizarte Segurantzako afiliazioen kopurua ageri da, 1000 biztanleko, informazioa indize handienetik txikienera antolaturik.

21. Ezaugarri nagusietako batzuk hauek izango dira: titulurik behar ez izatea; sektorearen feminizazioa, emakumea izate hutsagatik zaintzeko eta garbitzeko gaitasun handiagoren jabe izan behar delako ustean; ordutegien malgutasuna; halako lanen eskari soziala; lana familiarteko eta lagunarteko sare eta kontaktuen bidez lortzea; baldintzen prekarietatea; alderdi enplegatzaileari eskatzen zaizkion konpromiso urriak, etab.

2. taula. *SEEH* sistemako Gizarte Segurantzako afiliazioen seriea, 1000 biztanleko. EAE, 2016

| | Afiliazioen rankinga,1000 biztanleko | 1.a | 2.a | 3.a | 4.a | 5.a | 6.a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2016 | | MELILLA | MADRIL | CEUTA | ***EAE*** | NAFARROA | BALEAR U. |
| | 1000 bizt.ko | 18 | 18 | 14 | ***14*** | 12 | 11 |
| 2014 | | MELILLA | MADRIL | CEUTA | ***EAE*** | NAFARROA | BALEAR U. |
| | 1000 bizt.ko | 18 | 17 | 14 | ***13*** | 12 | 11 |
| 2012 | | MELILLA | MADRIL | NAFARROA | BALEAR U. | ***EAE*** | GALIZIA |
| | 1000 bizt.ko | 16 | 13 | 10 | 9 | ***9*** | 8 |
| 2010 | | MELILLA | MADRIL | CEUTA | BALEAR U. | KATALUNIA | ***EAE*** |
| | 1000 bizt.ko | 18 | 11 | 9 | 9 | 8 | ***7*** |

Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuak (urteroko maiatzaren azken eguneko datuak) eta *INE*ren errolda jarraituko datuak oinarri hartuta.

6. grafikoan, agerian geratzen da azken hamar urteetan, Espainiako Estatuan oro har gertatu den bezala, afiliazioak etengabe gehitu direla, 2012 eta 2013 artean areagoturik, etxeko enplegua arautzeko 1620/2011 Errege Dekretua eta *SEEH* eratzeko 27/2011 Legea indarrean sartzean

Grafikoak oro har hartuz, ikusten da, halaber, 2012az geroztik afiliazioen igoera are nabarmenagoa dela EAEn, estatu osoko datuetan baino.

6. grafikoa. *SEEH* sistemako Gizarte Segurantzako afiliazioen seriea. EAE, 2008-2016



7. grafikoa. *SEEH* sistemako Gizarte Segurantzako afiliazioen seriea, nazionalitatearen eta sexuaren arabera. EAE, 2008-2016




Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuak oinarri hartuta. (Urteroko maiatzaren azken eguneko datuak).

7. grafikoan, datuak sexuaren eta nazionalitatearen arabera banakaturik (atzerriko eta Espainiako nazionalitateak), ikusten dugu –Espainiako Estatuan bezala– EAEn gehiago direla Espainiako nazionalitatea dutenak, atzerriko nazionalitatekoak baino, etxeko enplegu formalaren sektorearen barruan. Hain zuzen, 2010etik 2012ra bitartean baino ez da egon % 50en azpitik Espainiako nazionalitatea duten emakumeen ehunekoa; Espainiako testuinguruan, aldiz, azken bi urteetan soilik izan da ehuneko hori % 50etik gorakoa.

Horrez gain, ikusten da emakumeak direla sektore honetako protagonista ukaezinak. Emakundek "Zifrak 2016: emakumeak eta gizonak Euskadin[22]" bere azterlanean argitaraturiko datuak kontuan harturik, eta Gizarte Segurantzako afiliazioei buruzko datuen arabera, 2015eko abenduan, guztira, 29.543 pertsona zeuden SEEH sisteman afiliaturik EAEn, eta haietatik 28.112 emakumeak ziren, alegia, emakumeek jarduera-adar horretako enplegu guztiaren % 95,2 osatzen dute.

Espainiako herritartasuna dutenek eta atzerritarrek sektorean dituzten joerak erkatuz gero, desberdinak direla atzemango dugu. Atzerritarrek era jarraituan egiten dute gora 2013ra arte, eta urte horretatik aurrera gutxi-asko egonkor mantentzen da afiliazio-kopurua. Espainiako herritartasuna dutenen kasuan, ordea, jaitsiera txiki baina etengabea ageri da 2008tik 2012ra bitartean, eta berebiziko igoera 2013az geroztik.



22. http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjuntos/zifrak_2016.pdf

8. grafikoa. *SEEH* sistemako Gizarte Segurantzako afiliazioen seriea, nazionalitatearen arabera (atzerrikoa/Espainiakoa). EAE, 2008-2016.




Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuak oinarri hartuta. (Urteroko maiatzaren azken eguneko datuak).

Ikuspegi-Immigrazioaren Behatokiak argitaraturiko “Lan Merkatua eta Emakume Etorkina” 66. Begiradaren arabera (2017ko abuztua), EAEko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestaren (EABI) datuak erabilita, etxeko enpleguak rol nagusi bat jokatzen du emakume migratuen lan-munduratzean.

Izan ere, jarduera-adar garrantzitsuenetako bat da atzerritar biztanleria guztiarentzat, 2010ean % 21,3k eta 2014an % 29,3k sektore horretan lan egiten baitzuen. Xeheago begiratu, eta datu horiek sexuaren arabera banakatuz gero, ikusiko dugu 2010ean emakumezko biztanleriaren % 38,8k etxeko enpleguaren sektorean lan egiten zuela, eta 2014an ehuneko hori % 50,2ra igo zela. Hartara, **atzerriko emakumezko biztanleriaren erdiak etxeko langile ziharduen 2014an; 2015ean, ehuneko hori % 56,74ra igo zen, eta nazionalitatea eskuratutako emakumeen % 37,07ra**. Datu horrek egiaztatzen du etxeko enplegua, beraren ezaugarriak direla bide, lan-nitxo bat dela bazterketa-egoeran dauden eta beharrizan ekonomiko handiak dituzten atzerritar emakumeentzat.

Hala ere, Emakundek “Zifrak 2016: emakumeak eta gizonak Euskadin” bere azterlanean plazaraturiko datuen arabera, etxeko enplegua **atzerritar emakumeentzako lan-nitxo bat ez ezik, lehen jarduera ere bada, emakumeentzat sorturiko kontratu-kopuruaren aldetik,** 3. taulan azaltzen denez.

3. taula. 2015ean kontratu-kopuru handienak metatutako jarduera-adarrak. EAE

| EMAKUMEEN KONTRATU GEHIEN EKARTZEN DITUZTEN 10 JARDUERA | |
|---|---|
| 97 | Etxeetako jarduerak, etxeko langileen enplegatzaile gisa |
| 86 | Osasun-jarduerak |
| 82 | Bulegoko administrazio-jarduerak eta enpresetako jardueren osagarriak diren beste batzuk |
| 55 | Ostatu zerbitzuak |
| 88 | Gizarte-zerbitzuen jarduerak, ostatu eman gabe |
| 85 | Hezkuntza |
| 81 | Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintza-zerbitzuak |
| 87 | Laguntza egoitza-establezimenduetan |
| 47 | Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunena izan ezik |
| 56 | Janari- eta edari-zerbitzuak |

Iturria: Lanbide. Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lan-merkatuaren balantze-txostena.

**Sektorean lan egiten duten atzerritar emakumeei dagokienez, merkatu formalean, gehienak latinoamerikarrak dira.** Haiek emakume nazionalizatuen % 90 dira, eta nazionalizatu gabekoen % 71 pasatxo. Lehen multzoaren barruan, kolonbiarrek, ekuadortarrek eta perutarrek osatzen dute talderik handiena. Atzerritarren aldetik, jatorriko leku nagusiak Erdialdeko Amerika eta Paraguai dira. Azpimarratu behar da, esaterako, Euskadin enplegua duten hamar emakume paraguaitarretik ia bederatzik (% 88,35) sektore horretan lan egiten dutela.

Asko dira, halaber, Errumaniako eta Ekialdeko Europako beste herrialde batzuetako emakumeak (guztira, % 13,8). Azkenik, magrebtarrak atzerriko emakumeen % 3,88 dira ozta, eta nazionalizatuen % 1,56. Ehuneko horiek gorabehera, **etxeko eta zaintzako lanen sektoreak gero eta pisu handiagoa bereganatu du magrebtar eta senegaldar emakumeen artean,** eta haien lan-nitxo nagusia bilakatu da. Gaur egun, enplegua duten hamar emakume magrebtarretik bost eta hamar senegaldarretik lau etxeko enpleguan aritzen dira.



4. taula. 16 urtetik 65 urtera bitarteko biztanleria landuna, atzerritarra eta nazionalizatua, motaren eta eremu geografikoaren arabera. EAE, 2014.

| | | EREMU GEOGRAFIKOA (TALDE XEHAKATUAK) | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | Mende-baldeko EB | Errumania eta Ekialde-ko EBko beste batzuk | Magreb | Argentina, Txile, Uruguai | Kolonbia, Ekuador, Peru | Bolivia | Paraguay | Brasil, Venezuela, Dominikar Errep. | Latino-amerikako gainerakoa | Txina | Senegal | Afrikako gainerakoa | Munduko gainerakoa |
| ATZERRITARRA | TOTAL | 110343 | 12188 | 15455 | 18590 | 2884 | 9618 | 6906 | 4599 | 6304 | 7621 | 3856 | 3668 | 7579 | 11074 |
| | Emakumezkoa | 58028 | 5368 | 8958 | 7326 | 1432 | 5351 | 4660 | 3521 | 4213 | 6086 | 2048 | 626 | 2880 | 5559 |
| | Emakumezko landuna | 28025 | 2896 | 4304 | 1127 | 700 | 2604 | 3091 | 2955 | 1898 | 4068 | 1649 | 103 | 178 | 2454 |
| | Gizonezko landuna | 23407 | 4542 | 3655 | 2695 | 1169 | 2412 | 839 | 662 | 1040 | 544 | 1574 | 983 | 930 | 2361 |
| | Emakumezko landuna Etxeko z. | 15903 | 479 | 2196 | 617 | 241 | 1342 | 2321 | 2610 | 869 | 3924 | 11 | 46 | 55 | 1191 |
| NAZIONALIZATUA | TOTAL | 44674 | 2671 | 343 | 4156 | 5074 | 17184 | 3376 | 537 | 5919 | 3311 | 152 | 234 | 632 | 1088 |
| | Emakumezkoa | 26564 | 1559 | 114 | 1322 | 2916 | 11267 | 2090 | 304 | 4124 | 1744 | 61 | 70 | 293 | 701 |
| | Emakumezko landuna | 14203 | 904 | 100 | 516 | 1414 | 6198 | 1137 | 139 | 2221 | 1039 | 39 | 34 | 125 | 337 |
| | Gizonezko landuna | 9569 | 647 | 215 | 1040 | 1534 | 2751 | 721 | 71 | 1075 | 1069 | 65 | 109 | 84 | 189 |
| | Emakumezko landuna Etxeko z. | 5266 | 267 | 0 | 82 | 247 | 3010 | 591 | 100 | 581 | 225 | 0 | 0 | 10 | 152 |

Taula geuk egina da, Lanbidek emandako Lan Merkatuaren Zentsuko datuetan oinarri hartuta.

EAEko lurralde historikoei dagokienez, 5. taula gehitu dugu, 2015. urtean SEEH sisteman afiliaturikoak ikusi ahal izateko, sexuaren, nazionalitatearen eta lurralde historikoaren arabera banakaturik. **Araban, guztira, 3.152 emakume daude *SEEH* sisteman afiliaturik, eta haietatik 1.253 atzerritarrak dira**. Horren inguruan gogorarazi behar da, Espainiako Estatuan, estaldura-tasa % 69,1ekoa zela 2015. urtean; hartara, estrapolazio bat egiten badugu, EAEko etxeko emakume langileen kopuru erreala 36.800 emakume litzateke, eta Araban, 4.126 inguru.

5. taula. *SEEH* sisteman afiliatutakoak, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. EAE, 2015

| | GUZTIRA | | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | (Abs.) | (%v.) | (Abs.) | (%v.) | (%h.) | (Abs.) | (%v.) | (%h.) |
| **GUZTIRA** | **29.543** | | **28.112** | | **95,2** | **1.431** | | **4,8** |
| Araba | 3.326 | 1.132 | 3.152 | 11,2 | 94,8 | 174 | 12,2 | 5,2 |
| Bizkaia | 16.280 | 55,1 | 15.501 | 55,1 | 95,2 | 779 | 54,4 | 4,8 |
| Gipuzkoa | 9.937 | 33,6 | 9.459 | 33,7 | 95,2 | 478 | 33,4 | 4,8 |
| **Atzerritarrak GUZTIRA** | **12.105** | **40,9** | **11.126** | **39,6** | | **979** | **68,4** | |
| Araba | 1.384 | 11,4 | 1.253 | 11,3 | 90,5 | 131 | 13,4 | 9,5 |
| Bizkaia | 6.694 | 55,3 | 6.164 | 55,4 | 92,1 | 530 | 54,1 | 7,9 |
| Gipuzkoa | 4.027 | 33,3 | 3.709 | 33,3 | 92,1 | 318 | 32,5 | 7,9 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa

**Vitoria-Gasteizko testuinguruan,** etxeko langileen errealitatera maila kuantitatiboan hurbiltze aldera, 9. grafikoan sektore horren joera jaso dugu, *SEEH* sistemako afiliazioei buruzko datuen arabera, eta egiaztatu dugu egoera estatuan edo EAE osoan dagoen egoeraren oso antzekoa dela. Zehazki, 2012az geroztik, sektore horretako afiliazioak nabarmen gehitu zirela geratzen da agerian.

9. grafikoa. *SEEH* sistemako Gizarte Segurantzako afiliazioen seriea. Vitoria-Gasteiz, 2008-2016




Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuak oinarri hartuta. (Urteroko maiatzaren azken eguneko datuak).

Estatistika ofizialen analisitik, sektoreko lan-baldintzen inguruko zenbait ondorio ere atera daitezke.

- Kontratu-motari dagokionez, 2015ean etxeko enpleguaren sektorean lan egiten zuten pertsona migratuen % 52,61ek kontratu mugagabeak zituzten, autoktonoen artean ehuneko hori, aldiz, % 56 zela.
- Gainera, sektore horretan lana zuten atzerritarren % 26 “kontraturik gabeko soldatapeko” gisa ageri dira. Ehuneko hori, baina, txikiagoa da etxeko enpleguko autoktono landunen artean, % 20 pasatxo da eta.

6. taula. Etxeko zerbitzuko biztanleria landunari dagokion lan-merkatuaren zentsua, sexuaren, nazionalitatearen eta kontratu-motaren arabera. EAE, 2014

| | | |
|---|---|---|
| BERTAKOAK | Soldatarik gabe | 693 |
| | Soldatapeko mugagabea | 8003 |
| | Soldatapeko ez-mugagabea | 1708 |
| | Kontraturik gabeko soldatapekoa | 3695 |
| | Beste egoera bat | 0 |
| | **Guztira** | **14099** |
| ATZERRITA-RRAK | Soldatarik gabe | 195 |
| | Soldatapeko mugagabea | 7436 |
| | Soldatapeko ez-mugagabea | 2389 |
| | Kontraturik gabeko soldatapekoa | 4114 |
| | Beste egoera bat | 0 |
| | **Guztira** | **14134** |

Geuk egina, 2014ko etxeko zerbitzuko biztanleria landunari buruzko Lan Merkatuaren Zentsuaren datuetan oinarri hartuta, sexuaren, nazionalitatearen eta kontratu-motaren arabera, Lanbidek emanda.

Lan Merkatuaren Zentsuaren datuetan jasotzen da, halaber, sektorean enplegaturiko atzerritarren % 95ek lan-baimena duela. Iturri beraren arabera, gizonen artean batek ere ez luke lan egingo lan-baimenik gabe.



7. taula. Etxeko zerbitzuko biztanleria landunari dagokion lan-merkatuaren zentsua, sexuaren, nazionalitatearen eta kontratu-motaren arabera. EAE, 2014 eta 2015

| | | | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|
| Langile atzerritarrak | Gizonak | Baimendunak | 457 | 372 |
| | | Baimenik gabe | 0 | 0 |
| | | Guztira | 457 | 372 |
| | Emaku-meak | Baimendunak | 10934 | 12424 |
| | | Baimenik gabe | 833 | 1339 |
| | | Guztira | 11767 | 13763 |
| | Guztira | Baimendunak | 11392 | 12796 |
| | | Baimenik gabe | 833 | 1339 |
| | | Guztira | 12224 | 14134 |

Geuk egina, etxeko zerbitzuko biztanleria landunari buruzko Lan Merkatuaren Zentsuaren datuetan oinarri hartuta, sexuaren, nazionalitatearen eta kontratu-motaren arabera, Lanbidek emanda.

Bestalde, ez da atzematen alde nabarmenik, jatorriaren arabera, Gizarte Segurantzan alta duten etxeko langileen ehunekoan. Hain zuzen, 2015ean, kasu batean zein bestean ehuneko hori % 83 inguru da, nahiz eta apur bat txikiagoa den atzerriko pertsonen artean (% 83,73 bertakoen artean, eta atzerritarren artean, aldiz, % 83).

8. taula. Etxeko zerbitzuko biztanleria landuna, nazionalitatearen, sexuaren eta Gizarte Segurantzako kotizazioaren arabera. EAE, 2015

| | | | 2015. urtea |
|---|---|---|---|
| Bertakoak | Gizonak | Bai | 1039 |
| | | Ez | 0 |
| | | Soldatarik gabe | 0 |
| | | Guztira | 1039 |
| | Emakumeak | Bai | 10774 |
| | | Ez | 1593 |
| | | Soldatarik gabe | 693 |
| | | Guztira | 13060 |
| | Guztira | Bai | 11813 |
| | | Ez | 1593 |
| | | Soldatarik gabe | 693 |
| | | Guztira | 14099 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Atzerritarrak | Gizonak | Bai | 372 |
| | | Ez | 0 |
| | | Soldatarik gabe | 0 |
| | | Guztira | 372 |
| | Emakumeak | Bai | 11361 |
| | | Ez | 2207 |
| | | Soldatarik gabe | 195 |
| | | Guztira | 13763 |
| | Guztira | Bai | 11733 |
| | | Ez | 2207 |
| | | Soldatarik gabe | 195 |
| | | Guztira | 14134 |

Geuk egina, etxeko zerbitzuko biztanleria landunari buruzko Lan Merkatuaren Zentsuaren datuetan oinarri hartuta, nazionalitatearen, sexuaren, eta kontratu-motaren arabera, Lanbidek emanda.

Azkenik, Emakunderen *"La discriminación múltiple de las mujeres inmigrantes trabajadoras en servicios domésticos y de cuidado en la Comunidad Autónoma de Euskadi"* (2015; «Euskadin etxeko eta zaintzako lanetan diharduten emakume etorkinen bereizkeria anizkoitza») ikerlanean, **sektore honetan enplegaturiko emakume etorkin gehienen elementu komun batzuk** ezartzen dira:

- Oro har, amak dira, eta daitekeena da ezkongabe egotea, ezkonduak izan eta senarra lanik gabe egotea, edo tratu txarren biktima izatea. Azken urteetan, gero eta gazteagoak izaten dira, eta lan bat lortu ezinean uzten dute beren herria.

- Etxe-zerbitzuan lan egiten duten emakume migratuen erdiek zor bat hartu zuten beren gain migrazioari ekiteko, eta % 55ek dirua bidaltzen zuten, 2010ean, jatorriko herrialdeetara.

- Estatuan bizitzen denbora gutxi daramatenek bakarrik ekin diote migrazio-bidaiari, eta haurrak emakume baten zaintzapean utzi dute. Ia % 56k diru-bidalketak egiten dituzte jatorriko lekuetara, immigranteen batezbestekoaren gainetik: % 30.

- Etxeko langile atzerritar gehienek bigarren mailako ikasketak dituzte (% 45); lehen mailako ikasketak (% 28); eta unibertsitateko ikasketak, ia % 12k, egun ikasketok egiten ari direnak kontuan hartuz gero. Beren herrialdeetan, negozio bat eramaten zuten, soldatapekoak ziren, edo inoiz lan bat izan gabeak ziren.

- Haien egoera ekonomikoa Euskadin bizi diren emakume migratuen egoera orokorra baino okerragoa da: % 20k arazoak ditu oinarrizko beharrizanak asetzeko (elikadura, arropa, oinetakoak, etxebizitza), eta % 36k zailtasunak ditu ustekabeko gastuei aurre egiteko.

- Adinari dagokionez, oso kolektibo heterogeneoa da, baina estatistikek diote etxeko enpleguaren sektoreko langileen batez besteko adina 45,34 urte dela.

# 4

# METODOLOGIA, TEKNIKAK ETA LANDA-LANA



# 4. METODOLOGIA, TEKNIKAK ETA LANDA-LANA

## 4.1. Ikerlanaren helburuak

Ikerlan honen helburu orokorra da gaur egun Vitoria-Gasteizko lurraldean lan egiten duten eta bizi diren etxeko langileen egoerara hurbiltzea. Xede hori betetze aldera, helburu zehatzak ezarri genituen, informazioa era sistematikoan antolatzea ahalbidetzeko:

- Vitoria-Gasteizko etxeko langileen lan-baldintzei buruzko informazioa biltzea.
- Etxeko eta zaintzako lanak etxeko langileen osasun fisiko eta mentalean izaten dituen ondorioetan sakontzea.
- Langileek etxeko enpleguaren inguruan dituzten ikuspuntu eta aldarrikapenei buruz ikertzea.

## 4.2. Epistemologia eta ikertzeko metodologia eta metodoak/teknikak

Ikerlan baten garapenaren osagaiak ulertzeko, komeni da argi bereiztea *epistemologia, metodologia eta metodoa/teknika*.

Sandra Hardingen azalpena baliatuz (1987), *metodoak eta teknikak* informazioa biltzeko erabiltzen ditugun tresnak dira, eta *"zein galdera egiten diren eta zein ezagutza-mota bilatzen diren"* kontuan hartuz hautatzen dira (Graf Blazquez, 2008, 108). Bi alderdiok ikerketa egiten dutenen interes sozialak islatzen dituzte.

**Ikerketa feministen ildotik datu-bilketarako bestelako teknika batzuk erabil daitezela proposatzen da, begirada zabaltzeko.** Hau da, bestela galdetuz, bestelako erantzunak lortzeko, sakonagoak eta gordinagoak. Dena dela, ikerketa feminista batek metodo tradizionalak ere erabil ditzake; garrantzitsuena da arreta jartzea eta tresna bakoitzaren isuriak eta mugak kontuan izatea (Graf Blazquez, 2008).

*Epistemologiak* ezagutzaren teoriei dagozkie, hots, ezagutzaren sorleku diren gogoetei. Ikerketa zientifikoaren prozesuan metodo eta metodologia jakin batzuk erabiltzea justifikatzeko eta legitimatzeko argudioak jasotzen dituzte.

*Metodologiek* jarraibideak ematen dituzte metodoak erabiltzeko moduaren inguruan nahiz bildutako datuak analizatzeko ikuspegiaren inguruan. Aditzera ematen dute zer prozedurari jarraitu behar zaion, zer alderdi nabarmendu behar diren, eta zer harreman dagoen teoriaren eta metodoen artean. **Ikertzaile feministek salatu dute teoria tradizionaletako askok ez zutela emakumeen esperientziaren berri ematen, eta bizitza sozialaren xehetasun garrantzitsuak ilunpean uzten zituztela.** Hori dela eta, jarraibide berri batzuk planteatzen dituzte datuak analizatzeko, eta teoria berriak emakumeen egin-moduak eta beharrizanak islatzeko.

Horiek horrela, egin dugun ikerlanaren hiru alderdi horiek azalduko ditugu.

### 4.2.1. Epistemología

Epistemologiari dagokionez, ikerlana planteatzen hasi ginenean, zenbait galderari erantzun behar izan genien: nondik ezagutzen dugu?, zertarako?, zergatik?

Feminismoak, aldaketa sozialerako mugimendu politiko bat den aldetik, salatu egiten du zientziaren bidezko ezagutza-sorkuntza eta ikerketak estu loturik daudela boterearekin. Zientzia alderdi sozial bat da, eta boterearen logikek bideraturik dago. Zer ikertu, noiz eta nola historian zehar boterean daudenek erabakitako alderdi batzuk dira. Ildo horretan, historian zehar izan diren ikerketek *estatus quoa* legitimatzeko eta sendotzeko balio izan dute, eta horregatik ulertzen da zergatik geratu den zaintzako lana eta etxeko enplegua ikusezintasunean zokoraturik, duela hamarkada gutxi batzuk arte.

Epistemologia feministatik, hori izanik abiapuntu dugun oinarria, teorialari batzuek funtsezkoa deritzote ikerlanak finantzatzen dituzten erakundeak nahiz egiten dituzten pertsonak esplizitatzeari, zeren, nork finantzatzen duen eta nork egiten duen, emaitza batzuk edo besteak lortuko baitira. Oso zaila da ikerlan bat guztiz objektiboa izan dadin, ikerlana planteatzen eta proposatzen dituztenen ikuspuntua, sinesmenak eta aurreiritziak islatu egingo baitira ikerlanaren garapenean zein emaitzetan.

Objektibotasunik ez dela aitortuta, epistemologia feministatik zenbait pentsamendu-ildo sortu dira ikerketa-prozesu gardenago batzuk gauzatzeko. Ildo horiek hiru taldetan biltzen dira (Harding, 1996; Graf Blazquez, 2008):

1. Enpirismo feminista.
2. Ikuspuntuaren teoria.
3. Postmodernismo feminista.

Kasu honetan, gure aburuz, **ikuspuntuaren teoria da ikerlanaren helburuetara ondoen egokitzen den ikuspegia, “standpoint theory” ingelesezkoaren bidez ezagunagoa** (Fox Keller, 1991; Harding, 1987, 1996). Ikuspegi horretan, onartzen da ezagutza ez dela inoiz balio eta aurreiritzirik gabea, une oro kontuan hartuz ikerlana egiten parte hartzen dutenek (planteamendua, datu-bilketa, analisia eta idazketa) esperientzia sozialek baldintzatutako pertsonak direla. Gainera, ikerlanaren xedea, nagusiki, egoera bat edo batzuk dira, non emakumeen ikuspuntuak begirada berezi bat ematen baitu, *“bazterretatiko”* ikuspuntu bat, gizarte-egoera ahuleko talde bat denez, egitura sozialaren bazterreko edo periferiako jarrera batzuetan oinarritzen da eta.

Teoria horri egiten zaion kritika oinarritzen da pertsona sozialki zapalduen ikuspuntua erromantizatzeko eta jarrera esentzialista batzuetan erortzeko arriskuan. Generoko gaietan bereziki, ezin batera daiteke emakumeen ikuspuntua, zapalkuntza ikusteko hainbat era daudelako, bakoitzaren bizi-esperientzien arabera, jatorriaren arabera, hazpegi, sexu-orientazio, etnia, adin zein aniztasun funtzionalaren arabera, besteak beste (Graf Blazquez, 2008).

Bigarren galderari dagokionez (*zertarako* eta *zergatik egiten da ikerlana?*), garrantzitsua da etxeko langileen egoera eztabaida sozialaren erdigunean jartzea, begirada feminista batetik eta ekonomia sozial eta solidariotik.

Ikerlana aurrera eraman duen lantaldea Harilka Elkartea (egun, Errotik kooperatiba) kolektibokoa da, zein eraldaketa sozialerako elkarte feminista bat baita, askotariko lanbide-esparru batzuetatik datozen eta kolektibo feministetako kideak zein mugimendu sozialetako militanteak diren hainbat emakumek osatutakoa, ikerkuntza begirada feminista batetik lantzeko helburua duena, besteak beste.

## 4.2.2. Ikertzeko metodologia eta metodoak/teknikak

Ikerlan honen helburu nagusi eta zehatzei erantzuteko, metodologia eta teknika kualitatiboak erabili ditugu. Hala ere, gure aburuz, elkarrizketetako kontakizun eta diskurtsoen testuingurua ulertzeko eta azalpenezko esparru bat emateko, aintzat hartu behar ditugu etxeko enpleguaren egoeraren nondik norakoak. Hori dela eta, metodologia eta teknika kuantitatiboak ere erabiltzen dira.

### ------ METODOLOGIA ETA TEKNIKA KUANTIATIBOAK ------

Kasu honetan, ez da ikertzeko metodologia eta teknika nagusia, ikerlana testuinguruan kokatzeko baino ez da erabiltzen, argitaratu diren ikerlan eta estatistiketatik ateratako bigarren mailako datuak ustiatuz.

Errealitaterako hurbilketa-mota honen emaitza deskribapenezko ezagutza bat da, etxeko enpleguaren ikuspegi orokor bat izaten laguntzen duena, nazioartean, estatuan zein tokian bertan.

Arazoa da gai honi buruzko ikerlanak eta estatistikak urriak direla eta muga asko dituztela, enplegu-mota sozialki baztertu eta gutxietsi bat izanik.

Etxeko enpleguaren sektorean biztanleriak duen parte-hartzera estatistikaren aldetik hurbilketa bat egiteko, bi iturri nagusi daude: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI), eta Gizarte Segurantzako afiliazioei buruzko datu ofizialak, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioarenak. Gure kasuan, gehienbat, bigarrenak erabili ditugu (2008tik 2016ra), BAIak ez baitu etxeko enplegua bereizten zerbitzuen arloko beste enplegu-mota batzuetatik.

Dena dela, bigarren mailako zenbait iturritako datuak bildu ditugu, hala nola Díaz Gorfinkielek eta Fernández Lópezek (2016) eginiko ikerlanekoak; hain zuzen ere, afiliazioari buruzko datuen eta BAIaren estatistiken arteko erkaketa egin dute, estaldura-tasa kalkulatzeko, eta horrek sektore honetan era formalean lan egiten duten pertsonen berri eman digu, eta, beraz, ezkutuko lan merkatuan lan egiten duen kopurua zenbatzeko modua ere bai.

Lan-osasunari dagokionez, ez dago ez ikerlanik, ez erregistro ofizialik, etxeko enpleguko lan-baldintzei buruz[23].

Metodologiaren aldetik, 2008tik 2016ra bitarteko denborazko seriea analizatzea erabaki dugu. Analisia 2008an abiatu dugu, orduantxe hasi baitzen nazioarteko finantza-krisia, geroago barneko ekonomia-krisia batu zitzaiola. Horrez gain, datuak nazionalitatearen arabera banakatzen direnez (atzerrikoa/Espainiakoa), 2005-2006 urteetan atzerritarren artean egin zen erregularizazio masiboak ez du analisia kutsatzen.

Lurralde aldetik, estatuaren eta EAEren egoerak erkatzen dira, atzerritarrei buruzko legea, lan-arloko legedia eta krisia estatu-eremukoak izanik, bien arteko aldeak ikusteak interesgarria dirudielako.

23. EAEn, ATH-ELEk aspaldian ari zaio ikerlan bat eskatzen Osalani, sektorean dauden lan-osasuneko baldintzen inguruan, baina eskaerak ez du erantzunik izan oraindik.

## ------ METODOLOGIA Y TEKNICKA KUALITATIBOAK ------

Metodologia kualitatiboa aukera ematen du bizi-esperientziei buruzko informazioa biltzeko; lekukotasun subjektibo batzuk dira halakoak, eta haietan analisian aintzat hartzen diren subjektuen errealitate eta ikuspuntuak adierazten dira, kasu honetan, etxeko langileenak. Arreta haien jarrera eta pertzepzioetan jartzen da, ñabardurak bereziki kontuan hartuz (Alvira Martín, 1983). Garrantzitsuena ez da gai bera aipatzen duten pertsonen kopurua, baizik eta gaien aniztasuna, eta kontakizunetatik ateratzen diren pertzepzio eta ikuspuntuak. Metodologia-mota honek balio du egoera jakin bat esploratzeko, deskribapen adierazgarri bat egin gabe.

Metodologia kualitatiboa baliagarria izan da historian eta gizartean isilarazitako hainbat emakumeri ahotsa emateko, bai eta emakume horien ekintzaren oinarri izan den kritika sozial zabal eta sakon bat aurkezteko ere (Carrasco, 2012). Ikerlan kualitatiboek ikuspegi filosofiko berri baterantz orientaturiko planteamendu batzuk eskaintzen dituzte; hain zuzen, ikuspegi berri hori konprometituagoa eta errealagoa da, bai ikertzen duenaren aldetik, bai ikertutako pertsonaren aldetik, eta bizi-esperientzien ñabardurak ikusgai bihurtzen ditu, zifrak gorabehera.

Etxeko langileen lekukotasun eta bizipenak biltzeko, zenbait teknika erabili ditugu, gutxi-asko tradizionalak. Hala, 19 elkarrizketa erdiegituratu egin ditugu, eta 5 emakume parte hartutako eztabaida-talde bat[24], teknika tradizional samarrak biak. Bestalde, pentsalari feministen aholkuei jarraituz, informazioa biltzeko tresna berri bat erabili dugu, beste era batera galdetzeko, bestelako informazioa eta ñabardurak lortzeko xedez, gorputz-lantegia, alegia, 6 emakumek parte-hartuta.

Elkarrizketa pertsonalen bidez, hiru helburuei buruzko kontakizunak bildu ziren, eta eztabaida-taldean, berriz, hizketaldiak 1. eta 3. helburuetan zentratu ziren gehienbat, hau da, lan-baldintzetan eta aldarrikapenetan. Gorputz-lantegian, iruzkin eta dinamikak 1. eta 2. helburura bideratu ziren bereziki, lan-baldintzak eta lan-osasuna kontuan hartuz, beraz.

Laginketa elur-pilotazkoa izan da. Aliatu eta leku estrategiko batzuk hautatu ditugu, etxeko langileekin lehen kontaktu edo harremana ezartzeko, eta hortik aurrera elur-pilota abian jarri dugu. Hau da, langileei galdetu diegu ea beste langile batzuk ezagutzen zituzten, ikerlanean parte hartzeko interesa izan lezaketenak. Horrela, elkarteetan eta antolaturik dauden emakume batzuengana iristea lortu dugu, bai eta ez elkarteetan, ez antolaturik, ez dauden beste batzuengana ere.

Antolakunde eta leku estrategikoei dagokienez, ikerlan honekin aliatutako antolakundeekin izan gara harremanetan[25], baina, gainera, emakume-elkarteetara, pertsona migratuen elkarteetara zein Vitoria-Gasteizen gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonekin lan egiten duten elkarteetara jo dugu[26]. Interneteko iragarkiez ere baliatu gara.

Ikerlan hau analisi kuantitatibo batean oinarritzen ez denez, ez da bilatu lagina adierazgarria izatea. Hala ere, sektore honetan sortzen diren egoera-mota ugariak erakusteko moduko kontakizun eta esperientzia batzuk kontuan izateko, **askotariko laginketa bat sortzen saiatu gara, aldagai hauek aintzat hartuz:**

24. Guztira, 8 emakume gonbidatu ziren, eta 3 ez ziren joan azkenean.

25. Arabako Baserritar Inguruko Emakumeen Sarea, Ascudean, Emakumeak Aniztasunean, Mugarik Gabe, Medicus Mundi, ESK sindikatua eta Setem Hego Haizea. Halaber, Gurutze Gorriarekin jarri ginen harremanetan, baina nahiago izan zuen neutraltasun-rol bati eutsi, nazioarteko erakunde gisa dagozkion ezaugarriak direla eta.

26. AITIA (afrikar etorkinak erabat gizarteratzeko elkartea), Abya-Yala (latinoamerikar etorkinen elkartea), Arabiar Elkarte Soziokulturala, "Etorkinak" Marokoar Ekimena Euskadin, Gasteizko EUSAH (Euskadiko Saharar Etorkinen Elkartea), Euskadiko Emakume Musulmanen Elkartea, Al-indimay Elkartea, Eskubide Berdintasunaren aldeko Emakume Askeak.

- Nazionalitatea (atzerrikoa - nazionalitate bikoitza - Espainiakoa).
- Adina (21 urtetik 67 urtera bitartean).
- Lan-egoera (lan bila; barne- edo kanpo-langile lanean; etxeko langile ohiak).
- Esperientziako urteak sektorean (3 hilabetetik eta 53 urtera bitarteko esperientzia sektorean).

9. taula. Gorputz-lantegiko parte-hartzaileen ezaugarriak (apirilaren 9an, 11:00 - 14:00 artean egin zen, Mugarik Gaberen lokalean)

| Zk. | Adina | Nazionalitatea | Egoera | Esperientziako urteak sektorean |
|---|---|---|---|---|
| GL1 | 41 | Nazionalitate bikoitza (Kolonbiakoa/Espainiakoa) | Lan bila. Esperientzia garbiketa eta zaintzako lanetan. Kanpo-langile batez ere. | 17 urte |
| GL2 | 63 | Nazionalitate bikoitza (Kolonbiakoa/Espainiakoa) | Lanaldi osoko kanpo-langilea, etxe batean. Esperientzia kanpo- zein barne-langile gisa, garbiketako eta zaintzako lanetan. | 6 urte |
| GL3 | 42 | Espainiakoa | Lan bila. Esperientzia garbiketako eta zaintzako lanetan, barne-langile zein kanpo-langile. Esperientzia, halaber, hoteleko garbitzaile-lanetan, zerbitzari-lanetan eta abarretan. | 9 urte |
| GL4 | 21 | Bere burua espainiartzat soilik definitu du, baina nazionalitate bikoitza du (Dominikar Errep.koa/ Espainiakoa) | Ordukako kanpo-langilea, etxe batean. Aurreko urtean arreta soziosanitarioko ikastaro bat bukatu zuen eta praktikak egoitza batean egin zituen. | 3 hilabete |
| GL5 | 42 | Kubakoa | Kanpo-langilea, garbiketa eta zaintzako lanak egiten 3 etxetan. Esperientzia barne- zein kanpo-langile gisa. | 6 urte |
| GL6 | 36 | Kolonbiakoa | Une honetan, etxekoandrea. Esperientzia kanpo-langile gisa, garbiketa-lanetan batez ere. Esperientzia, halaber, hoteletako garbiketa-lanetan. | 10 urte |

10. taula. Eztabaida-taldeko parte-hartzaileen ezaugarriak (apirilaren 9an, 16:00 - 18:30 artean egin zen, Mugarik Gaberen lokalean)

| Zk. | Adina | Nazionalitatea | Egoera | Esperientziako urteak sektorean |
|---|---|---|---|---|
| ET1 | 34 | Espainiakoa | Une honetan, Ascudean elkartea[27] lana esleitzeko zain, zaintzen zuen adineko emakumea duela gutxi zendu da eta. Esperientzia zaintza-lanetan kanpo-langile gisa. | 7 urte |
| ET2 | 51 | Espainiakoa | Lanaldi osoko kanpo-langilea, etxe batean. Garbiketa eta zaintzako lanak egiten ditu. | 2 urte |
| ET2 | 45 | Espainiakoa | Kanpo-langilea 3 etxetan. Garbiketa-lana. Esperientzia garbiketa eta zaintzako lanetan. | 24 urte |
| ET4 | 48 | Espainiakoa | Lan bila. Esperientzia garbiketa eta zaintzako lanetan kanpo-langile gisa. | 28 urte |
| ET5 | 50 | Venezuelakoa (asiloduna) | Lan bila. Esperientzia kanpo-langile gisa, garbiketa-lanetan batez ere. | 2 urte |

27. Ascudean, familia zaintzaileen eta mendekotasuna duten pertsonen elkartea.

11. taula. Elkarrizketatuen ezaugarriak

| Zk. | Adina | Nazionalitatea | Egoera | Etxeko enpleguan daraman denbora |
|---|---|---|---|---|
| E1 | 34 | Venezuelakoa. (Asiloduna). | Lanaldi osoko kanpo-langilea etxe batean, garbiketa eta zaintzako lanak egiten. Esperientzia, halaber, barne-langile gisa. | 2 urte |
| E2 | 38 | Venezuelakoa. Agiririk gabe | Ordukako kanpo-langilea etxe batean, garbiketa eta zaintzako lanak egiten. | 8 hilabete |
| E3 | 64 | Nazionalitate bikoitza. Venezuelakoa/ Espainiakoa | Lanaldi erdiko kanpo-langilea, garbiketa-lanak egiten. Esperientzia, halaber, zaintza-lanetan. | 14 urte |
| E4 | 62 | Nazionalitate bikoitza. Venezuelakoa/ Espainiakoa | Kaleratua lanbide-gaixotasun batengatik bajan zegoenean. Une honetan bajan jarraitzen du, eta auzitan bidegabeko kaleratzeagatik. | 30 urte |
| E5 | 50 | Ekuadorrekoa | Une honetan, gaixotasun-bajan. Lanaldi erdiko langilea etxez etxeko laguntzan. Esperientzia etxeko enpleguan eta zaintza eta garbiketako lanetan Duela gutxi etxe batetik kaleratua, gaixorik jartzeagatik. | 13 urte |
| E6 | 67 | Kolonbiakoa | Barne-langilea, zaintza eta garbiketako lanetan. | 49 urte |
| E7 | 28 | Venezuelakoa | Ordukako kanpo-langilea etxe batean, garbiketa eta zaintzako lanak egiten. | 1 urte |
| E8 | 51 | Indiakoa | Ordukako kanpo-langilea etxe batean, garbiketa-lanak egiten. Esperientzia barne-langile gisa, garbiketa eta zaintzako lanetan. | 17 urte |
| E9 | 31 | Pakistangoa | Orain, itzultzaile lan egiten du. Duela urtebete, ordukako kanpo-langilea, garbiketa eta zaintzako lanak egiten. (Sarritan errefusatua, beloa eramateagatik). | 7 urte |
| E10 | 45 | Espainiakoa | Barne-langilea, garbiketa eta zaintzako lanetan. | 29 urte |
| E11 | 66 | Espainiakoa | Orain, gaixotutako alaba zaintzen. Esperientzia barne- eta kanpo-langile gisa, garbiketa eta zaintzako lanetan. | 53 urte |
| E12 | 40 | Errusiakoa | Ordukako kanpo-langilea 4 etxetan, garbiketa eta zaintzako lanak egiten. | 14 urte |
| E13 | 33 | Ukrainakoa | Ordukako kanpo-langilea 3 etxetan, garbiketa-lanak egiten. Esperientzia, halaber, barne-langile gisa. | 5 urte |
| E14 | 22 | Perukoa | Orain, ikasten. Esperientzia barne- eta kanpo-langile gisa, garbiketa eta zaintzako lanetan. | 5 urte |
| E15 | 45 | Espainiakoa | Edozein lan-motaren bila. Esperientzia garbiketa eta zaintzako lanetan kanpo-langile gisa. | 20 urte |
| E16 | 65 | Espainiakoa | Lanaldi erdiko kanpo-langilea etxe batean, garbiketa eta zaintzako lanak egiten. | 48 urte |
| E17 | 43 | Ekuadorrekoa | Lanaldi erdiko kanpo-langilea etxe batean, garbiketa eta zaintzako lanak egiten. Esperientzia barne-langile gisa. | 17 urte |
| E18 | 51 | Nazionalitate bikoitza. Kolonbiakoa/ Espainiakoa | Ordukako kanpo-langilea 2-3 etxetan, garbiketa eta zaintzako lanak egiten. | 10 urte |
| E19 | 21 | Nazionalitate bikoitza. Kolonbiakoa/ Espainiakoa | Une honetan, egoitza batean lanean. Esperientzia ordukako kanpo-langile gisa, garbiketa eta zaintzako lanetan. | 5 urte |

Elkarrizketa pertsonal *erdiegituratuari* dagokionez, teknika horrek ahalbidetzen du elkarrizketatuaren pentsamendu, diskurtso eta jarrerei buruzko informazioa biltzea, egoera ezin hobea sortuta, pertsonek gai jakin batzuen inguruan askatasunez eta argi hitz egin dezaten. Ukitu beharreko gaiak jasotzen dituen gida bati[28] jarraitzen dio elkarrizketak, pertsona guztiek gai beren inguruan erantzun edo hitz egiteko xedez. Hala ere, erdiegituratua denez, berez sortzen diren eta era berean adierazgarriak diren gaiak esploratzeko aukera ematen da.

Gai nagusiak ikerlanaren hiru helburuen ingurukoak dira, eta elkarrizketek ordubeteko iraupena izan dute, batez beste. Kontuan hartuz gorputzez hitz egitea askotan zail gertatzen dela, gorputzari lotuago dagoen teknikaren bat izan ezean, lan-osasunaren gaia aztertzeko, horren inguruko argazkiak erabiltzea erabaki genuen[29].

**Guztira, 19 emakume elkarrizketatu dira,** eta bilerak hainbat tokitan egin dira, langileen beharren eta nahien arabera. Batzuk Mugarik Gaberen lokalean egin dira, beste batzuk, lantokietatik gertuko taberna edo kafetegi batzuetan, eta, zenbaitetan, langileek beren etxeetara bertara gonbidatu gaituzte.

*Eztabaida-taldeari* dagokionez, esan daiteke elkarrizketa erdiegituratu baten antzekoa dela, baina zenbait pertsonari egina, ez banaka. Horrela, elkarrizketa egiten duten pertsonak moderatzaile bihurtzen dira automatikoki, eta ziurtatzen dute parte-hartzaileen arteko hizketaldia ikerlanerako interesekoak diren gaien barruan atxikitzea.

Teknika hori erabiltzea erabaki dugu, egokiena iruditzen zitzaigulako etxeko langileen diskurtsoak ulertzeko, eta nagusiki hirugarren helburua betetzeko, hau da, etxeko langileen gogoeta eta aldarrikapenei dagokiena. Elkarrizketetan diskurtsoak eta iritziak banaka jasotzen dira; taldean, ordea, eztabaidan talde-gogoetaren bidez sortzen den diskurtsoa atzematea lortzen da.

**Zortzi emakume gonbidatu ziren taldean parte hartzera, baina azkenean bost etorri ziren.** Hizketaldia Mugarik Gaberen lokaletan egin zen, eta bi ordu eta erdi iraun zuen.

**Gorputz-lantegiari** dagokionez, bestalde, informazio biltzeko teknika hori diskurtsoaz harago doa, arreta bizipen fisiko eta emozioetan jarriz eta lanaren eta bizitza-pertsonalaren artean dauden lotura eta harremanetan sakonduz. Horretarako, mugimendu, introspekzio eta espresiozko dinamika batzuk erabiltzen ditu, gorputzezkoak zein plastikoak, lanak parte-hartzaileengan dituen sintoma eta ondorioetan sakontzen dutenak. Uneko osasun fisiko eta emozionalean eta bizitzako mugarrietan zehar jartzen da begirada, etxeko langile gisa eginiko lan-ibilbidea markoa dela.

*Gorputz-lantegia* aukeratu zen, tresnarik zuzenena delako etxeko lanak langileen osasun fisiko eta emozionalean izaten dituen ondorioak islatzeko eta haien inguruan gogoeta egiteko. Gaia banaka zein taldean lantzen da, eta horrek laneko arriskuez kontzientzia handiagoa izatea eragiten du.

**Lantegira zazpi emakume gonbidatu ziren, eta azkenean sei etorri ziren.** Mugarik Gaberen lokaletan egin zen, eta hiru ordu iraun zuen.

Ikerlana egitean, *kontraste-talde eta eztabaida-espazio batzuk* ere sortu dira, ikerlanak abiapuntu dituen teoriei buruzko gogoeta egiteko eta datu enpirikoen analisia egiteko xedez.

28. Ikus I. eranskina.

29. Ikus II eranskina.

Aliatuen taldea heterogeneoa denez eta haien ezagutzak hainbat mailatatik datozenez (mugimendu feminista, sindikatuak, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, ikerkuntza, militantzia, bitartekotza, etab.), sortu ziren gogoetak oso interesgarriak, askotarikoak eta sakonak izan ziren, eta emaitza kualitatiboen analisian gehitu dira.

Hona hemen aipatutako elkartze-espazioak:

- **Gogoeta teorikoari buruzko lantegia, Mugarik Gaberen lokalean egina, 2017ko otsailaren 23an.** Bilera honen lehen zatian oro har azaldu ziren ikerlanaren helburuak eta abiapuntutzat hartzen zuen planteamendu teorikoa, eta, bigarren atal batean, hasiera eman zitzaion eztabaidari, parte-hartzaileen oharrak eta ekarpenak jasotzeko. Bertaratutako antolakunde aliatuak hauek izan ziren: Arabako Baserritar Inguruko Emakumeen Sarea, Gurutze Gorria, Ascudean, ESK sindikatua, Mugarik Gabe, Medicus Mundi, eta SETEM. Banako zenbait emakume ere etorri ziren beren izenean, prozesuan ekarpena egin nahi baitzuten, gaiari buruz zuten berariazko ezagutza eta beraien militantzia feminista zirela bide.

- **Elkarrizketen analisirako parte-hartzezko lantegia, Mugarik Gaberen lokalean egina, 2017ko ekainaren 22an.** Bilera honen helburua zen landa-lanaren ondoriozko aipuak batera aztertzea. Sarrera egin ondoren, ikerlanaren helburuak nahiz erabilitako metodo eta metodologiak aipatuta, aliatuak gaiaren araberako taldeetan banatu ziren. Helburu bakoitzeko, talde bat sortu zen, eta adostasunez gai nagusiak hautatu ziren, aipuetan oinarri hartuz. Azkenik, eztabaidarako eta bateratze-lanerako espazio bat sortu zen. Bertaratutako antolakunde aliatuak hauek izan ziren: ESK sindikatua, Arabako Emakumeen Asanblada, Cáritas, Mundubat fundazioa eta Ekonomia Feministako Eskola[30], Mugarik Gabe, Medicus Mundi, eta SETEM. Banako zenbait emakumek ere parte hartu zuten beren izenean, prozesuan ekarpena egin nahi baitzuten, gaiari buruz zuten berariazko ezagutza eta beraien militantzia feminista zirela bide, bai eta lagineko bi etxeko langilek ere.

  Parte-hartzezko bigarren lantegian, helburu bakoitzeko gai eta aipu adierazgarrienak era kolektiboan hautatu ziren. Ikerlanean errespetatu egiten da hautapen hori, baina, elkarrizketak hain aberatsak izanik, ikerketa-taldeak beste aipu batzuk gehitu ditu, azaleratu diren gai guztien inguruko adibide eta esperientzia gehiago eskaintzeko.

  Lantegian sortu zen eztabaida oso aberasgarria izan zen, eztabaida horretan zehar aliatuen iritziz zeuden arazo garrantzitsuenak atzeman baitziren.

Ikerketa prozesuan zehar, **Mundubat fundazioak eta Ekonomia Feministako Eskolak taxututako “Zaintzako eta etxeko enpleguaren EAEko lan-baldintzei eta leku sozialari buruzko parte-hartzezko diagnostikoaren” jarraipen-batzordean parte hartu izan du Zentzuz Kontsumitu partzuergoak.**

Azkenik, ikerketa-taldeak aurkezturiko agiriaren azken berrikuspena egin zuen Zentzuz Kontsumitu partzuergoak, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearen ikuspegia eta planteamendua gehitzeko.

30. Zehazki, “Trabajadoras no domesticadas. Condiciones laborales y lugar social del empleo de hogar y de cuidados en la CAE” («Etxekotu gabeko langileak. Zaintzako eta etxeko enpleguaren EAEko lan-baldintzei eta leku soziala») parte-hartzezko diagnostikoa lantzen ari den talde eragileko kide batek parte hartu zuen.

## 4.3. Landa-lanaren xehetasunak

Ikerketa hasi zenetik, bagenekien zer-nolakoak ziren xedetzat genuen taldearen ezaugarriak. Hain zuzen, haien artean honako hauek nabarmentzen dira: lanaren zein ordutegien prekarietatea; bizitza-egoera konplikatuak; bakartzea; astialdi gutxi; komunikatzeko zailtasuna batzuetan, atzerritarrak badira; eta hirian zehar mugitzeko gaitasun gutxi, adinaren arabera.

Ikerketa-taldea ahal adina egokitu zen haien beharrizanetara; hala ere, hasieran harremanetan egondako emakumeetako asko ez ziren hitzorduetan agertu edo, ustekabeko arazoren batengatik, azken unean utzi zuten bertan behera elkarrizketa.

Bestalde, talde honetan lan egiteko zailtasunak azaldu beharrean, langileek adierazitako esker ona nabarmendu nahi dugu, haien esperientziez kezkatzeagatik eta haien historiak jasotzeagatik.

Ikertzaileok zabalkunde-talde bat mantentzen dugu elkarrizketaturiko langileekin, ikerketa-prozesuko parte-hartzezko lantegietara gonbidatzeko eta, etxeko enpleguaren inguruan, interesgarriak iruditu ahal zaizkien berriak bidaltzeko. Harreman horretan, begikotasunezko eta egiten ari garen lanarekiko estimaziozko seinale ugari jasotzen dugu, bai eta zenbait mezu ere, agerian uzten dutenak zer-nolako abandonu-egoeran aurkitzen diren eta zer beharra duten antolakunde zein erakundeek haien egoeraz interesa agertzeko, aurrera eramaten duten lana ikusgai bihurtzeko.

Horregatik, uste dugu landa-lana aberasgarria izan dela, konplexua izatearekin batera.

### 4.3.1. Protokolo etikoa

Emakumeekin telefonoz ezarri zen harremana, eta lehen kontaktu horretan labur azaldu zitzaien ikerlanak zein helburu zituen eta haien kontakizunak zein eratan jasoko ziren (elkarrizketa bidez, eztabaida-taldean edo gorputz-lantegian). Horrela, prozesuan parte hartu ala ez erabaki ahal izan zuten.

Bigarren kontaktu bat egin zen, bileren eguna eta ordua ezartzeko, eta ikerketa-prozesuari buruz gerora sorturiko zalantzei erantzuteko.

Bileraren egunean, banakako elkarrizketetan nahiz lantegian edo eztabaida-taldean, minutu batzuk ikerketa-prozesua berriz azaltzeko erabili ziren, eta “baimen informatuaren” kopia bat[31] eman zitzaien izenpetzeko. Agiri horretan, hain zuzen, ikerlanaren datu garrantzitsuenak eta elkarrizketaturiko pertsonen eskubideak ageri dira; zehazki, ikertzaile nagusiaren identifikazioa eta harremanetarako informazioa, proiektuaren identifikazioa, prozeduraren deskribapena, eta parte-hartzailearen eskubideen deskribapena, azken horien artean honako hauek nabarmentzen direla: borondatezkotasun-klausula, baimena atzera botatzeko eskubidea eta horren ondorioak, emaitzak ezagutzeko eskubidea, laginen eta lotutako datuen erabilerari buruz erabakitzeko eskubidea, eta konfidentzialtasunerako eskubidea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren arabera (DBLO).

31. Ikus VI. eranskina.

Bi kopia aurkeztu ziren, bat izenpetu eta ikertzaileei itzultzekoa, eta bestea langileentzat, betiere parte hartzen ari diren prozesuari buruzko informazioa eduki dezaten.

Emakume bakoitzak 30 €-ko ordainsari bat jaso du parte hartzeagatik, lantegian, eztabaida-taldean edo elkarrizketan. Funtsezkoa deritzogu ikerlanaren aurrekontuaren zati bat emandako laguntzagatik ordaintzeko erabiltzea, ez pizgarritzat, haien ahalegina eta lana aitortzeko baizik, eta arloko espezialista gisa duten ezagutza ikusgai bihurtzeko.



5

# VITORIA-GASTEIZEN ETXEKO LANGILEEK DUTEN EGOERARA IKUSPEGI KUALITATIBOTIK HURBILTZEA



# 5. VITORIA-GASTEIZEN ETXEKO LANGILEEK DUTEN EGOERARA IKUSPEGI KUALITATIBOTIK HURBILTZEA

Atal honetan, ikerketa-prozesuan lorturiko informazioaren analisi kualitatiboa egingo da, informazio hori hiru ataletan antolaturik, ikerlanaren helburu bikoitzaren arabera.

Dena dela, etxeko langileen egoera oso konplexu eta multidimentsionala denez, zaila izaten da aipuak eta gaiak hiru atal horietan argi eta garbi banatzea; izan ere, egoera bera, aldi berean, lan-baldintza bat eta langileen osasunerako arriskua agerian jartzen duen ezaugarri bat izan daiteke, eta gogoeta orokor bat ekar dezake berekin.

## 5.1. 1. helburua. Etxeko langileek Vitoria-Gasteizen dituzten lan-baldintzak, zereginak, erantzukizunak, soldatak eta egoerak ezagutzea.

Lehen helburuari dagokionez, gai nagusiak hauek dira:

I. **Bereizkeriazko legedia:** ez dago langabezia-prestazioa jasotzeko eskubiderik; babesgabetasun juridikoa zaindutako pertsonaren heriotzaren ondoren; *SEEH* sistemako kotizazio-oinarrien gutxienekoak eta gehienekoak ez datoz bat lansariarekin; Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legea (LAPL) ez da aplikatzen; bidegabeko deskontuak gauzatan ematen den lansariarengatik; gaueko lanaldiaren arauketarik eza.

II. **Lan-eskubideen urraketa: egiten den lanari ez dagozkion lan-kontratuak;** zehaztu gabeko zereginak; eginkizunak gehitzea, soldata gehitu gabe, ezta ordutegia ere; ordutegiak ez errespetatzea; ordu estrak ez ordaintzea; lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko ezintasuna; soldata-prekarietatea; hitzarmen kolektibo aplikagarririk ez egotea; lan-eskubide kolektiboak ez gauzatzea; bidegabeko kaleratzeak.

III. **Gizarte Segurantzako Sistemaren ondoriozko babes-eskubideen urraketa:** sarritan ez da langileen alta egiten *SEEH* sisteman; arazoak eta tirabirak enplegatzailearekin, dagokion Gizarte Segurantzako kuota bere gain hartzen ez duelako.

IV. **Indarkeria matxistak, arrazistak eta klasistak: lan-bilaketa informala;** sexu-indarkeria; egoera irregularrean dauden emakume migratuen babesgabetasun handiagoa.

V. **Enplegatzailearekiko harremana: mugak jartzeko zailtasunak;** *surplus emozional* bat eskatzea; botere, menderakuntza eta kontroleko harremana; barne-langileak, indarkeria-egoerak larriagotuta.

## 5.1.1 Bereizkeriazko legedia

Legeen aldetik dauden babesgabetasuneko eta berdintasunik ezeko egoerari nahiz langile eta profesional gisa esparru sozial eta juridikoan izaten duten aitormen apalari dagokienez, langileek adibide batzuk kontatu dituzte, elkarrizketetan eta eztabaida-taldean, batik bat.

### A. EZ DA AITORTZEN LANGABEZIA-PRESTAZIORAKO ESKUBIDEA

Langabezia-prestazioa jasotzeko eskubiderik ez izatea da langileen gehien aipaturiko gaietako bat. Eztabaida-taldean, bost parte-hartzaileetatik lauk eta, elkarrizketetan, hemeretzi elkarrizketatuetatik bostek horren inguruan xehe hitz egin zuten. Espainiako nazionalitatea, atzerrikoa zein nazionalitate bikoitza duten emakumeak dira, ez dago alderik.

Eskubide hori ez da jasotzen Etxeko Langileen Sistema Berezian (*SEEH*), erregimen arruntean ez bezala, prestazio hori jasotzea beharrezkoa ez dela justifikatzen duen arrazoi objektiborik gabe. Kontingentzia horrengatik kotizatzeak ez luke gehiegi handituko ez enpresaburuaren eta ez langilearen kuota, eta beharrezkoa den babes bat sortuko luke eskubide-urraketako eta ahultasuneko egoera berezi bat duen sektore honetan.

Clarak honela ematen du aditzera:

> *Langabezia-sorospenik ez izatea; ez gaitu barnean hartzen eta bidegabekeria bat da. Ze, andreak ustez behar ez zaituenean, kale gorrira botatzen zaitu, eta goian zerua eta behean lurra geratzen zara. Ez duzu langabezia-sorospenaren estaldurarik. Ikaragarria iruditzen zait. Nik beste sektore batzuetan lan egin dut, eta hori beti estalita egoten da, egon ere. (E4, nazionalitate bikoitza, 62 urte).*

Emakume askok ez dute ulertzen zergatik ez duten prestazio hori jasotzeko aukerarik. Egoera horrek asko kezkatzen ditu elkarrizketatuak, eta arazo larria deritzote. Maitek honela adierazten du:

> *Langabezia-saria oso garrantzitsua da. Ez dakit zergatik ez diguten langabezia-saririk ematen. Ez dut ulertzen eta. (E18, nazionalitate bikoitza, 51 urte).*

Eztabaida-taldeko emakume batek honela azaldu zuen:

> *Lan egin, lan egin, beste pertsona batzuei eman, eta ezertarako ere eskubiderik ez izan. Eta azkenean urte-mordoa eman duzu, eta ez duzu ez langabezia-saririk, ez ezer. Ea, atea hartu eta kalera, eta urte-mordoa eman duzu. (ET4, Espainiako nazionalitatea, 45 urte).*

Esaldi horrek gainerako emakumeen adostasuna jaso zuen. Guztiak bat zetozen legezko bazterkeria argi bat zela hori, babesgabetasuna sortzen duena.

## B. LEGEZKO BABESGABETASUNA KONTRATATZAILEAREN HERIOTZAREN AURREAN

Etxeko langileek jasaten duten legezko bereizkeriaren beste alderdi bat da kontratatzailearen heriotzagatik lan-harremana bukatzea arautzen duen araudia. Beste sektore batzuetan, egoera horiek oso bakanak dira, eta, oro har, enpresak edo sozietateak ez daude enpresaburuen heriotzaren mende[32]. Aitzitik, **etxeko enpleguaren sektorean, ohikoa izaten da lan-harremana bukatzea enplegatzailearen heriotzagatik**, askotan gaixorik dauden adineko pertsonak zaintzen baitira, haien osasun-egoera okerrera egiten duela denborak aurrera egin ahala, heriotza gertatu arte.

**Ikerlan honetan parte hartutako emakume guztien artean (30), seiren lan-kontratuak bukatu dira zaindutako pertsonaren heriotza dela eta**. Haietako inork ez zeraman urte asko pertsona horrentzat lanean, baina sektorean ez da ohiz kanpokoa iraupen luzeko lan-harremanak gertatzea. Mendekotasuna duen pertsona hiltzen denean, langileak, legez, hil bateko soldata soilik jasotzeko eskubidea du, lan-antzinatasunaren araberako kalte-ordainik gabe eta, esan dugunez, langabezia-prestaziorako eskubiderik gabe. Zenbait kasutan, areago, langilea ongi informaturik ez badago, daitekeena da legez ezarririk dagoen baino kalte-ordain txikiago bat jasotzea, Maríari gertatu zitzaion bezala.

> *Amona zendu zenean, 15 bat egun falta ziren hil hura bukatzeko, hil osoa ordaindu zidaten, eta kito. (E6, atzerriko nazionalitatea, 67 urte).*

Lekukotasun horretan, badago hiru alderdi nabarmentzea:

1. Legeak bereizkeria dakar, eta hileko soldata bat ezartzen du zaintzen den pertsonaren heriotzagatik kontratua bukatzean, sektore horretan kontratu-harremana azkentzeko arrazoi hori oso ohikoa denean eta, beraz, bestelako konpentsazio batzuk ere jaso beharko liratekeenean, lan-harremana iraupen luzekoa izan den kasuetan bereziki.
2. Egoera larriagotu egiten da, etxeko langileek langabezia-saririk jasotzeko eskubiderik ez dutelako.
3. Enplegatuek eskubideak aldarrikatzeko duten ahalmena, batzuetan, ez da erabiltzen.

Horrez gain, kontuan izan behar da egoera horrek langileengan sortzen duen presio eta antsietatea, beren egoera ekonomikoari eusteko estrategiak pentsatu behar dituztelako, mendekotasuna duen pertsona hilzorian dagoela ohartzen diren unetik; eta hori, bestalde, aurreikusten oso zaila izan daiteke.

Enarak azaltzen du beste lan baten bilaketa aktiboari ekin behar izan ziola, zaintzen zuen aitona okerrera egiten ari zela konturatzen hasi zenean, bere egoera ekonomikoan ezin zelako diru-sarrerarik gabe geratu.

> *Bai, hil baino 15 bat egun lehenago lortu nuen nik lana, bera hil baino 15 egun lehenago. (...) Bai, nik neska-lagunari esaten nion, ai, aitona hilzorian dugu, lanik gabe geratuko gara (E17, atzerriko nazionalitatea, 43).*

---

32. Nahiz eta egia den Langileen Estatutuko 49.1.g) artikuluan jasota dagoela lan-harremana azkentzea, enplegatzailearen heriotza gertatuz gero, langileari eskubidea emanik hil bateko soldataren pareko zenbateko bat kobratzeko, puntu honetan planteatzen duguna da etxeko langileen kasuan kasu hori ez dela salbuespenezkoa, baizik eta behin eta berriz gertatzen dela, eta ia ez dagoela aukerarik "enpresa-oinordetza" bat gertatzeko eta lan-harremanak jarraitzeko, lan-harreman arrunt batean ez bezala. Hortaz, berdin tratatzen dira berdinak ez diren kasu batzuk, etxeko langileei babesgabetasuna ekarrita, eta, ordea, tratu berdina eman behar litzatekeen kasuetan (kontratu-harremana bukatzean langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea kasu) etxeko enplegua erregimen berezitzat jotzen da.

Langileak dio “zorte ona” izan zuela, beste lan bat lortu zuelako, eta horretan eragina izan zuten bi faktore aipatzen ditu: orduka lan egitean, denbora izan zuen lan-bilaketa aktiboan hasteko, hori izanik barne-langile askok ezin egin dezaketen gauza bat, eta ordukakoa ere bazen beste lan bat aurkitu zuen, aurrekoarekin bateratu ahal zuena, heriotzagatik lan-harremana bukatu zen arte.

### C. PRESTAZIOEN KALKULU KALTEGARRIA

Etxeko langileek jasaten dituzten legezko bereizkerien artean, beste bat da **gehieneko kotizazio-oinarria Gizarte Segurantzako Sistema Orokorrarena baino askoz txikiagoa izatea eta, ondorioz, muga hori gainditzen duten langileek kalte larria pairatzea**. Hala, 2017. urtean, erregimen orokorrerako gehieneko kotizazio-oinarria 3.751,20 euro/hil da, eta *SEEH* sisteman, aldiz, 862,44 euro/hil-era mugaturik dago[33]. Hala, bada, etxeko langile batek hilean 825,66 euro baino gehiagoko lansari bat jasotzen badu, ezingo du kotizatu hilean 862,44 eurotik gorako oinarri batengatik, eta horrek kaltea eragiten du, besteak beste, gaixotasun-bajako, ezintasuneko edo erretiroko kontingentziak kalkulatzerakoan, halakoak txikiagoak izango baitira, lansariari dagokion gehieneko kotizazio-oinarri batengatik ordaintzen utzi izan baliote baino. ATH-ELEk langile baten kasua salatu zuen Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren aurrean, 641,71 euroko erretiro bat aitortu zitzaiolako, 48 urtean kotizatu eta gero, etengabe eta betiere une bakoitzean etxeko enpleguan onarturik zegoen Gizarte Segurantzako gehieneko kotizazio-oinarriarengatik.

### D. NEURRIGABEKO DESKONTUAK GAUZATAN EMATEN DEN LANSARIARENGATIK

Legezko bereizkerietako beste bat da ostatuagatik eta/edo mantenuagatik gauzatan ematen den lansaria; izan ere, lehen esan dugunez, ehuneko baten bidez ezartzen da hura, eta soldataren % 30 ere izan daiteke. **Ez dago justifikatzerik gauzatan ematen den lansari hori ehuneko baten arabera kalkulatzea, eta egokiena litzateke irizpide objektibo batzuk finkatzea, ostatu eta mantenu hori kuantifikatzea ahalbidetzeko**. Esan behar da, gainera, langileak logela zaindutako pertsonarekin partekatzen duela sarritan, eta azken horren janari berdina jaten duela, langilearen beharrizanak, gustuak eta nahiak aintzat hartu gabe.

### E. GAUEKO LANALDIAREN ARAUKETARIK EZA

**Gaueko lanaldiaren edo gaua emateko erregimenaren (*pernokta*)[34] inguruan dagoen lege-hutsunea nabarmendu** behar da. Halakoak familien –bereziki mendekotasuna duten pertsonen familien– zaintza-beharrizanei erantzuten die eta, erakundeen erantzun publikoa behar adinekoa ez denez, gueraino luzaturiko presentzia-orduak dauzkaten langileak, lanaldia arratsaldeko ordu-tartean betetzen duten langileak edo barne-langileak kontratatzea ohiko praktika bilakatu da. Hala eta guztiz ere, kasu hori ez da ez aipatzen, ez arautzen indarrean dagoen araudian, langileei legezko bereizkeria eta eskubide-urraketa bat eraginda, familia kontratatzaileei segurtasun juridikorik eza sortzeaz gain. **Omisio hori are deigarriagoa da, kontuan hartzen badugu LANEren 189. Konbentzioan eta 201. Gomendioan bereziki nabarmentzen dela zer garrantzitsua den estatuek gaueko lanaldia arautzea.**

Legez, langilea badu eskubidea bere gelan egoteko, larrialdi-kasu justifikatuetan izan ezik. Baina, sarritan, gaueko atsedenaldi horiek ez dira errespetatzen. Elkarrizketaturiko emakume batek kontatzen du mendekotasuna zuen pertsona batekin etxebizitzan lo egiteko soilik kontratatu zutela, oso soldata txikiarekin, baina egiatan gauero lan egin behar izan zuela, ia lorik egin gabe. Leirek honela azaltzen du gertatu zena:

33. Xehetasun gehiago izateko, Gizarte Segurantzaren informazioa biltzen dugu, erregimen orokorrerako: http://www.seg-social.es/Internet_1/Trabajadores/CotizacionRecaudaci10777/Basesytiposdecotiza36537/index.htm#36538; eta SEEH sistemarako: http://www.seg-social.es/Internet_1/Trabajadores/CotizacionRecaudaci10777/Basesytiposdecotiza36537/index.htm#36556

34. Lan egiten den etxean lo egiteagatik itundutako ordutegi eta konpentsazio ekonomikoari dagokio, eta barne-langileen kasuari baino ez dagokio.

> *Gaueko lan bat egokitu zitzaidan, gauekoa baino ez. Lanaldi osoa zen, Gizarte Segurantzan alta egiten zidaten, eta horixe zen niretzat axola zuena, eta lanak utzi nituen (...) Ez nuen atseden-egun bat ere. Egunero joan behar nuen lo egitera, baita larunbat eta igandeetan ere, gauez (750 euro + Gizarte Segurantza, alzheimerra zuen, eta 92 urte) (…) Okerrera egiten joan zen. Hasieran, oso gutxitan altxatzen zen, baina gero etengabeko kontua zen hura, amesgaiztoak zituela eta. Eta, gero, burutik galduta zegoenez, edozer gauza egiten zuen edo… Eta pixoihalak erabiltzen zituen. Orduan, pixoihalak erabiltzen zituenez, batzuetan pixoihalak eranzten zituen, apurtu egiten zituen, eta horri oso adi egon beharra zegoen, ohea ez bustitzeko (E14, atzerriko nazionalitatea, 22 urte)..*

## 5.1.2. Lan-eskubideen urraketa

Sektore hau oso prekarizatuta dago, lan-arloan ez ezik, arlo sozialean ere bai. Esparru teorikoan azaldu denez, etxeko eta zaintzako lanak egiten dituzten emakumeak beste sektore bat ezin aukera dezaketenak izaten dira, edo etxeko enplegua aldi baterako zerbait gisa edo "laguntza" ekonomiko gisa ikusten dutenak. Gainera, ikuspegi intersekzionala, hau da, menderakuntza matxista, klasista eta arrazistako sistemak elkarri loturik daude, eta urraketa ugari sortzen dituzte. Hori dela eta, emakume guztien elkarrizketetan –Espainiako nazionalitatea, atzerrikoa zein nazionalitate bikoitza izan– esan bada ere baldintza txarreko lan-eskaintzak onartu eta errefusatu direla, erregularizazio-prozesuren batetik igaro diren atzerritar langileek adierazi dute esplizituki, ordea, oso baldintza txarreko lan-harreman batzuk izan dituztela, agiriak lortzeko beharragatik.

Ondoren, elkarrizketaturiko emakumeek aurre egin beharreko lan-eskubideen urraketak deskribatuko ditugu.

### A. LAN-KONTRATURIK EZ IZATEA ETA ZEHAZTU GABEKO ZEREGINAK

Etxeko enpleguaren lan-harremana arautzeko 1620/2011 Errege Dekretua 2012ko urtarrilean indarrean sartu zen arte, hitzezko kontratua onartzen zen, eta horrek sektore honen prekarietatea eta informaltasuna ahalbidetzen, sortzen eta betikotzen zituen. Araua aldatu arren, oraindik ere informaltasuna da nagusi, eta etxeko langileen diskurtso eta hizketaldietan oso maiz agertzen den gai bat izaten da **lan-harremanen barruan egin beharreko zereginen zehaztugabetasuna**. Zehazki, **ikerlanean parte hartutako hogeita hamar emakumeetatik hogeita bik aipatu dute gai hori**, alde nabarmenik egon gabe nazionalitatearen arabera: elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik hamabik, gorputz-lantegira gonbidaturiko guztiek (6), eta eztabaida-taldeko bost parte-hartzaileetatik lauk aipatu zuten, hain zuzen. Haiek guztiek aditzera ematen dute lan-elkarrizketa gehienetan ez direla xeheki zehazten zeregin guztiak, horrek dakarren segurtasun juridikorik ezarekin, eskubideen urraketaz eta eskubideok eskatu ahal izateko babesgabetasunaz gain.

Rominak azaltzen duenez:

> *Gauzak argi eta garbi utz ditzatela hasieratik, zein den zure eginbeharra, hau da, zertarako kontratatzen zaituzten, eta kontratu argi eta zehatza egin dezatela; ze, bestela, dena ahozkoa bada, orduan gauzak justifikatzeko garaian zuk ez duzu kontratu bat esateko, begira, ni hau, hau eta hau egiteko kontratatu ninduten. (E3, nazionalitate bikoitza, 64 urte).*

Bi alderdiek izenpeturiko idatzizko kontratu batean eginkizunak, erantzukizunak eta zereginak xeheki argituz, etxeko langileen profesionaltasuna aitortzen da, eginkizun zehatz batzuk gauzatzeko kontratatzen baitira. Gainera, langileak babestuago sentitzen dira edozein gaizki-ulertu edo arazoren aurrean, halakorik sortuz gero.

Askotan, **ez da bereizketarik ezartzen zaintza-lanaren eta etxeko lanaren artean**. Hori, batez ere, barne-langile gisako esperientzia izan duten langileen kontakizunetan aipatzen da, eta gorputz-lantegiko gai nagusietako bat ere izan zen, non langileek lan honen multidimentsionaltasuna nabarmentzen baitute.

Sandrak honela kontatzen du:

> *Hasieran, esan zidan berrehun emango zidala neska ikastetxera eraman eta handik jasotzeagatik, baina, azkenean, ez zen bakarrik eraman eta jasotzea, joan eta han geratu behar nuelako, egokitzeko aldirako: ordu eta piko ikastetxean. Gero, noski, handik alde egiten banuen, gero jaso behar nuen, eta ia ez nuen joateko denborarik (etxera itzultzeko, urruti bizi nintzelako), eta haren etxean geratzen nintzen, bada. Eta han abusatzen hasten zen, hor ontziak neuzkala eta... Noski, egunen batean egin nuelako, gero zera.... eginbehartzat hartu zuen. (E15, Espainiako nazionalitatea, 45 urte)..*

Etxeko langileek, etxeko eta zaintzako lanen arteko banaketa oso argia ez dela badakite ere, bereizketa hori ezarrita egotea behar dute, langile “multifuntzional” bat ez bihurtzeko, batez ere soldata txikia izan, eta benetan egin daitekeen baino lan-bolumen handiago bat egin dezatela eskatzen denean. Isabelek azaltzen duenez:

> *Eta nik ez nuen oso argi nire lana zaintzea zen, hau da, haurrak zaintzea, edo etxea garbitzea, edo adi egotea. Hau da, dena egiten nuenez... (E1, atzerriko nazionalitatea, 34 urte).*

Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen direnean, bereziki, familiak zaintza-beharrizan horri era defizitario batean ari dira erantzuten, etxeko laneko zereginak egiten dituzten emakumeak dauden ahultasun-egoera abiapuntu, lan hori azkenean den-dena sartzen den *“saski-naski”* bat bihurtze dela. Askotan, etxez etxeko laguntza zerbitzuak (ELZ) egin beharko lituzkeen zainketa berezi batzuk dira, edo beste espazio batzuetan egin beharrekoak, eta horrek askoz kostu handiago bat ekarriko luke, zainketak behar dituzten pertsonek nekez beren gain har lezaketena. Langile asko horren jakitun dira. Pilarrek honela ematen du aditzera:

> *Batzuetan erizain-lanak egiten dira, beste osasun-espazio batzuetan egin beharko liratekeen lan batzuk egiten dira, baina etxeetara eramaten ditugu (...) Badakizu zer gertatzen den, baina? Familiako bat mendekotasuna duen pertsona bat daukala konturatu, eta zera dio: edo nire etxean norbait sartu eta merkeago ateratzen zait, edo, jakina, diruz lagundutako plaza bat 400 eta piko kostatzen da, eta plaza pribatu bat, 2.500 euro inguru. Nork ordaindu ahal du hori? (ET1, Espainiako nazionalitatea, 34 urte).*

### B. ZEREGINAK GEHITZEA, SOLDATA GEHITU GABE

Lan-kargari dagokionez, **ikerketa-prozesuan parte hartutako emakumeen erdiek baino gehiagok esan dute**, nola barne-langileek hala kanpo-langileek, Espainiako nazionalitatea, atzerrikoa zein nazionalitate bikoitza izan, **noizbait egokitu zaiela lan-harreman batean zereginak gehitu izana denborak aurrera egin ahala, lansaria igo gabe, eta ordutegi berean**. Esan nahi baita, kontratuak mota batekoak dira, eta gero alde bakarreko erabakiz eginbehar gehiago ezartzen dira, dagozkien eskubideak gehitu gabe.

Begoñak ordukako kontratu bat izenpetu zuen gaixorik zegoen gizon bat zaintzeko, baina gero, egiaz, haren bikotekideaz ere arduratu behar zuen, soldata beraren truke, eta hasieran zehaztutako orduak ez ziren nahikoak.

> *Ez, ez, ez, jaunarentzat bakarrik esaten zuten, baina, andrea ongi egon arren, ea, ba, ekardazu hori hona, lagundu honekin, jaunarekin erabili behar dudan denboraren erdia andreak ea zer nahi duen egon behar dut (…); orduan, denbora gehiago geratu behar dut, eta horrelaxe doa kontua. (E12, atzerriko nazionalitatea, 40 urte).*

Jokabide-modu hori (eskatu baino gehiago egitea, laguntzea, enpatizatzea) etxeko langile eta, oro har, emakume gehienen ezaugarri bat da, sexu femeninoko pertsonei ematen zaien sozializazioaren ondorioz, María Jesús Izquierdok (2003) aditzera ematen duenez.

Hala eta guztiz ere, emakume batzuk, esperientziarekin, jokabidea aldatuz doaz, eta halako egoera saihesteko estrategiak praktikan jartzen dituzte. Badakite eta/edo ikasten dute mugak jartzen, eta zein zereginengatik jasotzen duten soldata eta zeinengatik ez bereizten.

Pilarren kasuan bezala:

> *Izan ere, etxe batean arropa plantxatzea lanaren barruan sartzen ez bada, eta egun batean plantxatzen baduzu, orduz geroztik badirudi behartuta zaudela. Esan dizutenari lotu behar duzu. Ze nik etxe batzuetan moketa hautsez josita ikusi dut, eta xurgagailua hortxe bertan. Baina nik ukitu ere ez, nire zereginetan ez bada sartzen… behin egiteagatik, beti egiteko eskatuko dizute eta. Noski, egin zenuenez eta nahikoa denbora izan zenuenez. (ET1, Espainiako nazionalitatea, 34 urte).*

Gehiegizko zereginek, sektoreko prekarietateak eta emakumeen ahultasun-egoerak –beharragatik edo beste arrazoi batzuengatik– <u>**hiperrerantzukizuneko eta lan-gainkargako egoerak**</u> sortzen dituzte.

Isabelek kontatzen duenez:

> *Eta ni horrek apur bat estututa nindukan, jaioberriaren kontuak. Ze bera… erdi berria zen, jaioberriak hilabete eskas zuen. (…) Baina lanera itzultzekoa zen jada. Hau da, nik goizean iritsi behar nuen, bai? Haurrak eskolara eraman. Itzuli. Garbitu. Jaioberria zaindu. Jaioberriaz arduratu. Arratsaldeko ordu bietan-edo, jaioberria jaitsi behar nuen, jaten emateko. Jaioberriari bularra emateko. Amak hurbil lan egiten zuen eta. Eta, gero, itzuli behar nuen. Bazkaria prestatzen bukatu. Arropa garbitu, eta abar. Garbitzen jarraitu. Jaioberria zaindu (…) Niri erreferentziak edukitzeak axola zidan. (E1, atzerriko nazionalitatea, 34 urte).*

### C. EZ DIRA ERRESPETATZEN LAN-ORDUTEGIAK, ETA EZ DIRA BEHAR BEZALA KONPENTSATZEN EZ ORDU ESTRAK, EZ PRESENTZIA-ORDUAK

<u>Elkarrizketaturiko hemeretzi langileetatik bederatzik aditzera eman dute –autoktonoak izan zein migratuak izan, bai barne-langileak, bai kanpo-langileak tartean direla, ia lanaldi osoan edo orduka lan egiten– sarritan lan-ordutegiak ez direla errespetatzen.</u> Batzuetan hori gertatzen da enplegatzailea enplegatuaren eta mendekotasuna duen pertsonaren artean ezartzen den pertsonarteko harremanaz aprobetxatzen delako eta langile askok –gizarte matxista eta patriarkal batean sozializatzearen ondorioz– izaten duten hiperrerantzukizunaren ondorioz.

Aintzanek, etxeko kanpo-langilea bera, honela kontatzen du:

> *Orduan, berak alta egin zidan, eta berarekin egunean sei ordu lan egiten hasi nintzen. Eta horiek sei baino gehiago bihurtu ziren. Gauza bat esaten dizutena delako, eta beste gauza bat lanera iristen zarenean. Hasieran, dena polit-polita, baina gero pixkanaka lanez kargatzen zaituzte. Nire ordutegia eguerdiko hamabi eta erdietatik, orduan haurrak ikastetxean jaso behar bainituen, arratsaldeko sei eta erdietara artekoa zen. Baina ez zen inoiz ere sei eta erdietan izaten, haiek ez zirelako inoiz sei eta erdietan iristen lanetik. Hortaz, nik han geratu behar nuen haiek iritsi arte, edozein ordutan iritsita ere. Behin edo behin, gaueko bederatziak arte ez nintzen joan etxera. Eta gero, horren alde txarra zen, bueno, haiek nirekin kariño handia-eta, baina ordaintzeko garaian ez zidaten aitortzen nik ematen nuen aparteko denbora. (E3, nazionalitate bikoitza, 64 urte).*

Egoera hori larriagoa da barne-langileen kasuan, ohikoa izaten baita astean 60 orduko lanaldiak egitea. Begoñak bere esperientzia partekatu zuen:

> *Barne-langile egotea oso-oso txarra da, 2 ordu libre badituzu, benetan 2 ordu dira, eta 22 ordutan hor ari zara lanean. (E12, atzerriko nazionalitatea, 40 urte).*

Baieztapen horiek bat datoz Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 2011n egin zuen *"EAEn etxeko zerbitzuan lan egiten dutenen lan-egoeraren azterketa*[35]*"* lanean jasorikoekin. Ez da duela gutxiko lan bat, baina garrantzitsua da aipatzea, batetik, erakunde publikoek eta EAE osoa barnean hartuz egina delako eta, bestetik, sektore honen zenbait ezaugarri agerian jartzeko estatistika-datuak ematen dituelako. Txostenak nabarmentzen du barne-langileen egoera "askoz desabantailatsuagoa" dela, inkestaturiko barne-langile gehienek 60 ordutik gora lan egiten dutelako.

Kontuan hartzea merezi duen beste estatistika-base bat da ATH-ELErena. Elkarte horrek astero doako aholkularitza juridikoa ematen du Bilbo Handian, eta espazio horretan, hain zuzen, langileei buruzko datuak biltzen dira, gero urteko estatistikak argitaratzeko. Txostena ezin baliotsuagoa da, ez baitago bestelako estatistika-daturik, hain lagin handia duenik, urtekoa, eta zeregin, ordutegi, soldata, eta abarri buruzko hain informazio xehea biltzen duenik. 2016. urtean, 462 pertsona igaro ziren aholkularitza horretatik, eta guztira 480 lan-kasutan eman zen laguntza.

Haien estatistiketan, barne-langileei buruzko atal bat dago, eta beste bat, kanpo-langileei buruz. Lehen atalari dagokionez, salatu egiten da ez dela betetzen etxeko enplegua arautzeko 1620/2011 Errege Dekretua, han asteko 40 orduko gehieneko lanaldi bat ezartzen baita, gehienez 20 presentzia-ordu ituntzeko aukerarekin, ordaindu edo konpentsatu beharrekoak. Sektore honetan behin eta berriz gertatzen da, ordea, barne-langile gehienek astean 60 ordu baino gehiago egiten dituztela, batez beste, 12. taulatik ondorioztatzen denez.

35. http://www.legebiltzarra.eus/irud/10/00/012384.pdf. Guztira, 8 adituri eta etxeko 30 langileri egin zitzaizkien elkarrizketa sakonak, 6.013 etxeri, telefono bidezko elkarrizketak, eta etxeko 331 langileri, inkesta pertsonalak.

12. taula. Barne-langileak, lanaldiaren arabera. 2016. ATH-ELE

| Astean lan egindako orduak | Langileen ehunekoa |
|---|---|
| 40 eta gutxiago | % 2,97 |
| 41-60 | % 19,80 |
| 61-80 | % 44,55 |
| 81-90 | % 14,36 |
| 91 edo gehiago | % 16,83 |
| ED/EDE | % 1,49 |

Iturria: ATH-ELE-Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartearen etxeko enpleguari buruzko urteko estatistika, 2016koa.

Lanaldi bukaezin horiek eta atseden-falta ulertzeko, aski da zer-nolako zereginak egiten dituzten kontuan hartzea. Inkestaturiko langileen artean, % 95,53k, adin handia, aniztasun funtzionala edo gaixotasuna dela eta, mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzte, eta, emakume horietatik, % 73,74 zaindutako pertsonarekin bakarrik bizi dira. Horiek horrela, baldin norbait mendekotasun-egoeran dagoen pertsona batekin bizi bada, eta haren zaintzaren arduradun bakarra bada, edo bere gain kargarik handiena hartzen duena, ulertzekoa da haren lanaldiak bukaezin bilakatzea, legean ezarritako gutxieneko atsedenaldiak errespetatu gabe.

Etxeko 38 latinoamerikar langileri 2011n egin zitzaien ikerlan batean, *"Cuidadoras invisibles: Caracterización de las mujeres latinoamericanas cuidadoras de personas mayores"* («Zaintzaile ikusezinak: adinekoak zaintzen dituzten emakume latinoamerikarren ezaugarritzea»)[36] izenburuz, aditzera ematen zen kasu gehienetan ez zirela gutxieneko lan-baldintzak betetzen, hala nola eguneroko bi orduko atsedenaldia eta asteburuetan eta jaiegunetan jai izatea. Nabarmena da jaiegunetan lan egiten duten barne-langileen ehunekoa, % 60, hain zuzen.

## D. ATSEDEN-DENBORAK, JAIEGUNAK ETA OPORRAK IZATEKO ESKUBIDEA EZ ERRESPETATZEA

Zaintza-lanen bereizgarrietako bat da premiazko zereginak izatea, beharrezkoak, saihetsezinak, ez jaiegunak, ez atsedenaldiak aintzat hartzen ez dituztenak. Mendekotasuna duten pertsonek 24 orduetan dute mendekotasun hori. Etxeetan bizikideek lan-merkatuan lan egiten dutenean –zaintza-beharrizanak asetzeko baliabide publiko egokirik gabeko gizarte batean, bizitzaren jasangarritasuna kontuan hartzen duen lan-eskubiderik ere ez dagoela–, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko pertsona bat behar izaten dute, "sekula ere" huts egingo ez diena. Etxeko langileak atsedenerako bere eskubidea erabiltzen badu, nor arduratuko litzateke zaintzaz? Huts egiten badu emakume horiek egiten duten zaintza-lanak, izozmendiaren alde ezkutuari dagokion horrek, ikus daitekeen aldea behera erortzen da.

Maitek honela azaltzen du:

> *Bai, uste dut etxean gehiago lan egiten dela, enpresa batean baino. Fabrika batera bazoaz, ogitartekoa jateko gelditzen zara, eta etxean? Andre horren etxean, ozta-ozta baso bat ur hartzen nuen, baina nire lau orduetan eginahalean ibiltzen nintzen, neuk egiten nuen ordu horietako lana. (E5, atzerriko nazionalitatea, 50 urte)..*

36. Latinoamerikar zaintzaileen errealitatera eginiko lehen hurbilketa bat da; horretarako, 40 inkesta –adineko pertsonak zaintzan ziharduten 38 emakumeri (% 95) eta 2 gizoni (% 5)– eta 5 elkarrizketa sakon egin ziren, bai eta jardunaldi ludiko batzuk ere, non ariketa eta gogoeta kolektiboak egin baitziren, zaintzaile gisa zeukaten errealitatearen inguruan.

## E. LANA, FAMILIA ETA BIZITZA PERTSONALA BATERAGARRI EGITEKO EZINTASUNA

Beste gai bat da **egoten den zailtasuna eta etxeko langileentzat falta den elkarrekikotasuna, langileok beren lana bizitza pertsonalarekin eta/edo zaintza-bizitzarekin bateratu nahi dutenean**. Edozein jatorri izanik ere, bai etxeetan zaintza-lanetan ordu asko ematen dituzten kanpo-langileek, bai astean ordu gutxirako kontratatuariko kanpo-langileek *"gaizki ulertutako malgutasuneko"* edo *"noranzko bakarreko malgutasuneko"* egoerak bizi izan dituzte.

Zehazki, **elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik zortzik aipatu dute nolako zailtasuna duten bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko, eta eztabaida-taldeko bost emakumeetatik bik adierazi dute egoera hori esplizituki, gainerakoen adostasuna bereganaturik; halaber, gorputz-lantegiko sei gonbidatuetatik, hiruk ere gaia aipatu zuten.**

Larraitzek honela azaltzen du:

> *Alde negatiboa da, nire adinerako, oso gaztea den pertsona batentzat, apur bat itogarria dela, ze gaztea zara, eta denbora asko kentzen dizu beste gauza batzuk egiteko, ikasteko, adibidez, aisialdirako, ez dakit, ba, sozializatzeko; nire ustez, hori da negatiboa. (E7, atzerriko nazionalitatea, 28 urte).*

Danielak honela adierazten du:

> *Bai, jakina, gastuetarako diru-sarrera nahikorik ez baduzu, bi lan izan behar dituzu… Orduan, alde horretatik orekarik ez badago, ezinezkoa da, jakina, zu etxera heldu eta etxea garbitzea, edo ama, aita, edo haurrak edo dena delakoa zaintzea ere. Orduan, hor dago zaintzarik gabeko tarte bat. Baina horrelako gauzengatik da. Asko lan egiten dute (gizarte honetan). (E2, atzerriko nazionalitatea, 38 urte). .*

Begoñak, elkarrizketaturiko emakumeetako batek, ondoren azaltzen du:

> *Gaur pixka bat lehenago irten behar dut; badira 14 urte ezagutzen ditudala, 3 haur nire lanari esker ere hazi dira, eta gaur esaten badut lehenago alde egiten dudala, bihar edo ostiralean, plantxatzeko arropa gehiago dagoenean, geratu egiten naiz. Baina gero beti ibiltzen dira gogorarazten, zu noiz irten zinen lehenago? Nik ez dut gogoan inoiz ere ordu justu-justuan irten izana, beti beranduago, baina hori ez diet nik gogorarazten. (E12, atzerriko nazionalitatea, 40 urte).*

Beste adibide bat dugu Marinarena, jatorriko herrialdean familiakoak dauzkaten beste atzerritar langile askoren kasuaren antzekoa. Jatorriko herrialdetik Vitoria-Gasteiza iritsi zenean, ez zuen adiskiderik, eta bere burua eskaini zien enplegatzaileari mesederen bat egiteko bere astialdian, asmo onez eta eskuzabalki. Gero mesede horiek eginbehartzat hartu ziren, eta haren semea iritsi zenean, ez zitzaion utzi familiako bizitza lan-eremuarekin bateragarri egiten:

> *Bai, baina nik familiarik ez nuenez, eta eskaini egiten nionez, inozoa ni… Noski, tokiren batera joan behar zuenez, zerbait jaso edo erostera, edo tindategitik hartzera… Berak beti gauzak egiten zituen; orduan, etxean aspertuta ez egoteko, ez nuen lagunik eta… Nik esaten nuen: ba, nahi baduzu, neu joango naiz. Ba, azkenean, nire eginbehar bezala geratu zen. Nire familia etorri zenean, nire semea zegoen, eta gauza horiek egitera behartzen ninduten! Nire denbora librean. (E8, atzerriko nazionalitatea, 51 urte).*

Denbora batera, Marinaren familia Vitoria-Gasteiza iritsi zen; negar artean azaltzen du bere astia familiarekin egoteko erabili nahi zuela, baina enplegatzaileak ez ziola uzten. Berarentzat oso mingarria den gertaera bat kontatzen du, lana eta familia bateratzea zer neurritaraino ukatzen zaion agerian uzten duena, berak lehenago enplegatzaileari egin zizkion mesedeak eginik ere:

> *Gogoratzen naiz egun batean gaixorik zegoela (seme txikia), botaka egiten ari zen, eta ezin izan zen eskolara joan. Eta txirrina jotzera etorri zen, oso hurbil bizi zelako, orduan... Ama, txarto nago, igo naiteke? Eta andreari galdetu nion, eta ezetz esan zuen. Hemen ez du umeak sartu behar, esan zidan. (E8, atzerriko nazionalitatea, 51 urte).*

Lana eta familia bateragarri egiteko eskubidea ukatzen duen praktika hori langile migratzaileen kontakizunean baino ez da agertzen.

Pertsonen zaintzan diharduten langileen –barne- zein kanpo-langileen– historien bidez ondorioztatzen da eskatu egiten diren eta aurretiaz ia ziurtzat ematen diren ezaugarri batzuk direlam algutasuna eta erabateko prestasuna. Gehien nahi den eta merkatuan hautagai egokientzat ikusten den emakume-tipologia da *"familia-kargarik ez duen emakumea"*, enplegatzaileek haren erabateko prestasuna izan ahal izateko. Angela Davisek dioenez (2004), gizarte kapitalistetan (nahiz eta bera, zehazki, Hego Afrikakoaz ari den, eta emakume beltzen kasuaren inguruan) etxeko enpleguan ziharduten emakumeen familiako eta etxeko bizitza eragozpen bat zen sistemarentzat, prestasun gutxiago eragiten baitzuen, eta *estatus quo*aren asaldatze bat susta baitzezakeen. Hurren aipatzen diren bi kontakizunetan ikusiko dugunez, ardurapeko familiarik gabeko langileek prestasun handiagoa dute, eta familiadunek eta/edo mendekotasuna duen pertsonaren bat ardurapean dutenek, aldiz, maizago behar izaten eta eskatzen dituzte atseden-egunak, jaiegunak, bajak, eta abar.

## F. AMATASUN-BAIMENA EZ BETETZEA

Egoera agertzen da amatasuneko bajaren eta atsedenaren oinarrizko eskubideak, besteak beste, betetzen ez direnean, emakumea babesgabe utzirik, oso ahultasun handiko une batean. Enarak ugazabandreararen erantzuna azaltzen du, haurdun zegoela jakinarazi zionean:

> *Dena oso ondo, haurdun nengoela jakin zuen arte. (...) Berak esan zidan ez zuela nahi neska bat horrela. (...) Eta esan zidan ezetz, ez itzultzeko. Soldata ordaindu zidan. Ez zidan ez pagarik eman, ez kitorik. Ezertxo ere ez (...) Nik hasieran haurra ez zela arazoa ere esan nion, bazegoelako nork zaindu. Nire semearen amona zegoen, nire semearen izebak zeuden, eta txandaka arduratuko ziren, eta berak ezetz eta ezetz, ez zuela nahi haur txikiak zeuzkan neska bat, haurrak gaixotu egiten direlako, eta ni huts egiten hasiko nintzelako, eta ea haurrekin zer egingo zuen orduan. Eta utzi egin nuen. Ni uztailaren 31n irten nintzen oporretan, komatxo artean, eta ez nintzen berriz itzuli. (...) Niretzat txarto, lanik gabe geratzen nintzelako, eta baja ematen ez zidalako (amatasun-baja). (E17, atzerriko nazionalitatea, 43 urte).*

## G. SOLDATA-PREKARIETATEA

Ordainsariei dagokienez, enplegu-mota horren izaera determinatzen duten elementuetako bat dira haren soldata txikiak. Etxeko enpleguaren sektorean herrialde batetik bestera jasotzen diren ordainsarien artean alde handiak egoten diren arren, eskuragarri dauden datu globalek erakusten dute lansaria langileen, oro har, batez besteko soldaten %40 inguru izaten dela (García *et al.*, 2014). Ikuspegi global batetik, Budigek eta Misrak (2010) gogorarazten dute zaintzako eta etxeko enpleguko lana, herrialde guztietan, gutxiago ordaintzen dela, egiten den lanagatik nahiz hura egiten dutenei eskatzen zaizkien gaitasunengatik espero litekeen baino.

Legez, sektore honetan, gainerako lan-sektoreetan bezala, erreferentziatzat lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) hartzen da. Hala ere, gainerako sektoreetan ez bezala, **etxeko enpleguan ez dago hitzarmen kolektibo aplikagarri bat, lan-baldintzak eta, zehazki, soldata-baldintzak hobetuko dituena**. Etxeko langileak bakarturik daude, sakabanaturik, eta prekarietate-egoera batean; hori dela eta, ez dago negoziazio kolektiborako aukerarik eta, ondorioz, baldintza ekonomikoak hobetzeko aukerarik ere ez, banakako negoziazio-ahalmena gorabehera.

Garrantzizkoa da kontuan hartzea daitekeena dela enplegatzaileak legez eskatzen duen gutxienekoa ordaintzea, baina, lehen ikusi dugun bezala, lanaldiak gehiegizkoak badira, zereginak gehitu egiten badira, edo zehaztu gabe mantentzen badira, **ez dago soldataren bidezko aitormen egoki bat, eta horrek langileari kalte ekonomiko bat dakarkio, beraz**. Ainhoaren lekukotasuna horren adibidea da:

> *Andre bat alzheimerren hastapenetan zegoen, eta orduko 10 € ordaintzen zidaten, eta egunean bi ordu joaten nintzen. Andrea okerrera egiten zihoan, eta orduen doblea lan egiteko proposatu zidaten, baina soldata berarekin; orduan, nik esan nien: "nola, zu harakindegira zoaz, bada, eta bi kilo haragi ematen dizkizute baten prezioan? Ez, ezta? Ba nik, orduan, ezin dut lan egin 4 ordu orain lanean ari naizen prezio berean", "ez, ondo pentsatu, komeni zaizu eta..."; esan nion, "ez, pentsatu dut jada, iraingarria da", eta berehala beste batzuk topatu zituzten, noski (...). (E16).*

Larraitzek kontatzen du nola elkarrizketa batean eskaintza bat egin zioten, berak onartu ez zuena, halakoak zekarren lan-kargagatik nahiz aitormen ekonomiko eskasagatik. Honela azaltzen du:

> *Urte eta erdiko bi haur txiki zeuden, eta etxea garbitu behar zen, eta haiei janaria prestatu, eta bi haurrak, bikiak, zaindu behar ziren…. Are gehiago, lan-elkarrizketa egitera joan nintzenean, ama eta aita estresatuta ikusten ziren bi haur horiekin, eta nik nire artean esan nuen, ai, ene, ni bakar-bakarrik bi haur hauekin erotu egingo naiz, (…) Astelehenetik ostiralera bitarteko lanaldi erdiagatik, 600 euro, baina bi haurrak zaindu behar nituen, janaria prestatu, arropa plantxatu... asko zen... (E7, atzerriko nazionalitatea, 28 urte).*

Langile hauentzat legeak desabantaila dakarrela jakitun, azken urteetan, alderdi kontratatzailearen eta lan bila dabiltzan emakumeen artean bitarteko-lana egiten duten zenbait erakunde sozialek beren taulak argitaratu dituzte gehieneko eta gutxieneko baldintzei buruz, soldatei, lanaldiei, atsedenaldiei eta oporrei dagokienez, besteak beste, lan-erregimena kontuan harturik (barne-langileena eta kanpo-langileena).

## H. LAN-ESKUBIDE KOLEKTIBOAK GAUZATZEKO EZINTASUNA

Langileek aipatzen duten beste alderdi bat da –esplizituki eztabaida-taldean egon zirenen bostetatik bik, eta ez hain agerian elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik lauk, nazionalitatearen arabera alde nabarmenik egon gabe–, aliatuekin eginiko parte-hartzezko lantegian tinko azpimarratu zen alderdi bat, hain zuzen, **lan-eskubide kolektiborik ia ez gauzatzea: hala nola sindikatzeko eskubidea, negoziazio kolektiboa, edo greba-eskubidea**[37].

Langileen hitzen eta beraiek aipaturiko adibideen arabera, horrek dakar berekin etxeko langilea desabantaila argiko egoera batean aurkitzea negoziatzeko, adosteko eta bere eskubideak eskatzeko kontratu-harremanaren iraupen guztian zehar, eta, hala, kasu batzuetan, egiazko lan-esplotazioko baldintza batzuk betikotu egiten dira. Esan nahi baita, eskubide kolektiboak errealitatean gauzatzen ez direnez, 1620/2011 Errege Dekretuan ezarritako gutxienekoen hobekuntza negoziatzeko ahalmena hutsa da; ondorioz, sektorearen babesa denik eta txikiena da, eta lan-baldintzak hobetzea banakako negoziazio-ahalmenaren mende geratzen da.

Estik eztabaida-taldean parte hartu du, eta lan-hitzarmenik eza aipatzen du, eta, halakorik ez egotean, langileak aurkitzen diren babesgabetasuna.

> *Nik uste dut lanaren barruan negoziatzea... norberarentzat oso gogorra dela. (ET2, Espainiako nazionalitatea, 52 urte).*

Bestalde, Rominari galdetzean zer ekintza eramango lituzkeen aurrera, sektorearen egoera hobetzeko, honela erantzuten du:

> *Nik hitzarmen bat egingo nuke, gutxienez. Etxeko langileentzako hitzarmen arauemaile bat, arau argi batzuekin, inor ere Gizarte Segurantzatik kanpo gera ez dadila, eta emakume guztiek beste lanbide batzuetako-edo gainerako langileen eskubide berberak izan ditzatela... Hau da, eskubide berberak izan ditzatela. (E3, nazionalitate bikoitza, 64 urte).*

Langileak, erreferentziazko esparru kolektiborik gabe, oso negoziazio-ahalmen txikia du. Batetik, alderdi enplegatzailearen eta alderdi enplegatuaren arteko botere eta menderakuntzako logika jakin batzuk daudelako, gauden sistema matxista, klasista eta arrazistaren ondorio diren logika batzuk, hain zuzen; eta, bestetik, *"erreserbako armada"* bat dagoelako, baldintza txarretan lan egiteko prest dagoena, premia ekonomikoa edo herrialdean legez bizitzeko egoera juridikoaren prekarietatea direla bide (Cachón, 2009; Benston, 1977; Carrasco, 2011). Behar ekonomikoaren inguruko egoera larri eta premiazkoenak laguntza-sareak faltatzeari gehitzen zaizkio, helmugako herrialdean denbora gutxi daramaten emakume migratuen kasuan maizago (Parella, 2003, 2005; Nogueira eta Zalakain, 2015).

Badirudi sektore honetan ezin dela hitzarmen kolektibo bat onartu, patronalari dagokion alderdia banakako etxeak liratekeelako, horiek gaur egun ez antolatuta, ez elkartuta ez daudela. Hala ere, beste herrialde batzuetan, hala nola Italian, Frantzian eta Alemanian, badago figura hori (Mather, 2015). Hortik ondoriozta dezakegu Espainiako Estatuan ez dagoela benetako interesik sektorearen hitzarmen kolektibo bat negoziatzeko behar diren baldintzak sortzeko. Eztabaida-taldeko emakumeetako bat aditzera ematen duenez:

37. Greba-eskubideari dagokionez, etxeko enpleguaren sektore honetan ia ez da existitzen, esan dugunez, baina, hala ere, nabarmendu beharrekoa da 2012ko azaroaren 14rako antolatu zen "zaintza-greba", EHko Emakumeen Mundu Martxak, besteak beste, hartara deituta, lan-araudiaren legezko erreformengatik antolatu zen greba orokorraren deialdiarekin batera.

> *Gobernuak ez du egiten ez zaiolako berez irteten, ez zaiolako interesatzen. Haiek aberatsak dira, eta gu, neskameak. (ET2, Espainiako nazionalitatea, 51 urte).*

## I. BIDEGABEKO KALERATZEAK

Lan-eskubideen urraketari dagokionez, elkarrizketaturiko emakumeen artean, hiruk kontatu zuten bidegabeko kaleratzeen biktima izan zirela. Horren adibide bat da Clara, nazionalitate bikoitza duen emakume atzerritar bat, familia batentzat 19 urtean lan egin eta gero, kaleratu egin dutena, lan-harremanaren antzinatasuna aitortu gabe:

> *Baina ni... bajan nengoela kaleratu naute. Ondo, kaleratzea onartzen dut... baina bidegabeko kaleratze bezala, nik ez dudalako huts egin lanean. Ez dut hutsik egin lanean. Ni ez naiz kaleratzearen eragilea. Kaleratzeko arrazoia ez da izan nire ekintza edo nire jokabidea, edo nire lan-eginbeharra ez betetzea. Beste arrazoi batzuk izan dira, nire nagusiarenak, pertsonalak. Ez jauna... Ez, kalte-ordainik txikienarekin kaleratu nau hemeretzi urteren buruan. (E4, nazionalitate bikoitza, 62 urte).*

Emakume hau kontziente da beraren eskubideak urratu direla, ez delako zilegi gaixotasun-bajan dagoenean kaleratzea, eta legezko akzioak abiarazi ditu. Baina azaltzen du ez dela prozesu samurra.

Sozialki eta legalki gutxietsitako sektore bat izanik, oso kontzientzia gutxi dago gai honen inguruan. Zifretan, elkarrizketaturiko langileen laurdenak baino gehiagok lan bat utzi zuen edo kaleratua izan zen noizbait gaixorik edo haurdun egoteagatik. Noski, bidegabeko kaleratzeak dira, baita etxeko enpleguan ere; hala ere, zenbaitetan enplegatzailea, bere betebeharren jakitun ez delako edo halakoak bere gain hartu nahi ez dituelako, normal ikusten du egoera horretan kaleratzea, etxeko eta zaintzako enplegua profesionala izatea aitortzen ez duelako.

Enplegatzaileak Maiteri esan zionez, “gaixorik bazaude, ez didazu gehiago balioko”:

> *“Bai, baina joan eta ez itzuli, ze gaixorik bazaude, ez didazu gehiago balioko, eta sorbaldatik gaixorik bazaude, okerrago geratuko zara horrela, ze gauza horiek ez dira sendatzen, txarto geratuko zara, eta ez didazu balioko”. Horrelaxe, horrelaxe. “Ez didazu gehiago balioko”. “Hobe ez itzuli berriz”. Esan nion: baina zer ari zara esaten?, orain botako nauzu, gehien behar zaitudanean? “Orduan, botatzen banauzu, lan egin dudanagatik likidatu behar didazu”. “Eta zer dela eta eman behar dizut nik dirua zuri?” “Zerbitzuko hamabi urte dira”. “Bai, eta horrek zer ikusi du? Likidazio bat ematera behartuko nauzu?”, esan zidan. Eta nik esan nion: ba bai, nik ez zaitut behartzen, legeek behartzen zaituzte. “A, bueno, nahi baduzu jarridazu auzia, horretarako baititut nire abokatuak, nik neure abokatuak bidaliko ditut”. (E5, atzerriko nazionalitatea, 50 urte).*

Elkarrizketaturiko langileek baieztatzen dute horrelako bidegabeko kaleratzeak –antzinatasuna eta kitoa (“*finikitoa*”) ez onartzea– ematen duen baino ohikoagoak direla, eta ikusten dute negoziazioa etengabeko borroka bat dela etxeetan, beraien eskubideak aitor ditzaten.

#### J. AURREABISURIK EZ EMATEA

Elkarrizketaturiko emakumeen artean, beste batek salatu zuen sektore honetan, batzuetan, etxeko enpleguko lan-harremanari uko egiten zaiola idatzizko jakinarazpenik egin gabe eta aurreabisu bat emateko betebeharra bete gabe, gutxienez 20 egun lehenago urtebetetik gorako kontratuetan, eta zazpi egun lehenago gainerako kasuetan. Esan behar da, harremanaren azkentzea jakinaraztearekin batera, alderdi enplegatzaileak langileen esku kalte-ordain bat jarri behar duela, osorik dirutan ordaindu beharrekoa, hamabi egun naturaleko soldataren pareko zenbatekoa emanez lan-urte bakoitzeko, muga sei hilabeteko soldatan ezarririk. Horrez gain, aurreabisuko aldian, enplegatuak badu astean sei orduko baimen bat izateko eskubidea, ordainsaririk galdu gabe, beste lan bat bilatzeko. Enplegatzaileak, aurreabisuaren ordez, aldi horretako soldaten balioa duen kalte-ordain bat eman dezake, aukeran.

Hala ere, emakumeetako batek kontatzen duenez, langileak egun batetik bestera kaleratzen dira, inolako aurreabisurik, jakinarazpen formalik edo kalte-ordainik gabe.

> *Ba, ostiralean esan zidan astelehenean ez joateko. Esan nuen, "Nola, egun batetik bestera esaten didazu? Zuri zer irudituko litzaizuke senarra gaurtik biharrera kaleratuko balute?" (E16, Espainiako nazionalitatea, 65 urte).*

### 5.1.3. Gizarte Segurantzako Sistemaren ondoriozko babes-eskubideen urraketa

#### A. GIZARTE SEGURANTZAKO ALTA EZ IZATEA

Elkarrizketetan, Gizarte Segurantzaren gaia ere aipatzen da. Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik hamarrek eta eztabaida-taldeko bi parte-hartzailek esan dute enplegatzailearekin arazoak izan dituztela Gizarte Segurantzan alta egin diezaieten. 2012. urtean 27/2011 Legea indarrean sartu zenetik, enplegatzaileak du enplegatuari Gizarte Segurantzan alta egiteko eta laneko lehen ordutik kotizatzeko ardura, baldin lanaldia hilean hirurogei ordu baino gutxiagokoa ez bada; azken kasu horretan, akordioa egin daiteke langileek alta egiteko eta kuotak hilero sartzeko, kuoton ordainketa enplegatzaileak bere gain harturik. Elkarrizketetan, langileek adierazten dute, eskubide bat onartzea baino gehiago, badirudiela mesede bat egiten ari direla, zenbaitetan.

Leirek horrela azaltzen du. Hain zuzen, berak etxeko lanean dihardu gauetan mendekotasuna duen pertsona gaixo bat zaintzeko, eta aldi berean enpresa-administrazioko modulu bateko eskoletara joaten da. Jasotzen ari den prestakuntzari esker, bere lan-eskubideak ezagutzen hasia da, eta enplegatzaileari aurre egiten dio, lan-baldintza eta ordutegietan hobekuntzak eskatzeko; baina, ordea, enplegatzaileak *SEEH* sistemako alta erabiltzen dio truke-txanpon gisa, lan-baldintzak negoziatzeko garaian. Honela kontatzen du:

> *Kontratuan 8 ordu jartzen zuen, astelehenetik ostiralera, baina benetan gehiago zen, eta nik gehiago egiten nuen, (…) Eta jaiegunetan, ez nuen beste lansari bat jaiegunengatik. Baina kontratatuta zaudenez eta Gizarte Segurantza-eta daukazunez, orduan, batzuetan, isil samar geratzen zara halako gauzen aurrean. Nik astelehenetik igandera lan egiten nuen egunero atsedenik gabe, jaieguna izanda ere, baita langileari dagozkion jaiegunetan ere. Esaterako, Gabonetan andre horrengana joan nintzen lo egitera, (...) Gabon-gauan, eta Urteberrian ere egokitu zitzaidan joatea. Orduan, esan nahi dut (...) Ez, orduan, astelehenetik*

> *ostiralera nik neure lanaldia betetzen nuen, nire lanorduak, 40 orduak. Larunbatak eta igandeak ez ziren kontu horretan sartzen, baina lo egitera eta kito joaten nintzela esaten zutenez, lo egin besterik ez nuela egiten... Baina kontua ez da horrela benetan, gau txarra pasatzen zenuen eta, gainera, ez zenuen atsedenik urteko inongo egunetan. (...) Ez dakit, haiek, nonbait, ulertarazi nahi dizute kontratatua egotea bera jada asko dela zuretzat. Lan horretan hori gertatu zitzaidan. Lanaldiaren gainetik egiten nituen egunena erreklamatu nuenean, nire kontuak egin nituelako, esan nuen, gehiago ari naiz lan egiten, ostiralera arte egin behar dudan lanaldia egiten dut jada. Eta esan zidan, ba Gizarte Segurantza ordainduko dizugu, eta horrek ere konpentsatuko luke. Ez dakit, sinetsarazi nahi zidan mesede bat egiten zidala kontratatuta egote hutsak (E14, atzerriko nazionalitatea, 22 urte).*

Puntu honetan, aintzat hartu behar dira berriz ere ATH-ELEk Bilbo Handian eginiko 2016ko estatistikak. Hain zuzen ere, kanpo-langile gehienek astean 21 eta 40 ordu arteko lanaldiak dituzte (% 33, 81); eta handiak dira, orobat, 10 ordu edo gutxiagoko lanaldiak dituztenen ehunekoa (% 15,1) eta 41 eta 60 ordu artean lan egiten dutenena (% 16,18).

<u>Gizarte Segurantzako kuoten tarteak kontuan hartuta, ezkutuko ekonomia handiagoa dago hilean 30 ordu baino gutxiagoko lan-harremanetan, zeren emakume askok benetan kobratzen duten baino gehiagorengatik kotizatu beharko bailukete, horrela gehiegizko kotizazio edo gainkotizazio bat eraginda.</u> Gogoan har dezagun *SEEH* sistemako kotizazio-oinarriak tarte batzuen arabera kalkulatzen direla, hileko soldata gordina kontuan hartuz. 2018. urtean, lanbide arteko gutxieneko soldata 5,76 euro/ordu bada, eta lehen tartea 0-188,61 euro/hil bada, dagokion kotizazio-oinarria 161,29 euro dela, enpresaburuaren kuota, 37,42 euro, eta langilearen kuota, 7,10 euro. Emakume askok ordu gutxi batzuetan lan egiten dute, eta haien soldata, beraz, 188,61 euro/hil baino gutxiago izaten da; ondorioz, ez enplegatzaileari ez etxeko langileari ez zaie interesatzen SEEH sisteman alta eginda egotea.

Rominak honela azaltzen du:

> *Beharra hor dago oraindik, mundu guztiak du lanaren beharra, eta esaten badizute: etorri lanera bi ordu egunean, baina ez dizut egingo Gizarte Segurantzako alta, baina zuk dirua behar duzu... Zer egingo duzu? Hau da, zuk hartu egiten duzu, zuk nahi duzuna lan egitea delako, dirua behar duzulako. Nire lagun bati gertatu zitzaion bezala. Emakumeak, lanean eman zituen hamabi urteetan, ez zion inoiz alta egin nahi izan. Arren eta arren eskatuta ere. (E3, nazionalitate bikoitza, 64 urte).*

Nabarmendu egin behar da <u>prestazio jakin batzuk izatetik baztertuta egoteak –langabezia-prestaziotik kasu– edo beste batzuk erabili ahal izateko zailtasunak izateak –amatasun-baja, lanbide-gaixotasuneko baja, lan-istripuko baja, etab.– eragiten duela emakume askori ez baliagarria, ez nahigarria ez iruditzea Gizarte Segurantzan alta eginda egotea</u>. Rominak honela adierazten du:

> *Administrazioak baldintza hobe batzuk jar ditzala etxeko langileentzat. Hain zuzen, baldintzak ondo ez daudelako daude hainbeste emakume beltzean lan egiten. (E3, nazionalitate bikoitza, 64 urte).*

### B. SOLDATAN DESKONTUAK EGITEA GIZARTE SEGURANTZAKO ENPRESABURUAREN KUOTAGATIK

Zoritxarrez maiz ere gertatzen den beste egoera bat da, langileek aipaturikoa, **etxe batzuetan alderdi enplegatzaileari dagokion diru-kopurua beren gain hartu nahi ez izatea eta Gizarte Segurantzako kuota langilearen soldatatik deskontatzea**. Horra hor Ainhoari zer gertatu zitzaion:

> *Ni gelditzea nahi zuen, baina zera, nik aseguruarena eginda eta, ez dakit, berrehun eta piko euro kenduko zizkidala Gizarte Segurantzarako. Eta ezetz esan nion: "zuk aseguratu nahi banauzu, asegura nazazu, baina zuk ordaindu nire asegurua", "a, ez, gestorian esan ziotela hori ez zela horrela", "a, ba, hor konpon". Besteak ospa eta nik ospa. Biok joan ginen. (E16, Espainiako nazionalitatea, 65 urte).*

## 5.1.4. Indarkeria matxistak, arrazistak eta klasistak

Historian zehar zaintza-lanari eta etxeko enpleguari sozialki emaniko balio eskasa dela eta nahiz bizi garen sistema kapitalista, patriarkal eta arrazistak hura izozmendiaren alde ezkutuan mantentzeko duen beharra dela eta (Pérez Orozco, 2006b), halakoa beti lan informal bat izan da, gutxietsia, prestigioz gabetua, eta mendean atxikia. Herentzia horrek badirau bizirik oraindik ere, eta etxeko enpleguko lanetan diharduten emakumeek beren gorputzetan bertan eta beren bizitza-historietan pairatzen dute. Indarkeria matxista, arrazista eta klasistak gertatzen diren egoerak ez dira kasu bakan eta salbuespenezkoak; aitzitik, sektorearen ezaugarrietako bat dira, bertan erabiltzen eta gauzatzen baitira emakumeak jasateko arriskuan egon ohi diren sistemak –menderakuntzan, asimetrietan eta botere-harremanetan oinarrituriko sistema batzuk, hain zuzen–.

Indarkeria matxista beste indarkeria-mota batzuekin batera eta era intersekzionalean gertatu ohi da, hala nola indarkeria klasistarekin eta arrazistarekin. Zenbait ikerlanek (Anderson 2007; Martínez Buján, 2009; Naredo Molero, 2013) **emakume "papergabeek" etxeko enpleguan bizi duten esplotazio-egoera** salatzen dute. Zehazki, elkarrizketatu diren atzerriko hamabost emakumeetatik, zortzik etxeko enplegua zuzenean edo zeharka aipatu dute lan-nitxo gisa, bereziki bizileku- eta lan-baimenik ez badute. Honela kontatzen du Miriamek:

> *Eta hasi nintzen, noski, agiririk gabe, garbiketa-lanetan batez ere: etxeetan, haurrak zaintzen-eta. (GL1, nazionalitate bikoitza, 41 urte).*

Danielak, bestalde, honako hau ematen du aditzera:

> *Ona izan zein txarra izan, hala atzematen baduzu edo ikusten badugu ere, egin dezakegun bakarra da, ezin duzu egin beste ezer; orduan, nik uste, txoko hori kentzen badigute, bertan gureak egin du, ez dagoelako beste ezer, produktiboa den zerbait egitea ahalbidetzen duen arlo bakarra delako. Etxerako diru-sarreraren bat izateko (...) daukazun aukera bakarra. Gainerakoetan inork ere ez dizu lanik emango. Izan ere, nik elkarrizketa batzuk egin nituen, eta guztiek esaten zidaten: pena da zure moduko norbaitek agiririk ez izatea, zu hain profesionala zarela eta hainbeste dakizula gure arloari buruz, ezin zaitudalako enplegatu. (E2, atzerriko nazionalitatea, 38 urte).*

Kasu askotan, sare sozialik eta familia-sarerik ez izatea, bakartzea, premia ekonomikoa eta familia-kargak direla bide, emakumeak beharturik aurkitzen dira lan-baldintza batzuk jasatera, esklabotzatik hurbil daudenak eta beraien osasun mental zein fisikorako oso kaltegarriak direnak.

Maitek azaltzen duenez:

> *Batek agiririk ez duenean, gauza asko jasaten ditu, baina asko (...) Baina agiriak jada dituen batek, ez, ez, ez. (E18, nazionalitate bikoitza, 51 urte).*

Hori horrela, ulergarria da nola bilakatzen den etxeko enplegua, barne-zerbitzuaren modalitatean bereziki, “lan aukerarik onena” beharrizan ekonomiko handiak dituzten eta agiririk gabe dauden emakumeentzat. Begoñak honela adierazten du:

> *(Barne-langile nago) Baina hau da lan bakarra etorri, bizitoki bat eta janari apur bat eduki, eta paperak egiteko modukoa. Pena ematen dit, berdin dio latinoak-edo izateak, ze orain etorri, ez dute non bizi eta ez dute nora joan, eta hortxe sartu behar dute. (E12, atzerriko nazionalitatea, 40 urte).*

Hala, bada, etxeko enpleguan interakzioan dauden menderakuntza-sistema guztiak aintzat harturik, emakumeek aurre egin beharreko egoera zehatzak deskribatuko ditugu, beraien kontakizunez baliatuz.

## A. ETXEKO ENPLEGUA ESKURATZEKO BIDEAK

Hasteko, enplegu hau eskuratzeko bideak, gaur egun, bide informalak izaten dira oraindik ere, eta horrek errazago bihurtzen du botere-abusuak, indarkeriak eta babesgabetasuna gertatzea. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 2011n egin zuen “*EAEn etxeko zerbitzuan lan egiten dutenen lan-egoeraren azterketa*“ izeneko lanak erakutsi egiten du etxeko enplegua eskuratzeko bideek badutela eragina sektoreko ahultasun-egoera eta prekarietate handiagoetan. Zehazki, laginaren % 82,8k ezagunen bidez eta era informalean lortzen du lana; % 8,5ek, komunikabideetako iragarkien bidez; % 3,2k irabazi-asmorik gabeko erakundeen bidez; eta gainerako % 5,5ak, beste bide batzuetatik, enplegu-agentzia pribatuak eta bitartekotzako beste entitate batzuk tartean direla. Hain zuzen, 2017an, Lanbidek etxeko enplegurako 154 eskari baino ez zituen jaso.

Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik bik eliza aipatu dute jende askok lan bila jo ohi duen tokitzat. Esaten dutenez, lana aurkitzen dietenak mojak dira. Erakunde erlijioso batzuek beren lan-poltsak dituzt[38], eta erreferentzia-puntuak dira zaintza behar duten zein zaintza-lana eskaintzen dutenentzat. Ikusi dugu mezatara joateko estrategia ere badagoela, sareak egin, eta adinekoak zaintzeko lana aurkitze aldera, hori erabat aldentzen delarik lan-bilaketarako bide erregular batetik. Hartara, zaintzaren antolaketa sozialari ematen zaion erantzun prekario bat topatzen dugu, eta harreman horretan esku hartzen duten pertsona eta entitateen *“borondate onaren”* mende geratzen da abusurik eta botere-harremanik ez gertatzea. Elkarrizketaturiko emakume batek honela kontatzen du:

> *Lehen lanerako, eliza batera joan nintzen, eliza horretara jende asko joaten baitzen lan bila. Eliza hartara hiru hilabetean joan nintzen, eta bazegoen moja bat lana ematen zuena. Lanak iristen zitzaizkion, eta hor lortu nuen nire lehen lana. Barne-langile egon behar nuen, haur bat zaintzeko eta, gainera, garbiketa-lanak, sukaldekoak eta denetarik egiteko. (E14, atzerriko nazionalitatea, 22 urte).*

38. Erakunde erlijiosoen izen zehatzak ez aipatzea hautatu da.

Erakunde erlijiosoetatik sortzen diren bide informal eta sare horiek ahultasun-egoeran erortzeko arrisku handiena duten emakumeek erabiltzen dituzte, hau da, emakume pobretu eta migratuak. Ikerlanerako kontuan hartutako emakume guztietatik, atzerriko jatorria zutenek soilik (21) aipatu zituzten eliza eta/edo erakunde erlijiosoak noizbait lan bila egondako tokien artean. Izan ere, eztabaida-taldean, Espainiako nazionalitatea zuen emakume batek kontatu zuen, lan-poltsa duten erakunde erlijioso horietako batean, esan ere egin ziotela atzerritarrentzako lan-eskaintzez soilik arduratzen zirela. Espainiako nazionalitatea zuen beste emakume batek, elkarrizketan esan zuen bazeramala denbora bat lan bila, baina ez zuela erakunde erlijioso batetik pasatzea ez zela lehentasun bat izan.

Halaber, nabarmendu behar da, elkarrizketaturiko atzerritar emakumeen kolektiboaren barruan, badaudela desberdintasun batzuk jatorriaren eta erlijioaren arabera, emakumea ahultasuneko eta babesgabetasuneko egoera handiago batean jartzen dutenak. Haietako batek –musulmana eta jatorriz pakistandarra bera– aipatzen du berarentzat lana bilatzea ez dela izan inola ere erraza, bereziki lan-poltsa duten erakunde erlijiosoen bidez, eta hori gizartean dagoen ***islamofobiaren adierazle bat izan daiteke***. Lan-elkarrizketak egiteko deitzen zioten arren, azkenean ez zuen inoiz lortzen lana. Honela azaltzen du Loreak:

> *Ni beti egoten nintzen, baina andreari ez zitzaion gustatzen nik berarekin lan egitea, Pakistangoak garelako esaten zuen, eta beloagatik-eta. Nik ez dakit, agian bere kulturako edo bere herrialdeko jendea zuen gustuko (…) Bai, emakume musulmanen arazoengatik, beloarekin, ez dakit zerekin… badakizu, halako gauzengatik. (E9, atzerriko nazionalitatea, 31 urte).*

Lana bilatzeko bideez hitz egin behar bada, gaur egun badaude enplegu-agentzia eta etxeko zerbitzuen agentzia pribatu batzuk, zaintza-beharrizanak asetzeko erakundeen erantzun publiko eskasaren aurrean, mendekotasun-kasuetan bereziki, egoera horri etekina ateratzen diotenak, irabazi handiko eta kontrol askorik gabeko merkatu bat eskura daukatela, etxeko langileek botere-abusuak jasateko ondoriozko arriskuarekin. Urte batzuk badirela, EAEn agentzia batzuk daude, baimenik gabe eta telefono bat eta jendea hartzeko bulego bat beste tresnarik gabe, bitartekotza egiten dutenak etxeko enpleguko eta zaintzako zerbitzuak eskainiz, langileen lan-baldintzak prekarizaturik horrela. ATH-ELEk[39] zenbait agentzia salatu ditu Laneko Ikuskatzailetzaren aurrean, eta lortu du haietako batzuei zehapenak ezartzea, baita jarduera utzaraztea ere.

Enplegu-agentzia batzuek negoziazioan parte hartu gabe egiten dute bitartekotza-lana eskariaren eta eskaintzaren artean, kontratua enplegatuaren eta enplegatzailearen artean hitzartzen baita. Agentzia horiek etekina lortzen dute etxeei zenbateko bat kobratuz, bitartekotzaren, probaldian langilea ordezkatzearen, Gizarte Segurantzako gestioen eta soldata ordaintzearen truke. Clarak haietako bat aipatzen du:

> *Haiek ez dira arduratzen (agentzia). Ustez, haiek hitzarmen bat egiten dute pertsonarekin, eta nik hiru hilabete baino gehiago iraun behar dut. Nik hiru hilabete baino gehiago irauten badut, haiek berari kobratzen dioten komisioa kobratu, eta ez dira gehiago arduratzen. Baina hiru hilabete horiek probaldian dira. Hau da, nik hiru hilabete baino gutxiago iraunez gero, haiek beste pertsona bat bilatzeko betebeharra dute. (E4, atzerriko nazionalitatea, 62 urte).*

39. Argibide gehiagorako: http://ath-ele.com/es/agencias-de-colocacion/

Elkarrizketaturiko emakumeen artean batek ere aipatu ez dituen arren, nabarmendu behar da **etxeko zerbitzuen agentziak ere badaudela, zerbitzua zuzenean ematen dutenak, langileen kontratua beren gain hartuta eta lan-harreman arrunta ezarrita**. Kasu horretan, agerian jarri beharrekoa da sarritan oso alde handia dagoela agentziak kobratzen duenaren eta langilearen soldataren artean, desberdintasunezko harreman horretan gertatzen diren ondoriozko botere-abusuekin.

Horrelako agentziak arrakasta handia izaten ari dira, lan-bitartekotzan dagoen hutsuneagatik ez ezik, familiei berehalako ordezkapena ziurtatzeagatik ere, langileak, edozein arrazoi dela eta, huts egin behar badu. Lehen ere azaldu dugunez, mendekotasuna duten pertsonen zaintza-beharrizanek ez dituzte aintzat hartzen ez bajak, ez baimenak, premiaz eta salbuespenik gabe ase beharreko beharrizan batzuk dira. Hori dela eta, familia askok diru-kopuru handiak ordaintzeko prest daude, mendekotasuna duen pertsonaren zaintza-beharrizanak kasu guztietan estaliko direla ziur egon ahal izateko.

Badaude, orobat, **irabazi-asmorik gabeko elkarte batzuk**[40]**, mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten familiek sorturikoak, lan-poltsak dituztenak eta bitartekotza-lana egiten dutenak familiaren eta zerbitzu horiek eskaintzen dituzten pertsonen artean**. Pilarrek honela ematen du aditzera:

> *Guk, elkartearen bidez. Jendea elkartera joaten da, zer nahi duen azaldu, eta elkarteak galdetzen hasten da, zuk adineko pertsona bat zaindu nahi duzu?, janaria presta diezazuten…? Apur bat aztertu, eta elkarteak libre geratu garenon zerrendara jotzen du. (ET1, Espainiako nazionalitatea, 34 urte).*

Pilarrek aipaturiko elkartea langileekin konprometitu ohi da zereginak eta ordutegiak negoziatzeko, lan-harremana hasi baino lehen. Areago, zeregin-zerrenda bat ezartzen da, kontratuan bai jasotzen dena, eta hori garrantzitsua da eskubide-urraketak saihesteko, lehen ikusi dugunez. Pilarrek dio bere lanean ez duela ezer egiten, kontratua hitzarturik ez dagoenik.

Halako erakundeen arazo da haien jardun-eremua oso mugatua dela langileen eskubideen alde, ez baitute inolako rolik jokatzen familiarekin arazoren bat dagoenean edo ezarritakoa betetzen ez duenean; hortaz, emakumeak babesgabe sentitzen

> *Ez, nik izan dudan arazoa ez da arazo bat; besterik gabe, elkarteek eramaten dutena, paperak eta dena, nire nagusiak esan du bere gestoriara eramango duela aparte. Orduan, hor ez zaude elkarteari hain lotuta, jaun horren gestoriari baizik. Eta hor galdu egiten zara. (ET2, Espainiako nazionalitatea, 52 urte).*

Lan-bitartekotzako bide ofizialik ez izateak emakumeak babesik gabe uzten ditu mota guztietako abusu, xantaia, eta mespretxuen aurrean, baina haien osasunari eta lan-ibilbideari kalte egin diezaieketen gezurren aurrean ere bai.

Maríak, atzerritarra eta 67 urtekoa bera, kontatzen du zaindu beharreko andre zaharraren osasun-egoeraz gezurra esan zion familia bati hitz eman ziola. Aditzera ematen duenez, bi aste baino gehiago itxaron zuen andre hori zaintzeko lanean hasteko, beste hiri batetik Gasteiza etorri behar baitzuen bizitzera, eta bitartean beste lan-eskaintza batzuei uko egin zien, beste lanean kontratua eta Gizarte Segurantzako alta eskaini zizkiotelako. Iritsi zenean, ohartu zen familiak esan baino askoz larriagoa zela egoera, eta berak ezin ziela erantzun adineko andre haren beharrizanei. Lanari uko egin behar izan zion, estres-egoerak saihesteko, eta egindako lanagatik hitzartu baino gutxiago kobratuta. Honela azaltzen du:

40. Elkarte-izen zehatzik ez jartzea erabaki da.

> *Jaunak deitu zidan, elkarrizketa egin, eta esan zidan izeba ondo zegoela, lagun egitea baino ez zela, gaua osorik lo egiten zuela. Ez zidan aipatu berak duena, (...) hitz bat ere ez zidan esan horretaz (...) Eta, bueno, hori esan nionean, ezin nintzela hor egon, ezin nuela hor jarraitu, emaztea eta iloba haserretu ziren, eta esan zidan, "nola egingo dizugu hori?, zu ez zara hitzeko pertsona bat". Orduan esan nion, bai, baina andrea delikatua dago, eta eguna minetan ematen du, eta gauez ere ez du atsedenik hartzen, orduan, egunez arduratzen naiz, gauez arduratzen naiz, eta noiz daukat nik atsedenaldia?. Baina bera haserretu egin zen. Emandakoa ez zen eman behar zidana (diru-kopurua), baina ni, liskarrik ez sortzeko, ni biharamunean joan bai, baina ez naiz hemen gaixotuko. (E6, atzerriko nazionalitatea, 67 urte).*

Eztabaida-taldean parte harturiko bost langileetatik hiruk eta elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik hiruk diotenez, <u>sektore honetan lan-bitartekotzako erakunde ofizial eta publiko bat behar da, botere-abusuko egoerak gerta ez daitezen eta, gertatuz gero, toki bat egon dadin bi alderdien –enplegatuaren zein enplegatzailearen– eskubide eta betebeharrez galdetzera joatek</u>o.

## B. SEXU-INDARKERIA

<u>Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik seik salatu dute eskaintza sexualak jaso izana lan-bilaketan. Nabarmendu behar da gai hori atzerritar langileek soilik aipatzen dutela; hala, horrek adierazten du haiek direla horrelako abusua jasateko arrisku handiagoan daudenak</u>. Horrek ez du esan nahi Euskadiko edo Espainiako langileek horrelako egoerarik jasan ez dutenik, baina bai maizago gertatzen direla emakumeak ahultasun sozial eta ekonomikoko egoera handiago batean daudenean.

Lana bilatzeko Internet erabiltzen dutenek intsinuazio eta proposamen sexualak jasan dituzte, diru-trukean. Eztabaida-taldean, parte hartu zuten bost emakumeetatik bik gai hori nabarmendu zuten, eta haietako bat esan zuen estrategia batzuk sortuak zituela halako egoerei aurre egiteko; esaterako, gizonekin ez hitz egitea, bere burua etxeko lanak egiteko eskaintzen duenean.

Jarraian, emakumeen kontakizunak jasotzen ditugu:

> *Neska-lagun horrek egun batean esan zidan: "Zure argazki bat jarriko dugu, zuri ere deitzeko. Zu ere existitzen zarela ikusteko. Argazkia jartzearen gauza ona delako jendeak ikusten duela zu existitzen zarela". Nik esan nuen: "Ondo. Arrazoi duzu. Badu zentzua berak esaten duenak". (...) Hutsegite larria. Diren eta ez diren sadiko eta zoro guztiek deitu didate. (...) Deitu zidaten batzuek: "Begira, "X" deitzen den enpresa batean lan egiten dut, eta ez dakit zer...". Eta Nik: "Aiii!". "Eta zera, nire nagusiak ikusi zintuen, eta guk bideoak egiten ditugu. Eta bideo bakoitzeko, zazpi minutukoa, 700 € ordaintzen ditugu". Eta nik: "Mmmmm, noski. Eta bideoa zerena da?" Nik banekien zerena zen, baina... "Eta zerena da bideoa?". "Bueno, pelikula pornoena". (E1, atzerriko nazionalitatea, 34 urte).*

Sexu-indarkeriaren arriskuan etengabe egoteak, indarkeria arin zein larriak izan daitezkeela, babesgabetasun eta estutasuneko sentimendu bat sortzen du emakumeengan. Eztabaida-taldean, Marisak azaltzen du lana topatzeko premia duela, eta familiarteko bat oso gaixorik dagoela. Sexu-kutsua duten deiak etengabe jasotzeak –bera etxeko enplegu baten bila dabilenean, garbiketa- edo zaintza-lanak egiteko– badu eragina haren autoestimuan. Honela adierazten du:

> *Niri gertatzen zaidana da zerbitzu baterako abisuak jartzen ditudala, garbitzeko, zaintzeko, eta niri asko gustatzen zait lana, baina asko sufritzen dut dei gordinekin. Dei asko. Eta hor badago nahaste bat. Horrek asko jaisten du autoestimua. (ET5, atzerriko nazionalitatea, 48 urte).*

Jazarpenezko deiek era larrian eragin diezaiokete emakumeek beren buruaz duten ikuskerari. Irunek honela kontatzen du:

> *Interneten iragarkiak jarri, eta gauza arraroak esateko deitzen dizutenean, edo gauza arraroak proposatzeko, hasieran norbaitek kontatzen dizunean barre eragiten dizu apur bat, baina, noski, hori zuri gertatzen zaizunean, ez da barre egitekoa. (E12, atzerriko nazionalitatea, 33 urte).*

Ikerketa-prozesuan inplikaturiko antolakundeekin egin zen parte-hartzezko lantegian sexu-indarkeriazko ekintza horiek haserre bizia piztu zuten. Izan ere, halako jokabideen lekukotasuna ematen duten aipu batzuk hautatu dira:

> *Eta esan zidan: "Nik ez dut arazo ekonomikorik. Nik zuri, hain zuzen, zure arazo ekonomikoekin lagundu ahal dizut?" Eta nik: "Eta nola lagunduko didazu, ba, zuk? Zuk ez didazu lagunduko, nik lan egingo dudalako. Zuk ez didazu laguntzen. Lan bat da, eta ordainsari bat dago". "Nik dena ordainduko dut. Nik Gizarte Segurantza ordainduko dut. Kontratua eta dena. Baina, nik behar dut, noizean behin, neskak nire ondoan etzatea ohean". (E1, atzerriko nazionalitatea, 34 urte).*

Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeen artean, jatorriz atzerritarrak ziren bi emakumek esan zuten lan egiten zuten etxean ere sexu-indarkeria pairatu dutela.

Hurren, Danielaren lekukotasuna jasotzen dugu:

> *Orduan, ni saiatu arren berarekin hitz egiten, eta azaltzen venezuelar guztiok ez dugula gauza berean lan egiten, nahiz eta benetan gertatzen ari den zerbaitetan –venezuelar emakume asko horrelako gauzetan (prostituzioa) ibiltzen direla– oinarrituriko zurrumurru bat izan. Eta orduan ikusi nuen kontua okerrera egiten ari zela, nik haren nahia egiten ez nuenez, emazteari esaten ziolako gauzak faltatzen zirela, nik eramaten nituela. (E2, atzerriko nazionalitatea, 38 urte).*

Kasu horretan, administrazio-egoera irregularrean dago, eta horrek ahultasun handiagoko egoera batean jartzen du, premia ekonomikoa eta lan egiteko ezintasuna direla eta, haren herritartasun-eskubideak ukatuta edukitzeaz gain. Bizipena kontatzen jarraitzen du honela:

> *Noski, egia da agiririk ez dugun pertsonei ez digutela lanik ematen leku guztietan, inon ere ez ez esateagatik (barrez). Eta, bueno, gero lan bat lortu nuen oso jaun zahar bat zaintzen, eta hor bai, kopla itsusi samarra izaten hasi zen (E2, atzerriko nazionalitatea, 38 urte).*

Kasu horretan, zaintzen zuen jaunaren sexu-jazarpena jasan zuen, baina ez zuen nahi izan salatu edo familiari zerbait esan, bera salatuko zuten beldur:

> *Berak zerbait esan, eta bat-batean salatzen baninduen, ni bat-batean okerrago geratuko nintzelako. Nik Euskadiko legeak ezagutzen ez ditudanez, ez dakit zenbateraino esan dezakeen eta niri kalte egin. (E2, atzerriko nazionalitatea, 38 urte).*

Indarkeria-mota horri dagokionez, nabarmendu behar da "Azterketa kuantitatiboa emakume migratuek sexu-jazarpenaren gainean duten pertzepzioari buruz" deritzon lana, Getxoko "Mujeres con Voz"[41] elkarteak Euskadin egina 2014. urtean, Sortzen aholkularitza-enpresarekin lankidetzan, itxuraz gai tabua diren arazo horiek ikusgai jartzen eta aztertzen aitzindaria den lan bat, hain zuzen. Azterlan horretan, 122 emakume elkarrizketatu ziren (haietatik, erdiak etxeko barne-langileak ziren, eta laurdenak, kanpo-langileak), eta, nahiz eta estatistikaren aldetik lagina adierazgarria ez zen, emaitzak, bai, halakoak izan ziren: elkarrizketaturikoen % 22k aitortu zuen nolabaiteko sexu-jazarpena jasan izana bere lan-espazioan; eta % 27k esan zuen irain sexista, sexual eta/edo arrazisten biktima izan zela espazio publikoetan. Gainera, laginetik % 45ek aditzera eman zuen dei sexualak jaso izan dituela Interneten, iragarkien eta abarren bidez etxeko langile zerbitzuak eskaintzean. Bestalde, % 24k kontatu zuen, lan bat eskatzean, esaten zietela lanpostuak barnean hartzen zuela zaindu beharreko gizonekin *"lan sexualak"* egitea, hala nola *"masturbazioa antsietatea edo oldarkortasuna lasaitzeko edo sexua agureak edo gaixo mentalak lasaitzeko"* (Mujeres con Voz eta Sortzen, 2014, 46).

## C. BEREIZKERIAZKO TRATUA ETA ERAKUNDE PUBLIKOEN BABESIK EZA

Botere-abusu eta indarkeriazko egoerei gehitzen zaizkie **erakunde publiko batzuen babesik eza eta tratu bereizia etxeko langileentzat**. Elkarrizketetan, hemeretzi langileetatik hiruk aldarrikatu zuten espliziski erakunde publikoen babes handiago bat. Rominak honela adierazten du:

> *Etxeko langileak Estatuaren babesa izan behar du, arau argi batzuen bidez. (E3, nazionalitate bikoitza, 64 urte).*

Rominak bere esperientzia pertsonala kontatzen du jarraian. Enplegatzaileekin arazoak izan zituen, eta erabateko babesgabetasun-egoera batean aurkitu zen, erakunde publikoen aldetik informaziorik lortu ez zuelako. Honela agertzen du bere kontakizunean:

> *Bueno, etxeko langileek ez dute eskubiderik ez prestaziorik ez ezer (kitoa) jasotzeko. Orduan, Gizarte Segurantzara joan nintzen, eta inork ez ninduen ezertaz informatu, inork ez dizu ezer esaten… Dena da ezezaguna, den-dena. Orduan, polizia-sindikatura ere bidali ninduten. Eta polizia-sindikatukoek esan zidaten haiek ez zutela zerikusirik horrekin, ezer ez zidatela ordainduko etsi behar nuela, etxeko langileek ez dutelako ezertarako eskubiderik. (E3, nazionalitate bikoitza, 64 urte).*

**Erakunde publiko eskudunek eta Laneko Ikuskatzailetzak, etxeetan kontrol-mekanismorik ezin ezar dezaketen aitzakiarekin, toki intimo eta pribatuak direlako, ingurune bat sortzen laguntzen dute, non baitirudi *"denak balio"* duela, sektorea ia erabateko inpunitatean utzita**. Legea betetzen ari den ala ez kontrolatzeko ezintasunak (borondaterik eza, hobeto esanda) zigortzeko ezintasuna dakar berekin, eta, hortaz, babesgabetasun-egoera bat sortzen du, eta emakumeak ahultasun-egoera batean jartzen ditu.

**Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik hiruk eta eztabaida-taldeko bost parte-hartzaileetatik bik aipatu zuten sektoreko kontrolik eza**. Hala, salatzen da, baldin Laneko Ikuskatzailetzak bere lana egiten ez badu eta inork ez badu kontrolatzen etxeen barruan gertatzen dena, arauak betetzea kontratatzaileen aukeramenaren mende geratzen dela.

41. Elkarteak emakume migratzaileen eta autoktonoen arteko topaketak sustatzen ditu, emakumeen ahalduntzea lortzeko xedez, eta askotariko emakumeen bizikidetzaren erreferentzia-puntua izan nahi du, kulturen arteko trukearen bidez.

Leirek honela adierazten du:

> *Kontratu-mota horiek kontrolatzea konplikatua da, izan ere. Ordu estrak egiten badituzu edo ordua baino beranduago joaten bazara, pixka bat zera da, kontrolatzen zaila, ze batzuek onartu egiten dizkizute, baina beste batzuek ez, berdin zaie ordua baino beranduago irteten bazara edo denbora gehiago geratu behar baduzu. Orduan, ez dakit, egia esan. Etxeak, azken batean, ez dira enpresa bat bezalakoak, hor hainbat langile daudelako. Konplikatuagoa, bai. (E14, atzerriko nazionalitatea, 22 urte).*

Lana etxebizitza pribatuetan egiten da, eta etxeen pribatutasuna argudiatuz, haietan kontrolak egitea eragotzi eta mugatu egiten da. Hori alda liteke, borondate politikoa egonez gero, Maitek, eztabaida-taldeko parte-hartzaileetako batek, dioen bezalaxe:

> *Poliziari eskaera bat egitea, ikuspuntua alda dezaten eta etxebizitzen barruan ikuskapenak egin ahal izan dezaten. (ET5, atzerriko nazionalitatea, 50 urte).*

Langileek erabat babesik gabe egoteko duten kontzientziak are ahultasun-egoera handiago batean jartzen ditu. Badakite, jakin ere, enplegatzaileak legea errespetatzen ez badu, haiek ez dutela sostengu instituzional bat; ondorioz, negoziatzeko botere eta gaitasuna murrizten dien babesgabetasun-egoera batean aurkitzen dira.

Aintzanek honela azaltzen du:

> *Administrazioak ez ditu arau argi batzuk jarri, eta neurri batean nahitaezkoa ere ez da. Ze, pentsa, etxeko langilearen alta egiten ez baduzu, langileak salatzen ez badu, ezer ere ez da gertatzen. Eta salatzen badu, nik salatu duen bat ezagutzen dut eta, baina frogak eraman behar ditu. Orduan, kontua da ez dituztela hainbeste zigortzen. (E3, nazionalitate bikoitza, 64 urte).*

<u>Babesgabetasun eta ahultasuneko egoera hori larriagotu egiten da emakumeak migratuak direnean eta</u> herrialdean egoera irregularrean daudenean.

Danielak ez du bizileku-baimena, eta honela azaltzen du:

> *(Estatuari buruz) Emadazu askatasuna… Eta horrelako gauzak saihestuko dituzu, hutsaren hurrengo sentitzea, ezin duzulako hitz egin, ezin diozulako inori ezer esan, beti zeure burua babesten ari zarelako, zer gertatu ahal zaizu ez dakizula. Polizian esan egiten dizute: ezin zara egon gauza asko dauden tokietan, jaietan… Zeozer gertatuz gero, preso sartu ahal zaituzte eta… Azkenean, nola erreklamatuko duzu ezer?*
>
> *Inork ikuskatzen ez duelako. Ez da polizia sartzen: badaukazu ilegal bat hemen? Taberna batean, ordea, edonon, ikuskapena sartzen da eta polizia sartzen da. Eta ilegal bat badago, lokalari isuna jartzen diote. (E2, atzerriko nazionalitatea, 38 urte).*

Emakumeak beldur dira, eta ahultasun-egoera batean sentitzen dira, ezin dutelako salatu. Danielak eta Isabelek honela azaltzen dute:

> *Baita ere, guk agiriak eskatu ditugunez, noski, esaten dizute ezin duzula lanik egin. Orduan, nik esaten badut: jaun batek errespetua galdu dit lanean nengoen eta; esango didate: zertan dabiltza zu lanean, zuk ezin baduzu lanik egin? Orduan, alde guztietatik harrapatuta zaude. Ez duzu ezertarako eskubiderik. (E2, atzerriko nazionalitatea, 38 urte).*

*Hau da, ez duzu nahi. Ez ezazu nahi izan. Salaketa jartzera ezin zara joan eta. Hau da, zu iristen zarenean, zeure dirua nahi duzu. (E1, atzerriko nazionalitatea, 34 urte).*

## 5.1.5. Enplegatzailearekiko harremana

Langileen kontakizunetatik ondorioztatzen da lan horiek egiten diren zirkunstantziek badutela eragina haien esperientzietan eta bizi-kalitatean. Faktore nagusiak ez dira ordutegiak, lansariak eta zereginak soilik, lan-ingurunea eta lana egiten den etxeko familiarekiko harremanak ere badira garrantzitsuak.

Horri dagokionez, ez da ahaztu behar lan hori ez dela egiten egoitza edo bulego batean, baizik eta pertsonen espazio intimoago batzuetan, etxeetan, eta, familiarteko harremanak oso harmonikoak iruditu arren, toki intimo horietan karta guztiak jartzen direla agerian, mozorroak uzten direla, eta familiarteko haserre, antagonismo eta arazoak adierazten direla. Egoera horri begiratzen bazaio kontuan izanez eguneroko bizitza eta bizitza soziala, oro har, eszenaratze bat dela, Erving Goffman soziologoak (1969) dioenez, espazio horri familia-harremanen eta gizarteen *back stagea* dela iritzi ahal zaio. Hartara, langileek hain intimoak, hain familiartekoak, diren espazio horien erdian aurkitzen dute beren burua, familia izan gabe, eta zeregin jakin batzuk egiteko kontrataturiko pertsona batzuk baino ez direla.

Esan behar da orobat badaudela familiak etxeko eta zaintzako lanaren garrantzia aitortzen dutenak, etxeko langilearekin harreman ona izaten dutenak, haien lana eskertzen eta haien lan-eskubideak errespetatzen dituztenak. Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik zortzik esplizituki esan zuten aitormena jasotzen zuten etxeetan lan egin zutela noizbait, errespetuan oinarrituriko pertsonarteko harreman batzuk sortuta. Era berean, eztabaida-taldeko sei parte-hartzaileetatik bik zaindutako pertsonekin ezarritako harremanez hitz egin zuten, eta haiek zoriontsu ikusteak sortzen zien atseginaz.

Hain espazio intimoan pertsonekin harremanetan lan egitean, askotan zainduaren eta zaintzailearen arteko harreman pertsonalak sortzen dira. Aztertzen hasi gabe harreman horiek zein oinarritan ezartzen diren, ea benetakoak ala interesatuak diren, aipatu behar da zenbait kasutan langileek beren eskubide urriei uko egiten dietela eta/edo ez dituztela erabiltzen etxean ezartzen den nahitasun-harremana dela bide. Hona hemen lekukotasun batzuk:

### A. MUGAK JARTZEKO ZAILTASUNAK

Zenbait kasutan, etxeetan bizi izaten diren egoerak guztiz intentsuak eta delikatuak ere izan daitezke, eta zaila izaten da mugak jartzea lan-esparruaren eta esparru pertsonalaren artean, hitzarturiko zereginen eta sortuz doazen zereginen artean. Enarak hau kontatzen du:

*Ni han nengoela, nik ez nekien eta, ze, noski, nire ugazabandrea da, ni ezin naiz joan eta esan, zera dago... Bera mozkortuta zegoen. Alabek eta nik bagenekien edaten zuela, baina zu ere lotsaz-edo isiltzen zara. Ni ezin naiz ugazabarengana joan eta esan: "zure emaztea alkoholikoa da, zure emaztea..". (...) Noski, ni sufritzen, neskak sufritzen. Niri arazoak sortzen zizkidan ugazabarekin. (E17, atzerriko nazionalitatea, 43 urte).*

Emakume hori 3 neska zaintzeko eta etxeko lanak egiteko kontrataturik zegoen. Nesken ama bere buruaz beste egiten saiatu zenean eta ugazabak egoeraren berri jakin zuenean, langileari errieta ere egin zion, emaztea ez zaintzeagatik.

> *Eta nik gero esan nion: baina nik ez dut egon behar berari adi, bera ez delako neskato bat. Ni hemen etxea garbitu, arropa lisatu eta neskak zaintzeko nago. Nik ezin dut zaindu pertsona bat, nire ugazabandrea. Ezindutako pertsona bat balitz, bai, baina nik ez dut zertan ibili ez edateko esaten. (E17, atzerriko nazionalitatea, 43 urte).*

### B. *SURPLUS* EMOZIONAL BAT ESKATZEA

<u>Alderdi enplegatzaileak etxeko langileei *surplus emozional* bat eskatzen die</u> (Gutiérrez Rodríguez, 2010, 2013), <u>familiako kide gisa joka dezaten eta arreta berezia jar dezaten zaintzen duten eta/edo mendekotasuna duen pertsonarengan, berarekin lotura emozional berezi bat duen familiarteko baten eran</u> (Anderson, 2000; García Castro, 1993).. Etxeek oso soldata txikia ordaintzen dute, eta gainerako sektoreetan baino lan-eskubide murritzago batzuk eskaintzen dituzte, pertsona bat kontratatzeko, lan fisikoa (lisatu, garbitu, janaria prestatu) egin behar duena eta, horrez gain, lan emozional eta afektibo bat aurrera eraman (hezi, lagun egin, mimatu, estimulatu), psikologoa, pedagogoa edo hezitzaile soziala balitz bezala. Kasu askotan, aldez aurretik ziurtzat ematen da afektuzko *surplus* hori, lan zehatz bat denean, maila handiko inplikazio emozional eta afektibo bat behar duena.

Pertsonarteko harreman guztietan bezala, zenbaitetan afektuak berez sortzen dira, eta beste batzuetan, ez. Cristina Vegaren hitzak gogora ekarriz (2009), zaintza-lanak egitea eta jasotzea bi ahoko ezpata izan daiteke, eta sentimendu positiboak zein negatiboak sor ditzake, autokonplazentzia zein altruismozkoak, beharkizun zein nahitasunezkoak.

<u>Elkarrizketaturiko emakumeetatik seik eta eztabaida-taldeko parte-hartzaileetako batek pozik eta harro kontatu dute nola zaindutako pertsonek haien izateko eta lan egiteko era estimatzen duten</u>. Maríak azaltzen du zaintzen zuen adineko emakumeak berak zaintzea nahiago zuela, alaba erizainak baino, eta egiten duen lanaren kalitatea nabarmenduz adierazten du. Honela kontatzen du:

> *Andrea gaixo zegoen, makal samarra, eta sabelean injekzio batzuk jartzen zizkioten; minetan sufritzen egoten zen, eta nik injekzioak jartzen nizkion. Azkenean, bada, neuk injektatzea nahi zuen, eta ez erizaina zen alabak, ni oso kontuz ibiltzen naizelako. (E6, atzerriko nazionalitatea, 67 urte).*

Enarak harro azaltzen du etxe batean jarri zuen inplikazio emozional eta fisikoa. Hiru neskato zaindu, etxea garbitu eta bazkariak eta afariak prestatzeko kontratua zuen, baina berebiziko era batean inplikatu zen haurretako batekin, gaixorik baitzegoen, eta nabarmen hobera egitea lortu zuen:

> *Neskatoak (txikiak osasun-arazoak zituen) zapladak ematen zizkidan niri, itzuli egiten zizkidan, gainera. Eta, noski, nik uste dut gurasoengatik zela... gurasoen arreta erakartzeko. Eta nik esan nien gurasoei hain goiz ez igotzeko. (...) Eta gogor jarri nintzen neskatoarekin. (...) Eta hobera egin zuen, hura gainditu zuen, eta medikua... zur eta lur geratu zen, neskatoa hilabete eskasera jaten ari zelako. Baina arazoa zen... nik esaten nion gurasoek maina gehiegi egiten ziotela. (E17, atzerriko nazionalitatea, 43 urte).*

Jarrera horiek badute lotura zaintzaren ezaugarriekin berekin; hain zuzen, esan dugunez, zaintza multidimentsionala da (Carrasco, Borderías eta Torns, 2011), eta hartan oinarrituta sortu da emakumeen identitatea. María Jesús Izquierdok dioenez (2003), badirudi emakumeen baliozkotasuna zaintza hori jasotzen duten pertsonen aitormenaren mende dagoela.

Gainera, langileek aipatzen dute kasu batzuetan zuzenean gurasoen *"etxekoandre"*-rola ordezkatzeko kontratatzen dituztela, etxearen antolaketan nahiz seme-alaben heziketan (elikadura-heziketaren aldetik, batik bat). Maitek honela kontatzen du::

> *"Ez, etxea eraman, zeuk eramaten duzu". Bi ordu eta erdi diren arren, nik… Berak ez daki (ezer), garbiketarako gauzak, dena. Eta, orduan, neskak berarekin daudenean, noski, apetatsu bihurtzen dira … Nirekin dilistak jaten dituzte, nik ekartzen ditudan gauzak dira. Orduan esaten dut: "Amaya (nagusia), zu hemen egongo zara bajan, baina zuk ez didazu hondatuko nik haiekin aspalditik egiten ari naizena…", "Bai, bai, bai, ez, nik esaten diet hemen zeuk agintzen duzula, eta are gehiago gu ez gaudenean". Bueno, ba neskek errespetua didate… (E18, nazionalitate bikoitza, 51 urte).*

Leirek harriduraz kontatzen du etxe batean haurren ama sentitzen zela.

> *Eta, noski, han nengoenez, haurrez ez ezik, gurasoez ere arduratzen nintzen. (…) Batzuetan, haurra bostetan edo, batzuetan, gaizki zegoenean, lauretan jaikitzen zen, eta nik jaiki behar izaten nuen. (…) Haurrak negar egiten zuenean, edo zerbait nahi zuenean edo gaixorik zegoenean, ba gauean oso txarto pasatzen genuen. Bueno, batez ere nik, gurasoek lan egiten zutelako, biak medikuak. Orduan, oso goiz jaikitzen ziren lanera joateko. Eta ni neu jaikitzen nintzen, bai. (E14, atzerriko nazionalitatea, 22 urte).*

Azpimarratu behar da elkarrizketaturiko emakumeetako baten kontakizuna, **bera baita bakarra aldarrikatzen duena etxeko eta zaintzako lanetan jardutea, egiten diren zereginetan *surplus emozional* eta nahitasunezkorik jarri behar izan gabe**. Matxalenek elkarrizketan aipatzen du berak ez dituela oso aldi luzeak egiten enpleguan, emakume bereziki maitekor bat ez delako. Azaltzen duenez, etxeetan adineko pertsonak zaintzen jarduten du, eta horregatik maitekorra izateko eskatzen diote, berari berez ateratzen zaion baino maitekorrago. Honela kontatzen du:

> *Seme gazteak esan zidan amarekin hitz egin, eta ez zegoela ondo-edo, ez zegoela pozik nirekin, mimatu egin behar zela, haurrak bezala, eta, bueno, ondo ba, horregatik kaleratu ninduten. (E10, Espainiako nazionalitatea, 45 urte).*

### C. BOTERE, MENDERAKUNTZA ETA KONTROLEKO HARREMANA

Gauza ziurtzat ematen da etxeko langileek egin behar dutela enplegatzaileak esaten eta nahi duen guztia, agintzen eta obeditzen duenaren arteko botere-harreman batean.

Isabelek honela kontatzen du:

> *Jende asko zen, eta eskakizun asko ziren. Arropa, honela. Janaria, honela. Badakizu? Hau garbitzen da honela. Ikus dadila honela. (E1, atzerriko nazionalitatea, 34 urte).*

Etxeetan pertsonen mania eta obsesio guztiak agertzen dira. Bridget Andersonek (2000) eta Helma Lutzek (2002) diotenez, pertsona askok etxeko langileak premiagabeko lanez kargatzen dituzte apetaz, maniaz, eta ez beharrez.

Honela kontatzen du Matxalenek:

> *Batzuek kuleroak ere plantxarazten zizkizuten, baina, bai zera, nik flipatzen nuen, baina hori zertarako, maniak, maniak edo zu izorratzeko, ez dakit jende hori zu izorratu nahian dabilen edo zu baino gehiago sentitzen diren. Batzuk sentitzen dira, ez dakit, "neskame bat daukat eta", baina ez dakit. Beste batzuek, ordea, normal tratatzen zaitu, parekotzat, baina beste batzuek, zaborra bazina bezala, badakizu? Hor zatoz zu haren kaka garbitzera, eta kito. (E15, Espainiako nazionalitatea, 45 urte).*

## D. BARNE-LANGILEAK, INDARKERIA-EGOERAK LARRIAGOTUTA

Indarkeriazko egoerak –etxeko enpleguan indarkeria hori jabekuntza, menderakuntza eta kontroleko harremanaren bidez gauzatzen dela– larriagotu egiten dira barne-langileen kasuan; esparru horretan, hain zuzen, emakumeak are babesgabeago sentitzen dira, eta daitekeena da alderdi enplegatzaileak alderdi enplegatuaren gain ezartzen dituen hierarkia horiek eta nagusitasun hori are nabarmenagoak izatea. Lan-baldintzen alderdi nagusiak hauek dira: emakumeen bizitzaren gaineko kontrola; eta emakumeen pribatutasunik eza (Anderson, 2000; Phizacklea eta Anderson, 1997).

Elkarrizketetan lau emakumek, atzerrikoak zein autoktonoak tartean, hitz egin zuten barne-langile jardutean izan zituzten esperientziez eta beren gainean nabaritzen zuten kontrolaz.

Irune emakume migratua da, eta haren kasuan enplegatzaileak haren gain erabiltzen zuen menderakuntza hain zen handia, non ez baitzion uzten ez atsedenaldirik, ez oporrik izaten:

> *Ez didate utzi (oporrak hartzen), ezetz esan didate. Eta ni oso txartu geratu naiz, lanean geratu naiz, abenduaren 24-25ean, eta 25ean nire bi orduak ditut, beti bezala, eta esan diot: "baina zertxobait gehiago ordainduko didazue", "ez, ezer ez, edo lan egiten duzu edo alde egiten duzu" (...) Esan zidaten Urteberria emango zidatela jai, baina eguna hurbiltzean, orduan ere ez, ez didate egun bat ere uzten, ez 31, eta 1a, beti bezala lan egin behar dudala (…) Asko aprobetxatzen dira. (E12, atzerriko nazionalitatea, 33 urte).*

Bestalde, Isabelek azaltzen du barne-langile kontratu bat zuela, biki batzuk eta etxea zaintzeko, hilean 800 euroan, Gizarte Segurantzarik gabe eta aparteko ordainsaririk gabe. Kontatzen du ugazabandreak neurrigabeko botere eta kontrol bat erabiltzen zuela beraren gain:

> *"Baina, zoaz haurrekin jolastera! Zer egiten duzu hor eserita!". Nik: "Bueno, bale!" Baina nik ez nuen heldurik ikusten haurrekin jolasean. Eserita zeuden. Nik: "Bale". Ez nekien haurrekin jolastu behar nuenik. Bueno, haurrekin jolasean-eta hasi nintzen. Eta haurrak zikintzen baziren, andreak: "Tori, garbitu! Zuri dagokizu eta!" Baina, eta honi zer gertatzen zaio? Hahaha. Horrelako jarrera zuen, garbi itzazu! Zuri dagokizu eta! "Zaindu haurrak!" Eta berak ezer ez, baina ez dut haren jarrera ulertzen. Baina, bueno, haurrek ezer arrarorik ikustea ere ez nuen nahi…". (E1, atzerriko nazionalitatea, 34 urte).*

Zenbait kasutan, emakumeen bizitzen kontrolak indarkeriazko egoerak sortzen ditu, enplegatzailearen aldetik, Matxalenek salatzen duenez:

> *Ba, begira, atsedenaldiko 2 orduetan irteten nintzenean, ni batzuetan 10 edo 15 minutu berandu iristen banintzen, protestaka hasten zitzaizkidan, eta ea nora joaten nintzen galdetzen zidaten, norekin egoten nintzen, zer egiten nuen, nik ez dakit zer. Eta nik lanetik kanpo nahi dudana egiten dut. Halako batean pisu bat hartu nuen, noski, ordu horietan ez nintzen egunero kanpoan egongo, libre nituen ordu horietan, alegia. Batzuetan euria egiten zuen, eta nor ibiliko zen kanpoan, ba?, eta gela bat alokatu nuen, eta hara arropa eramaten ari nintzela, arropa ateratzen ikusi ninduen berak, eta lapurra izatea leporatu zidan, bai. (E10, Espainiako nazionalitatea, 45 urte).*

Beste indarkeria-kasu batzuk gertatzen dira, enplegatzaileek langileek zer jaten duten kontrolatzen duenean; areago, batzuetan, behar adinakoa ez den elikadura bat ematen diete. Horren inguruan, Martaren kontakizuna ekarri dugu:

> *Bat nazkagarri hutsa zen, egunero ogia erosten zuen, berak ogi lehorra ematen zidan, eta berak ogi berri guztia jaten zuen, eta esaten zuen... eta nik halako batean esan nuen: "zeuk ikusi, nik lotsa hau galduko dut". Bazkaltzen hasi ziren, eta ni sukaldean nengoen; haiek jangelan bazkaltzen zuten, eta nik, sukaldean (…) Eta joan nintzen ogia neramala: "begira, zu zara etxeko jauna, ezta?" "Bai". "Hartu ogi hau". Eta esan zuen, "hara, hau oso gogorra dago". "Ba horixe ematen dit egunero zure emazteak, hor gaurko ogia egonda", eta senarrak errieta egin zion, esan zion: "hori ez dago ondo, ze zure seme-alabei", lau seme-alaba zituen, "ogi zaharra emateko gauza ez zara, eta neskameari bai, zure seme-alaben ahoa bezalako ahoa du berak". Eta kalera bota ninduen. (E11, Espainiako nazionalitatea, 66 urte)..*

Beste batzuetan, zenbat aldiz dutxatzen diren edo ilea lehortzen duten ere kontrolatu egiten dute, Irunek kontatzen duenez:

> *Nik lan egiten nuen lekuan, jaunak esaten zidan: ez dutxatu hor, eta ez ezer, ezta ilea lehortu ere. (E13, atzerriko nazionalitatea, 33 urte).*

Emakumeen gain erabiltzen den indarkeria eta muturreko kontrola dela bide, emakumeak presiopean eta itota sentitzen dira. Askotan, intimitate-espazioak ez dira errespetatzen, badirudi betiere prest egon behar dutela etxeak eskatzen duen guztirako, eta oso lasaitasun-une gutxi izaten dute egunean zehar indarrak berritzeko. Martak azaltzen du atsedenerako une bat zela tokiko establezimendu batera ogitartekoa jatera joaten zenean, etxean oso presionaturik eta kontrolaturik sentitzen baitzen.

> *Neure onetik ateratzen ninduen. Ezkutuan joaten nintzen jatera, txinatarrenera, ez, zer zen hura? Coviran supermerkatu batera, hara joaten nintzen jatera, eta gizonak esaten zidan: "eseri hemen". Mutil gazte bat zen, sartzen eta irteten zen jendea kontrolatzen zuena, eta han hartzen nuen garagardoa, Coca-cola, eta ogitartekoa, han egoten uzten zidan mutilak, eta huraxe zen nire lasaitasun-unea. (E11, atzerriko nazionalitatea, 66 urte).*

Indarkeriazko egoera horiek ageri diren beste arlo bat da **ostatu-baldintzena, desegokiak baitira eta inolako pribatutasunik ez baitute** etxeko langileentzat. Zentzuak esaten digu etxebizitza batean etxeko barne-langile bat lan egitekoa bada, banako gela bat eman behar zaiola, atseden hartzeko ohe egoki batekin, armairu batekin, eta giltzadun ate batekin, pribatutasuna ziurtatzeko. Gertatzen dena da, baina, enplegatzaile batzuen irudimenean barne-langileak mendekotasuna duen pertsona zaindu behar duela eta hari adi egon behar duela 24 orduetan, eta horregatik ez du eragozpenik ikusten biek elkarrekin lo egiteko. Leirek, elkarrizketaturiko emakumeetako batek, eta gorputz-lantegiko parte-hartzaile batek egoera hori pasatu dute.

> *Bai, gela berean eta ohe banatan lo egiten genuen. Eta bai, hainbatetan jaikitzen nintzen. Andreak amesgaizto asko izaten zituen, eta, alzheimerra zuenez, batzuetan ibiltzera-eta jaikitzen zen; lo egitea, beraz, nahikoa txarto. (E14, atzerriko nazionalitatea, 22 urte).*

Matxalenen kasuan, banako gela batean lo egiten zuen, baina walkie-talkie bat zeukan, adineko andrearen mugimendu orori adi egoteko. Jakina, langilearen atseden hartzeko eskubidea, aintzat hartu ere ez. Honela kontatzen du:

> *Berak oihu egiten zuen ordu guzti-guztietan, nik goian eta berak behean lo egiten genuelako, baina bazuen walkie-talkie bat, haurrena bezalakoa, eta goian neukan, eta beti bera entzuten zen behean. Eta batzuetan behera joateko esaten zizun, etxean argia zegoela, argia piztuta zegoela, edo gizon bat edo norbait zegoela; horrela, eta ez zizun lo egiten uzten. (E10, Espainiako nazionalitatea, 45 urte).*

## 5.2. 2. helburua. Etxeko enpleguko lan osasunean, fisikoan zein mentalean, sakontzea

Zaintza-lanetan diharduten pertsonak –erizainak, erizaintzako laguntzaileak edo ELZko langileak kasu– eta garbiketan dihardutenak –eskailerak edo eraikinak eta espazio publikoak garbitzen– Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen barruan (LAPL) sartzen dira, eta prestakuntza jaso dute beren lana egitean osasunerako sortzen diren arriskuei buruz. Etxeko langileek, ordea, lan horiexek berak egiten dituzte etxeetan, eta ez dute inolako informaziorik edo prestakuntzarik jasotzen. Ez dago betebeharrik, ez eta horren ardura duten erakundeen, hala nola Laneko Ikuskatzailetzaren edo OSALANen, asmo errealik ere, laneko arrisku horiek prebenitzeko.

Hori gutxi balitz, salatzeko modukoa da zer zailtasuna duten, esparru legal zein sozialean, langileek lanbide-gaixotasuneko baja edo lan-istripuko baja hartzeko, zuzeneko arrazoia lan-jarduera izan arren edo istripua lantokian gertatu arren. **Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik zortzik eta gorputz-lantegiko sei parte-hartzaileetatik bik esplizituki esan dute arazoak izan dituztela, enplegatzailearekin eta/edo osasun-erakundeekin, lan-istripuko, lanbide-gaixotasuneko edo gaixotasun arrunteko baja hartzeko**. Gain honen inguruko kontakizunetan alde handirik ez badago ere Espainiako nazionalitatea, atzerrikoa edo nazionalitate bikoitza dutenen artean, kasu larrienak atzerriko jatorria dutenek eman dituzte aditzera.

Maitek, aldi berean, zerbitzu-enpresa batentzat etxez etxeko laguntzan dihardu eta etxe partikular batean etxeko langilea da. Joan den neguan gripe gogor batekin gaixotu zen, eta, egoera horren aurrean, enplegatzaileak honela erantzun zuen:

> *(Medikuak) eman zizkidan 15 egun horietan, bajan egon nintzen enpresan, eta andreak nahi zuen nik lan egitea. Begira, esan nion: nola nahi duzu nik lan egitea? Enpresak ikusten banau, isuna jarri, eta bota ere egingo nau, eta zure lanagatik. Berak deskontatu egin zizkidan 15 egun horiek. (E5, atzerriko nazionalitatea, 50 urte).*

Honela azaltzen dute Ainhoak eta Enarak, hurrenez hurren:

> *Sudurretik operatu ninduten enpresaburuen etxean nengoen garaian, eta bai, baja hartu behar izan nuen, eta bai, lan egin izan banu bezala ordaindu zidaten, arazorik gabe. (Eta presioa egiten zizuten itzultzeko?) Bai, bai. Etengabe deitzen zidan, ea noiz joango nintzen. Ahal izan nuen bezain laster joan nintzen, goiz joan nintzen, alta eman baino lehen. (E16, Espainiako nazionalitatea, 65 urte).*

> *Istripua izan nuen nire etxean, eta zauria egin nuen hemen (bekainean). Ni ezin naiz honela joan lanera. Eta, noski, zera egon nintzen… baja eman zidaten. Astebeteko baja eman zidaten, eta ni ezin nintzen joan. Eta nagusiak deitzen zidan: noiz etorriko zara, alkandora bat ere ez daukat plantxatuta eta? (…) Nire beharra zuten erabat. Esaten zidaten: "ez gaixotu, mesedez". Nik esaten nuen, baina ni ere pertsona bat naiz. Orduan niri hori, hor gertatzen zela ikusten nuen guztia… migrainak ere izan nituen. (E17, atzerriko nazionalitatea, 43 urte).*

Esaterako, Batirtzek eta Leirek hurrengoa kontatzen dute:

> *Ez, ez zidaten lanbide-gaixotasuntzat aitortu. Bati ez diote ezer galdetzen. (GL6, atzerriko nazionalitatea, 36 urte).*

> *(Medikuarengana joan zinen?, esan zenion minak lanarekin zuela zerikusia?) Ez, ez zidan galdetu, baina ibuprofenoa zuten antiinflamatorioak bakarrik errezetatzen zizkidaten, eta beste gauzaren bat. Bizkarreko arazoak dauzkat beti, beti. Arropa lisatzea ere mugitua da; bizkarreko min handia ematen dizu, gerrialdekoa, eta, bai… (…) Bizkarrean eta besoetan. (E14, atzerriko nazionalitatea, 22 urte).*

Nabarmendu behar da langileak ez direla errespetatuak sentitzen. Ahaldunduta daudenean, kontziente dira zer eskubide dituzten, eta erabili egin nahi dituzte. Clarak salatzen duenez:

> *Medikuarengana joan nintzen antsietate-krisi batekin, mutilarekin arazo bat izan eta gero, errespetua ikaragarri galtzeagatik liskarra izan eta gero. Eta medikuak baja eman zidan, baja arrunt bat, gaixotasunagatik. Baina ni ez naiz pertsona gaixoti bat, eta ez naiz izan. Laneko egoera batek eragindako baja bat da... (E4, nazionalitate bikoitza, 62 urte).*

Lanbide-gaixotasuneko edo lan-istripuko baja hartzeko etxeko langileek topatzen dituzten oztopoen artean dago, nahiz eta baja hartu nahi duten eta horretarako arrazoiak dituzten, ezin dutela bajarik hartu, *SEEH* sisteman aseguraturik ez daudelako eta idatzizko kontraturik ez dutelako. Honela ematen du aditzera Leirek:

> *Ezin nuen baja hartu, kontraturik ez nuelako (...) Orduan, diru-sarrera berak izaten jarraitu nahi banuen, ba, lanean jarraitu behar nuen, bizkarreko mina edukita ere. (E14, atzerriko nazionalitatea, 22 urte).*

Leirek arrazoi ekonomikoengatik ezin zuen lana utzi, ez zuen eskubiderik baja ordaindua izateko, eta, azkenean, estreseko eta gainkarga fisiko eta emozionaleko egoera batean sartu zen, ondorio larriak ekarrita azkenean.

> *Ikasketen, eta lanaren, eta bizitza pertsonalaren estresa zen, eta azkenean (menstruazioaren nahasmendua izan zuen) hormonak hartzen nituen, baina hilekoa erregulatzeko pilula bat zen, eta burdina, hilekoa ez nuen hilabetean. (E14, atzerriko nazionalitatea, 22 urte).*

Horrez gain, langileak beren beharrizanak alde batera uztera beharturik sentitzen dira, beren osasuna arriskuan jartzeraino ere. Adibide batzuk aipatuko ditugu.

Rominak parkean eroriko bat hartu zuen, neskato bat zaintzen ari zenean, ihesean zihoan eta. Beldur zen, hurbil errepide bat zegoelako, eta neskatoari heltzera joan zen korrika, erori, eta orkatila bihurritu zuen. Beldurra, presioa eta/edo errudun-sentimendua zela bide, ez zuen nahi izan baja eskatu, eta enplegatzaileak ere ez zion proposatu ospitalera joateko. Hala, lanera joaten jarraitu zuen, oina hanturik zeukala. Eta azaltzen du:

> *Ikusi nuenean ni ezin nintzela ibili, esan nuen: ezin naiz lanera joan, ezin naizelako ibili. "O, ederra egiten didazu, bada…". Esan nion: "bueno, ba asko sentitzen dut, baina ezin naiz ibili". Baina igeltsua jarri zidatenan, nik banekien luzerako zela. Orduan, igeltsua jarri zidaten, eta oraindik eman nion aukera, ni joan nintekeela. "Nahi baduzu, alabarekin joango naiz, alabak gauzak egiteko, eta ni eseri egingo naiz…". (E3, nazionalitate bikoitza, 64 urte).*

Presioa hain da handia, non langileak eskaintzen baitu alabak ordezka dezan, enplegatzaileari *"ederra"* ez egiteko. Elkarrizketetatik ondorioztatzen da jokabide hori ez dela harritzekoa, sektore honetan, langilea bajan dagoenean, bidegabeko kaleratzeak ohikoa baitira.

Langileei gaixotasun- edo istripu-bajarako eskubidea nahiz autozaintzarako eskubidea aitortzeko deskribaturiko arazoez gain, kontuan izan behar dira lantokietan dituzten arriskuak, alegia, enplegatzaileen etxeetan.

Lehen ikusi dugunez, sektore hau LAPLtik bazterturik geratzen da. Gutxiespen historiko eta sozialaren ondorioz, ez dago kontzientziarik, gainera, etxeko eta zaintzako lanak langileen osasun fisiko eta mentalerako dituen arriskuez.

Etxeko langileei doazkien arriskuak bi taldetan banatu ditugu:

I. **Osasun fisikoa:** zaintza-beharrizanetarako eta langileen osotasun fisikoa bermatzeko egokitu gabeko etxebizitzak; ahitze fisikoa; mendekotasuna duen gaixo mentalaren erasoak; produktu kaltegarri eta arriskutsuen manipulazioa.

II. **Osasun mentala:** estresa; autoestimu-falta eta depresioa; egokitasun emozionalik eza, mendekotasuna duten pertsonei laguntzearen ondorioz.

## 5.2.1. Osasun fisikoa

### A. ZAINTZA-BEHARRIZANETARAKO ETA LANGILEEN OSOTASUN FISIKOA BERMATZEKO EGOKITU GABEKO ETXEBIZITZAK

Etxez etxeko laguntza zerbitzuan (ELZ) edo etxeko enpleguan zaintza-lanak egitearen arteko alde handietako bat da **etxeko langileek lan egiten duten etxeak ez daudela egokiturik lan-mota horretarako, ez eta ase behar dituzten zaintza-beharrizanetarako ere**.

Elkarrizketaturiko emakumeek kontatzen dutenez, etxe batzuetan oso zaila da eguneroko zereginak aurrera eramatea. Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik bostek, eztabaida-taldeko bost parte-hartzaileetatik hiruk, eta gorputz-lantegiko sei parte-hartzaileetatik lauk gai hori aipatu zuten.

Esaterako, egokiturik ez dagoen bainugela batean gaixorik dagoen pertsona egunero dutxatu, garbitu eta arropaz aldatzea izugarri lan zaila izan daiteke langile batentzat, eta erorikoak, kolpeak, lesio muskuloeskeletikoak, eta abar hartzeko arriskuan jartzen du langile hori. Horri dagokionez, Irunek hau kontatzen du:

> *Nik bainugelara eraman, eta berak konketari heldu behar zion, nik prakak eranzteko, garbitzeko-eta, eta bainugela hain zen txikia eta nik hain estu egon behar nuen, ze batzuetan pentsatzen nuen ezingo nuela jasan, korrika irten behar nuela, botaka egitekotan.... baina ezin dut, bainugela txikia, hain estu zaude.... hori okerrena da. (E12, atzerriko nazionalitatea, 40 urte).*

Beste kasu batzuetan, Pilarrek, eztabaida-taldeko parte-hartzaileetako batek, aditzera ematen duenez, familiak ahalegina egiten du inguruneak egokitzeko, baina mendekotasun-maila gero eta handiagoa da, eta aldaketak ez dira nahikoak. Honela kontatzen du:

> *Bai, nik horrelako bainuontziak izan ditut, halako aulki bat jartzen saiatu zirela eta. Ibil zitekeen bitartean, ondo, baina gero gurpil-aulkian joaten hasi zen. Eta bainugelan, bai, konketa aldatu genuen, estuago bat jarrita, hainbesteko lekua ez hartzeko. Tira, bainugela hala-hola egokituta zegoen, baina lekua txikia zen erabat. Bira bat txarto eman, eta amona komunera botako nuen. Baina bainugela berri batean ere ez dute dirua gastatzen. (ET1, Espainiako nazionalitatea, 34 urte).*

Etxea ez badago egokiturik eta mendekotasuna duten pertsonak mobilizatzeko elementu egokiez horniturik, lan-istripuak oso maiz gerta daitezke. Horregatik, kalteak eta/edo gaixotasunak eragiten dira, batez ere adineko pertsona bat manipulatu behar denean, nolabaiteko pisua duena, inolako garabirik gabe eta osasun-tresnarik gabe. Luisak azaltzen duenez:

> *Oso handia da, eta, mobilizatzen duzunean, nabaritu egiten duzu zaintiratua bizkarrean. (E19, nazionalitate bikoitza, 21 urte).*

Sektore hau indarrean den LAPLtik kanpo dagoenez, erabat ezezaguna da zer arrisku dituzten etxeko langileek eta zer betebehar dituen alderdi enplegatzaileak. Gaur egun, ez dago berariazko araurik enplegatzailea xehetasunez behartzen duenik lan-ingurune osasungarria eta egin beharreko lanetarako egokia ematera. Adibidez, ez dago araudirik aditzera emateko **zein diren bizigarritasun-baldintza zehatz eta beharrezkoak, barne-langileak behar bezala atseden hartzeko eta bere espazioa izateko**; ondorioz, langileak estresa, antsietatea eta depresioa jasateko arriskuan egoten dira, ahitze fisikoa zein ahitze mentala direla bide.

### B. AHITZE FISIKOA

Barne-langile askok astean 60 ordutik gorako lanaldiak egiten dituzte; hala, bada, ez dira errespetatzen legez ezarrita dauden atsedenaldiak, eta arrisku larriak sortzen dira emakume horien osasunerako.

Ikerketa-prozesuan parte harturiko emakumeek hainbat lekukotasun eman dituzte, egoera hori egiaztatzen dutenak. Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik seik esan dute barne-langile egon direla atseden-orduak errespetatzen ez zituzten etxeren batzuetan. Eztabaida-taldean ez zen gai hori sortu, baina gorputz-lantegian sei parte-hartzaileetatik hiruk esplizituki aipatu zuten, gaueko atsedenik ez izatea batik bat.

Maríak, barne-langilea eta 67 urtekoa bera, kontatzen du zaintzen zuen emakumearen mendekotasun-egoera hain zela handia, non berak ezin baitzuen atsedenik hartu:

> *Egia esan, gau osoa lorik egin gabe ematen nuen, beti andreari adi egoten nengoen eta, ez erortzeko.(E6, atzerriko nazionalitatea, 67 urte).*

Horrek baditu ondorio fisikoak zein mentalak. Ondorio fisikoak, jakina, loaren nahasmendua, nekea, akidura eta atsedenik eza dira. Betiere adi eta erne egon beharrak estres eta antsietate handiak eragiten ditu, osasun mentalari buruzko atalean ikusiko dugun bezalaxe.

Oro har, barne-langileen lanaldi intentsiboek eta kanpo-langileen gainean –ezarritako denboran etxeak behar duen guztia egiteko– egiten den presioak arriskuan jartzen dute langileen osasuna eta osotasun fisikoa. Gorputz-lantegian, Roxanak aipatzen du haren osasun-egoerak okerrera egin duela sektore honetan duela sei urte lan egiten hasi zenez geroztik. Honela laburbiltzen du:

> *Bizkarra, buruko mina, gastritisa, hori da gehienbat eragin didana (etxeko zerbitzuan lan egiten duenetik). (GL5, atzerriko nazionalitatea, 42 urte).*

### C. ERASO FISIKOAK

Eraso fisikoena da ikerketa-prozesuan parte harturiko langileen kontakizunetatik ateratzen den beste gai bat. Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik bostek eta gorputz-lantegiko sei parte-hartzaileetatik bik eraso fisikoak aipatu dituzte, gutxi-asko larriak, premia bereziak dituzten pertsonekin edo gaixo senil edo mentalekin lan egitean jasotakoak.

Sektorea gutxietsirik egoteagatik, premia ekonomikoagatik, eta beste faktore askorengatik, langileek azkenean zainketa bereziak ematen bukatzen dute mendekotasuna duten gaixo mental batzuei, tresna fisikorik eta psikologikorik gabe eraso horiei aurre egin ahal izateko.

Elkarrizketaturiko emakumeek esaten dute normalean, langilea kontratatzen denean, zaindu beharreko pertsona egoera onean egoten dela; alabaina, gehienetan gaixotasun degeneratiboak izaten direnez, egoerak okerrera eginez joaten dira: erasoak gero eta arriskutsuagoak izaten dira, eta langilea bakarrik aurkitzen da etxean, bere burua defendatzeko aukerarik gabe.

Matxalenek kontatzen duenez:

> *Eta hasieran, bai, ondo, baina orain batzuetan, atake horiek ematen dizkiotenean, nerbio larri batzuk, nik esaten dut, horrela jartzen denean, nik ez dakit, espero dezagun ezer ez gertatzea, buruko jarioa edo, buruan zera daukala esaten… Eta batzuetan erasokorra zen, hemendik hartzen ninduen eta, lepotik. (E10, Espainiako nazionalitatea, 45 urte).*

Pertsonaren mendekotasun-mailaren eta gaixotasun-motaren arabera, erasoak arinak edo larriak izan daitezke, baina, Miriamek dioenez, betiere ondorio fisikoak izaten dituzte.

> *Amona batekin, besoa ubelduta edukitzen nuen, burutik ondo ez zegoelako; jo egiten ninduen, zimiko egiten zidan. (GL1, nazionalitate bikoitza, 41 urte).*

Lesio fisikoak jasaten dituzten emakumeek gutxietsita eta gutxiegi ordainduta sentitzen dira, izaten dituzten arriskuengatik eta halako egoerei aurre egiteak sortzen duen estresagatik.

## D. PRODUKTU KALTEGARRI ETA ARRISKUTSUEN MANIPULAZIOA

Garbiketaren sektoreak oso serio hartzen ditu produktu kimikoen manipulazioak langileen osasunean izan ditzakeen ondorioak, azalean, esate baterako (dermatitisa, alergiak…). Etxeko enpleguan ere, ordea, langileak horrelako kalteak jasateko arriskuan egoten dira, eta ez da inolako prebentzio-neurririk hartzen. **Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik hiruk, eztabaida-taldeko bost parte-hartzaileetatik bik, eta gorputz-lantegiko sei parte-hartzaileetatik batek aipatu zuten garbiketa-produktu batzuekiko erreakzio alergikoak izan dituztela.** Danielak azaltzen duenez:

> *Gorputz guztia gauza horietaz josita daukat, eta ez dakit zer diren… Sekulako azkura dut. Dena daukat… hankak… Ez dakit, zerbaitek alergia ematen dit, bistan dago produkturen bat erabiltzen ari naizela. Haren detergentea… Kristalak ere amoniako-usaina duen gauza batekin garbitzen dituelako; orduan, ez dakit produkturen bat gorputzera iristen ote zaidan eta erreakzio alergiko hori eragiten ote didan, azkura emanda, oso desatsegina. (E2, atzerriko nazionalitatea, 38 urte).*

Agente biologiko, kimiko eta fisikoak ukitzeak manifestazio alergiko eta inflamatorioak sor ditzake, azalari erasanda ukitze-eremuetan, bai eta arnasbideei ere, arnasteko zailtasunak eragiteraino. Baina ikusezin atxikitako eta gutxietsitako sektore bat denez, ez enplegatuak, ez enplegatzaileak ez dute informaziorik edo prestakuntzarik manipulazio horren arriskuen prebentzioari buruz, ez eta jarraibiderik ere, maskarak, eskularruak edo beste babes-tresna batzuk erabiltzeko beharraz.

Gogoan har dezagun etxeko langileek, garbiketa-lanez gain, zaintza-lanak ere egiten dituztela eta, mendekotasuna duten edo gaixo dauden pertsonak zaintzean, egunero botikak eta osasun-arloko substantziak erabiltzen dituztela, halakoak manipulatzeko edo osasun-arriskuak saihesteko moduaz ezagutzarik izan gabe.

## 5.2.2. Osasun mentala

Hamarkada batzuk badirela, lan-sektore askotan lan-inguruneko arrisku psikosozialez hitz egiten da, eta lanak langileen osasun mental eta psikikoan eragiten dituen ondorioez. Etxeko enpleguaren kasuan, baina, ez da egon behar adinako borondate politikorik gai horri sakon heltzeko; hartara, gure helburua da langile horiek aurre egin beharreko egoerak ikusgai jartzea eta haien arazoak ezagutaraztea.

Beste sektore batzuetako lan-ingurunean dauden faktore psikosozialei buruzko ikerlanak aplikagarriak izan daitezke etxeko enpleguan. Ikerlan horietan hainbat eredu erabiltzen dira langile-klasearen osasun mentalaren gaineko arriskuak kuantifikatu eta agerian jartzeko. Etxeko enpleguan aplikatzeko modukoa iruditzen zaigun eredu bat da Siegristen (1996) **ahalegin/sari desbalantzearen eredua**; izan ere, haren hipotesietako bat da inbertitutako ahaleginaren eta hartutako sariaren arteko desorekak gaixotu egin ditzakeela lanean diharduten pertsonak. Irizten zaio ahalegin handiak eta sari txikiak batera gertatzeak eragin ditzakeela tentsio-igoera, nahasmendu psikiatriko arinak eta kexa psikosomatikoak (Siegrist, 1996). Eredu horren arabera, ahaleginaren sariak hiru iturri izan ditzake (Díaz eta Mauro, 2012):

1. Diruzkoa, soldata egokiaren bidez.
2. Sostengu soziala, errespetu sozialaren eta erakundeen laguntzaren bidez.
3. Segurtasuna, mailaz igotzeko espektatibetan eta lanpostuaren segurtasunean esplizitaturik

### A. ESTRESA

Ahalegin/sari desbalantzearen eredu horri jarraituz, elkarrizketetan emakumeek pairatutako estresaz hitz egin dute, eginiko lana ez aitortzea, eskubideak urratzea, eta gehiegizko zereginak zein hiperrerantzukizuna direla bide.

Egian den arren, gaur egun, ia lan-sektore guztietan badagoela estresik, etxeko langileen kasuan egoera berezi batzuk sortzen dira. Esaterako, enplegatuaren lantokia kontratatzaileen etxea –hau da, haien espazio intimoena– izatea, bakoitzaren maniak eta bitxikeriak azaleratzen diren tokia, hain zuzen, eta langilea ia beti besteren espazioan, babesgabe eta ahultasun-egoeran sentitzen den tokia (Anderson 2000).

Horri gehitzen zaio **langilea “multifuntzionala” izateko nahia**, alegia, zaintza-lanak egin ditzala, etxeko zereginak aurrera eramaten dituen bitartean; horrek **sarritan estres-egoerak sortzen ditu langileengan**.

**“Langile multifuntzionalaren” gai hori eta haren osasun mentalean izaten dituen ondorioak 21 aldiz ere aipatu da gorputz-lantegian, eta elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik hamarrek ere aipatu dute, autoktonoen eta migratuen artean alde nabarmenik agertu gabe.**

**Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik seik aipatu zuten, garbitzeko bakarrik kontratatzen badituzte ere, azkenean zaintza-lanak ere egiten dituztela**. Bere kontakizunean, Begoñak azaltzen du apur bat psikologoa izan behar dela etxeetara garbitzera joaten denean, jende askok hitz egiteko eta hizketaren bat edo harreman modukoren bat izateko beharra duelako. Haren ustez, kontuz ibili behar da zer esaten den, pertsonarteko harreman horiek ez baitira oinarritzen adiskidetasunean, baizik eta berdintasunik ezak eta botere-logikek ezaugarritutako harreman batean.

> *Etxeak garbitzera bazoaz ere, beraiek beti kontatzen dizute zeozer, badakizu, ile-apaindegi baten modukoa delako, bakoitzak berea kontatzen du; ba, lan egiten dudan lekuan, badirudi belarriak zabalik ditudala gauzak niri kontatzeko. Benetan, eta horrez gain, zu etorri, lan egin, zeure gauzak egin, eta beren arazoak kontatzen dizkizute... eta irteten zara esaten ai ama, ene jainkoa (...) Beste gauza bat da beti umore onez egon beharra duzula. (E12, atzerriko nazionalitatea, 40 urte).*

Ainhoak kontatzen du, biki txiki batzuk zaindu ez ezik, haiek zaindu bitartean arropa lisatu ere egin behar zuela. Honela azaltzen du egoera:

> *Plantxatzeko arropa mordoa, eta niri ez zitzaidan gustatzen plantxatzea haurrak inguruan zebiltzanean, katuka ibiltzen hasiak zirelako: kabletik tira egiten zidaten, plantxatzekoa zegoen tokiaren azpitik pasatzen zitzaizkidan... eta ni oso beldur nintzen plantxaren ur irakina haien gainean erortzeko. Dardarka ari nintzen plantxatu bitartean (...), niretzat eragozpen handiena plantxatzea zen, umeentzat zekarren arriskuagatik, hori ez... niri plantxatzea gustatzen zait, baina etxe horretan ez, arrazoi horrengatik. (E16, Espainiako nazionalitatea, 65 urte).*

Kasu jakin honetan, langilea kezkatzen da haurren osasunagatik eta duten arriskuagatik, eta ez gurasoek. Lanorduetan erantzukizuna harena denez, badirudi gurasoak axolagabetzen direla; berak hartu behar ditu bere gain semeen zaintza eta alkandoren lisaketa. Egoera horretan, langilea estresa pairatzen du, zaintza-lanak eta etxeko lanak bateratzeak dakarren zailtasuna dela eta.

Egoera hori itxuraz baino sarriagotan gertatzen da, **etxeko lanetako denbora-erabilerei buruzko ikerlanek frogatzen dutenez**. Teorialari batzuek aditzera ematen dutenez (Bianchi eta González-Rábago, 2014), oso zaila da zaintza-lanetan ematen den denbora neurtzea, beste lan batzuk aldi berean egiten direlako. Zaintza ordainduak zein ordaindu gabeko zaintzak bereizgarri hori dute. Multidimentsionaltasuna dela bide, gaitza da oso neurtzea, eta askotan estresa sortzen da langilearengan. Langileari, lisatzen ari den bitartean, haurrei adi egon dadila eskatzea zaintza-lanek behar dituzten energia eta arreta gutxiestea da.

Enara bada kontziente etxeko enpleguan eskatzen den hiperrerantzukizunak eragindako osasun-arazoez. Urte askoan etxeko enpleguan lan egin eta gero, kanpo-langile, baina lanaldi osoan, eta etxea garbitzen, janariak prestatzen, arropa garbitzen eta lisatzen jardun eta gero, hiru haur zaintzeaz gain, eta familiari oso une zailetan lagun egin eta gero (amaren suizidio-saioa eta gurasoen banantze-prozesua), ahalegin emozional eta fisiko horrek guztiak beraren osasun-egoeran eragina izan duela deritzo, eta honela azaltzen du:

> *Baina ni, bai, kontziente naiz nire gaixotasunak han hartu nituela Han asko gizendu nintzen, ni ez nengoelako oso potoloa sartu nintzenean, eta boom bat izan zen. Nik uste dut estresa dela, estres handia. (E17, atzerriko nazionalitatea, 43 urte).*

Aipatu dugunez, zaintzaren objektuan etengabe pentsatzen aritzean datza zaintzea, eta zaindutako pertsona mendekotasun larri bat badu, inplikazio fisiko eta mentala handiagoa izango da. Etengabeko kezka horrek baditu ondorio fisiko eta mental oso nabari batzuk, batez ere gaixo dauden pertsonekin lan egiten duten barne-langileengan eta ordu asko lan egiten duten kanpo-langileengan. Alderdi hori hainbatetan agertu zen gorputz-lantegian zehar; hala, parte hartu zuten emakume ia guztiek egoera hori aipatu zuten, zuzenean edo zeharka.

Beak eta Juanak honela azaltzen dute:

> *Eta bularreko hau, batzuetan tentsioa nabaritzen dut eta, kezka da nire ustez. Zera sentitzen dut, uf... ez dakit, itotzen bezala... arnasa falta zaidala-edo. (GL2)*

> *Bost hilabete egon nintzen, eta pixka bat txarto pasatu nuen. Sabeleko mina handiagoa nuen, sabeletik delikatua izan bainaiz beti, ba hor okerrago jartzen zitzaidan. (GL3).*

Beste batzuetan, enplegatzailearen eta langilearen artean sortzen den botere eta mendetasuneko egoerak, halakoa dagoen kasuetan, estres-egoerak ekartzen ditu azkenean. Marinak aditzera ematen du bere lana egiten duen bitartean etxean enplegatzailearekin egoteak estresa sortzen diola, egiten duen guztia kontrolatzen duelako:

> *Ez, ez, nolako izaera zuen banekielako, den-dena ondo nahi zuela, txukun... Orduan ni sekulako antsietatearekin egoten nintzen, gauzak ondo egitearren (...) Baina nolakoa den jakinda, (...) pertsona apur bat makala denez, ez da indartsua... mindu egiten da. Mindu ez... Txarto sentitu egiten da, erabiltzen duen hitza. Orduan, hori ez entzutearren, larritu egiten zara, urduri jartzen zara ondo egitearren. (E8, atzerriko nazionalitatea, 51 urte)..*

### B. AUTOESTIMU-FALTA ETA DEPRESIOA

Ahalegin/sari desbalantzearen ereduarekin jarraituz, gaixotasun mentalen beste arrazoi bat da sostengu sozialik ez izatea, errespetu sozial eta erakundeen laguntza gisa. Ikerlan honetan parte hartu duten langile guztiek –alde nabarmenik egon gabe jatorriaren arabera– salatzen dute ia ez dagoela haien lanaren aitormen sozialik, eta ez duela inolako sari sinboliko edo emozionalik jasotzen ez etxeen, ez gizartearen aldetik; horrek autoestimu-falta eta depresio-kasuak eragin ditzake. Ainhoak honela azaltzen du:

> *Mespretxu hori, eta aprobetxatze hori; adibidez, haurrak, nik haur horiek nire... areago, nire alabak baino hobeto zaindu ditut, eta mespretxu hori eta tratu txar hori (...) Ba ni pixka bat gainez eginda nengoen... gero eta gehiago abusatzen zuten eta. (E16, Espainiako nazionalitatea, 65 urte).*

Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik zortzik xehe hitz egin zuten, jatorriaren araberako alde nabarmenik gabe, lanean egondako etxeetan gertatu eta beraien bizitza pertsonalari eragin zieten familiarteko zenbait egoerari buruz; gutxietsi eta mespretxaturik sentiarazi zituzten egoera batzuk ziren, hain zuzen, eta bi kasutan osasunerako ondorio larriak izan zuten.

Teresa Brennanek hauxe dio: *"norbaitek bestearen karga afektiboa jasaten duenean, zuzeneko transferentziaz nahiz beste baten suminaren bidez, zure depresio bihurtzen da"* (Brennan 2004, 6; hemen aipatuta: Gutiérrez Rodríguez, 2013).. Pertsona eta familia batzuekin erraza eta atsegina da lan egitea, eta zenbait etxetan, aldiz, indarkeriazko eta etsaitasunezko egoerak sortzen dira.

Irunek agiririk gabe lan egiten zuen etxe batean, eta han, mendekotasuna oso aurreratua zuen pertsona bat zaintzeko zailtasunaz gain, atsedenaldiak izateko eta irteteko askatasuna erabiltzeko ezintasuna gertatu zitzaion:

> *Alde psikologikotik oso zaila da, zu irten ere ezin baitzara egin, egunean 22 ordutan egoten zara etxean, zu bi ordu baino ez zara irteten kalean jendea ikusteko, terrazan eguzkia ikus dezakezu, baina ez jenderik (...) Ez duzu nahi ez bizi, ez ezer, diruan baino ez duzu pentsatzen. (E13, atzerriko nazionalitatea, 33 urte).*

## C. EGOKITASUN EMOZIONALIK EZA, MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONEI LAGUNTZEAREN ONDORIOZ

**Etxeko langileak, horretarako ikasketak izan zein ez, beren lanean konpromiso emozional sendo bat ezartzen dute mendekotasuna duten pertsonekin** (Díaz eta Mauro, 2012). Kasu batzuetan, konpromiso hori areagotzen da, orobat, badakitelako haiek direla zaintzaren erantzukizuna hartzen duten bakarrak, osasun-erakunde batean ez bezala, esaterako, halako erakundeetan erantzukizunak langileen artean banatzen direlako; azken horrek, hain zuzen, egokitasun emozionalik eza eta osasun mentalaren asaldurak gertatzeko arriskua gutxitzen du. Zehazki, elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik seik eta gorputz-lantegiko sei parte-hartzaileetatik hiruk kontatu dute noizbait gaixorik zegoen adineko pertsona batekin lan egin dutela, haiek zaintzaren erantzule bakarrak zirelako egoeran.

Matxalenek eta Pilarrek erantzukizun hori nola sentitzen zuten kontatzen dute:

> *Emozionalki, oso txarto sentitzen nintzen, oso txarto. (E10, Espainiako nazionalitatea, 45 urte).*

> *Etxera kontzientziako karga batekin joaten zara, zer kontatu dizun edo nola dagoen (...) Txarto uzten baduzu, zera hasten zara: kaka zaharra, txartu utzi dut... Bai, bale, lana zure bizitzatik bereizi behar duzu, baina... (ET1, Espainiako nazionalitatea, 34 urte).*

Horrez gain, mendekotasuna duten pertsonek pairaturiko gaixotasunetako asko degeneratiboak dira, eta, hartara, pertsonaren osasun-egoera okerragotuz doa, heriotzaraino askotan.

Gorputz-lantegian, ia parte-hartzaile guztiek aipatu dute zaintzen den pertsona oso gaixorik dagoenean egoten den inplikazio emozionala, eta horrek beren osasun mentalari nola eragiten dion azaltzen dute. Bi elkarrizketatan, pertsona bati heriotzaraino lagun egitea zein gogorra den adierazten da. Begoñak honela dio:

> *....niretzat etxeak garbitzea hobeto, lan fisikoa nahiago dut, mentala baino, oso lan ikaragarria delako. Haien munduan sartzen zara, eta nahikoa zaila da, eta hasten zara, badakizu, zeure burua zaintzeari uzten. (...) Elkarteko psikologo batek azaldu dit, horrela egon behar baduzu, leher egingo duzula. Etengabe minbiziak eta gaixotasunak dituen jendea zaindu behar duzu. Iaz arte, zaintzen nuen andre bat bularreko minbiziz hil zen, eta hortik aurrera esan nuen ezetz, ez dut bilatuko adinekoak edo gaixoak zaintzeko lanik, eta etxeak garbitzen jarraituko dut, ze bestela oso txarto irteten naiz, eta hor familia ere sartzen da, nire senarra eta dena. Orduan, niretzat hobeto etxeak garbitzea. (E12, atzerriko nazionalitatea, 40 urte).*

Egoera-mota hori ikertu da zainketa aringarrietan diharduten osasun-profesionalen kasuan. Ematen zaion izena *"burn out"* da, edo euskaraz, **laguntza-laneko estresaren sindromea, profesionalek izaten duten indar-ahitzea, pazienteen arazoek gaindituriк sentitzen direnean**, eta neke emozional eta fisikoa adierazten du (Gómez Cantorna *et al.*, 2012).

Langileek sindrome hori ez pairatzeko, osasun-erakundeetan faktore batzuk nabarmentzen dira, zainketa

aringarriak egiten dituzten pertsonak babes ditzaketenak; besteak beste: gogobetetasun handiagoa lanean jardutean; gaiaren inguruko berariazko prestakuntza; talde-lana; eta bizimodua zaintzea, ariketa fisikoa eginez eta aisialdiaz gozatuz kasu. Prebentzio eta babeseko neurri horiek, tamalez, ez dira hartzen etxeko enpleguan.

Horri dagokionez, Begoñak barrua husteko beharra aipatzen du, psikologo batekin edo egoera bereko pertsona-talde batekin biltzeko, esperientziak partekatzeko eta mina eta ahitze emozionala arintzeko:

> *Heriotzan haiekin egotea puuuuf, klinika horretan prestatutako jende batek lan egiten du. Ni, behintzat, prestatu egin naute, hasieran ondo zihoan, baina, azkenean, nik hasieran elkartean (lana lortzeko bitartekoa izan zen elkartea) psikologoa neukan, eta ondo zegoen, barrua husteko aukera zenuelako, behintzat. Zerbait behar dut, senarrarekin eta familiarekin ez, emakumeak haurdun dauden bezala da hori, elkartu egiten dira, hori pasatu egin behar duzulako ulertzeko zer den, bestela, ez duzu ulertzen. (E12, atzerriko nazionalitatea, 40 urte).*

Bere kasuan, heriotza iritsi arte lagun egin dio bularreko mina zuen andre gazte bati, eta pertsona horrek hurbileko ahaiderik ez zuenez, ez eta lagunik ere, bera izan zen haren laguntzarik handiena. Emakumea kasu terminaletan espezializaturiko ospitale batean zegoen, eta haren lana lagun egitea zen.

Gorputz-lantegian, bereziki, agerian geratu zen langile askok **antsietate-krisiak, estres-egoera aurreratuak eta lo-arazoak izaten dituztela**. Lanak gorde eta lanaldi intentsiboak jasan ahal izateko, botikak eta lasaigarriak hartu beharrean aurkitzen dira. Batirtzek honela kontatzen du:

> *Burua asko berotzen zitzaidan, bera gauetan jaiki egiten zelako. Alfonbra txiki bat erosi zioten, eta horrek aginte moduko bat zeukan, eta nik pieza bat nuen eskuan. Berak alfonbra zapaldu orduko, niri abisua jotzen zidan. Etengabe esnatzen nintzen; lokartu, eta ikaretan esnatzen nintzen, jaiki zelakoan. Lo egiten nuen, baina ez; etengabeko tentsio bat zen hura. Jaikitzen bazen, nik ere jaiki behar, erortzen bada-edo, arazoak izango nituelako. Andreak Sintrom hartzen zuenez, odola erruz ateratzen zaio. Orduan, zauri batekin... odol asko ateratzen zitzaion. Erne-erne egon behar nuen gauez. (…) Nik lasaigarri bat hartzen nuen, Diazepam. Begira, oraindik nago gauerdian sentituko dudanarekin, jaikiko dela... oraindik andrearen erritmoan jarraitzen dut. Bat ez da lasaitzen. (GL6, atzerriko nazionalitatea, 36 urte).*

Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik hiruk gaixo mentalak eta/edo adinekoak zaintzearen eta haurrak zaintzaren artean dagoen aldea ere aipatu zuten. Bat datoz haurrak zaintzean sentsazioa atseginagoa dela, nahiz eta energia handiagoa daukaten eta gehiago mugitzea eta kontzentratzea behar duten, bizitza hasi berritan daudelako, eta adinekoak eta/edo gaixo terminalak, berriz, bizitzaren bukaeran:

> *Ez da haur bat zaintzen duzunean bezala, poza baino ez daukala. Adinekoekin, pixkanaka nola makaltzen diren ikusten duzu, eta emakumea bakar-bakarrik dago, eta pena handia ematen dizu. Erasan egiten zidan. (E15, Espainiako nazionalitatea, 45 urte).*

Gainera, prestaturik egon arren, pertsonak sufritzen ikustea zaila dela esaten dute, gaixotasun mental akutuak dituztenean, adibidez. Hala, Luisaren kasuan, gerontologiako ikastaroa egina zuen arren, aitortu egiten du kolektibo horrekin lan egiteak bazuela eragina berarengan. Honela azaltzen du:

> *Hasieran, asko erasaten zidan jakiteak ez… ez zeudela mundu honetan; adibidez, gaixotasun mentalak dituzten pertsonekin, beren kasa doazela, ulertzen ez dutela, ba horrek nigan bazuen eragina. (E19, nazionalitate bikoitza, 21 urte).*

Nolanahi ere, esan behar da etxeko langileak askotarikoak direla, lan-baldintza eta egoera sozial desberdinak bizi izaten dituztela, eta zeinek bere estrategiak dituztela halako egoerei aurre egiteko. Batzuek, beren izaera, prestakuntza, adina, ahalduntzea edo beste faktore batzuk direla eta, badakite maila mental eta psikologikoan izan ditzaketen laneko arriskuei mugak jartzen, eta neurri txikiagoan erasaten diete.

Aintzanek, esaterako, badaki nola aurre egin arrisku horiei:

> *Eroriko hori hartu nuenetik, oinak asko kaltetu zitzaizkidalako. Baina gainerakoa ez, nik ez dudalako onartu psikologikoki nigan eraginik izatea. (E3, nazionalitate bikoitza, 64 urte).*

## 5.3. 3. helburua. Etxeko langileen gogoetak eta aldarrikapenak

Etxeko enpleguaren egoera konplexua da, eta zenbait egoeratan eskubide-urraketak eta indarkeria matxista, arrazista eta klasistak gertatzen dira. Horrek gizartearentzako dei bat izan beharko luke, egoera aldatzeko eta zaintza bidezkotasun-baldintza batzuen arabera antolatzeko. Ez da, besterik gabe, alderdi enplegatzailearen eta alderdi enplegatuen arteko gatazka bat; planteamendu zabal eta integral bat egin behar da, eragile sozialek, zeinek dagokion arlotik, ikusgai jarri izan ditugun alderdi ugariei erantzuna eman diezaieten, eta, hain zuzen, eragile horiek dira, besteak beste: plataforma eta espazio feministak, emakume-kolektiboak, sindikatuak, erakunde publikoak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak zein irabazi-asmoa dutenak, gobernuz kanpoko erakundeak, zaintza eskatzen duten familiak, eta etxeko langileak berak.

Funtsezkoa da ez biktimizatzea sektore honetan lan egiten duten emakumeak. Hori baino gehiago, sistema matxista, kapitalista eta arrazista batean sozializaturiko hogeita hamar emakume topatu ditugu, erresistentziarako eta iraupen ekonomikorako beren estrategia pertsonalaren barruan, lan hori egiten dutenak.

Beren diskurtsoetan, hainbat jarrera eta beren egoera ikusteko, sentitzeko eta ulertzeko hainbat era eman dituzte aditzera. Emakume batzuek biziki gogoeta aldarrikatzaileak adierazi dituzte; beste batzuk etxeko langile gisa izaniko banakako bizipen eta esperientziak era kritiko eta estrukturalean planteatzeko aukerarik ere izan gabekoak ziren. Askotan, emakumeek ez dute behar adinako denborarik edo gogoetarako espaziorik kontzientzia kolektibo bat garatzeko zaintza-lanari, etxeko enpleguari eta beraiek duten edo izan nahi duten lekuari buruz.

Aurreko helburuetan, emakumeen aldarrikapenak analizatu ditugu beren eskubide ekonomikoen, lan-arloko eta Gizarte Segurantzako eskubideen nahiz laneko osasuneko eskubideen inguruan; beren lekukotasunen bidez, aditzera eman dute nahi dutela legearen tratu bidezko eta ekitatiboago bat, arloan eskumena duten erakundeen babesa, langile gisa dituzten eskubideen errespetua, eta indarkeria-mota guztiak gabeko nahiz osasun fisiko eta mentalerako arriskurik gabeko lan-espazio bat.

Ikerlanaren hirugarren eta azken helburu honetan, haien gogoetatik sortzen diren aldarrikapenetan jarriko dugu arreta, honako gai hauek aintzat harturik: (a) zaintzaren zentraltasuna gizartean; (b) duintzea eta aitormen sozial, ekonomiko eta politikoa ematea; (c) etxeko enpleguak gainerako sektoreen tratamendu bera izateko premia; (d) sareak sortzeko beharra.

### 5.3.1. Zaintzaren zentraltasuna gizartean

Bizitzaren zaintza erdigunean jartzea funtsezkoa da, lehentasunezko arazo bat izan dadin maila sozialean zein politikoan. Loreak honela adierazten du:

> *Eta, nire iritziz, asko gutxiesten dugun lan bat izan arren, lan ohoragarria da, pertsonak zaintzea delako, pertsonak zerbitzatzea. Badirudi, gizarteak hainbeste gutxietsi duenez, guk ere, pertsonok, ez diogula garrantzirik ematen, baina nik uste dut garrantzia eman beharko geniokeela, eta etxeko langileen egoera hobetu, tratu txarragatik, mesedez, hori zaindu behar dugu. (E9, atzerriko nazionalitatea, 31 urte).*

Emakume horrek oso ondo azaltzen du nola gutxietsi duen sistema kapitalistak gizakia. Sistema kapitalistak ez die garrantzirik ematen pertsonei, gizon-emakumeei, bizitzaren jasangarritasunari, eta horren ondorioa da ikusezin dauden baina gizartearen berrekoizpen eta jarraipenerako beharrezkoak diren jarduera horiek guztiak ere gutxiestea.

Estik dioenez:

> *Eta liburua hartu nuen, eta ikusiz joan nintzen, irakurriz, eta horixe zen: mundua emakumeak gabe ez da ezer. Ez du ezer balio. Jendea behar du haurrentzat, ze, bestela, ez dago jenderik etorkizunerako, eta adinekoentzat, haiek ere bizitzen jarraitzeko eskubidea dute eta. (ET2, Espainiako nazionalitatea, 51 urte).*

Haren hitzetan aitortzen da historian zehar emakumeek egin duten eta oraindik ere egiten ari diren etxeko eta zaintzako lana, familien barruan doan edo lan-merkatuan era prekarizatuan, eta bizi garen gizarte-ereduaren jasangarritasunik eza aipatzen da.

Egungo gizarteak oinarritzat duen eredua *"etxeko berrekoizpenaz arduratzeko, etxean emakume bat zeukaten"* gizon autonomo batzuentzat sorturikoa da bere hastapenetan. Emakumeen egoera soziala aldatu egin da, baina lan-baldintzak oraindik ere subjektu autonomo batzuek eta batzuentzat pentsaturikoak dira (Izquierdo, 2003).

### 5.3.2. Duintzea eta aitormen sozial, ekonomiko eta politikoa ematea

Emakumeek balioespen eta aitormen soziala nahi dute, ekonomikoki eta eskubideen arloan ere gauzaturik. **Ikerlan honetan parte hartu duten emakume guztiak bat datoz sektoreak gutxiespen sozial handi bat jasaten duela**. Diotenez, mespretxu hori atzematen da bai gizartean, ez baitu balioesten etxeko eta zaintzako lana, bai emakumeak kontratatzen dituzten etxeetan.

Clarak honela nabarmentzen du:

> *Aitormenik ez izatea, behar bezalako soldata bat ez izatea, gehiegizko lana, eta langile batzuek duten lan-karga. (E4, nazionalitate bikoitza, 62 urte).*

**Ikerlaneko parte-hartzaileen diskurtso guztietan adierazten da jasotako aitormena pertsona edo familia kontratatzailearen araberakoa dala**. Maitek kontatzen duenez, etxe batzuetan oso kontziente dira egiten den lanaren garrantziaz:

> *Nik uste dut haiek oso kontziente direla, haurrak oso astunak direlako. Goizetan jaikiarazteko, bua! Nik ikusi dut, beraiek han daudenean (…) Orduan haiek arduratzen dira haurrez. Orduan, esaten didate: Maite, hasi gauzak egiten, neu arduratuko naiz haurrez. Ba! Izugarri kostatzen zaie jaikiaraztea. (…) Orduan, barrutik, haiek ikusten dute zer-nolako lana egiten dudan nik, badakizu? Esaten dute: "Maite, nola egiten duzu zuk?" (E18, nazionalitate bikoitza, 51 urte).*

Zuzen edo zeharka, langile guztiek beren diskurtsoetan defendatu egiten dute gizarteak etxeko enplegua beste edozein lan bezala tratatu beharko lukeela. **Elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik bederatzik esan dute nahiago dutela beste sektore batean lan egin, etxeko enpleguaren gutxiespen soziala, ekonomikoa eta eskubide-arlokoa dela eta**. Loreak honela esplizitatzen du (esperientzia du sektorean, eta badaki nolako garrantzia duen zaintza-lanak; gaur egun itzultzaile dihardu):

> *Eta horregatik ez zaigu gustatzen lan hori, oso ospe txarra du, nahiz eta pertsonak zaintzea lan ohoragarria izan, baina oso txarto ordaintzen dute, eta hori ez zaio inori gustatzen. Eta uste dut ere gizarteak txarto ikusten duela, eta horregatik ez dugu lan hori aukeratzeko joerarik, eta beste bat nahiago izaten dugu. Baina, gutxienez, langabezia-saria kobratzeko eskubidea izan beharko luke, edo sorospena, baldin badago. Nire iritziz, lan arrunt eta normal bat edukitzea da, besteak bezalakoa; asegurua, sorospena, langabezia-saria baldin badago, ba horixe izan beharko luke, eta etxeko langileen baldintzak hobetu beharko lirateke, eta gero legez aplikatu, baldin eta ez badaude liburuetan edukitzeko bakarrik, betearazi gabe, hori ere gertatzen ari da eta. (E9, atzerriko nazionalitatea, 31 urte).*

Emakumeek soldata duinak aldarrikatzen dituzte, badakitelako egiten duten lana funtsezkoa dela gizartearen egungo funtzionamendu eta antolaketarako. Eztabaida-taldean, etxeko langileen eta beste lanbide batzuetako langileen soldatak eta lan-eskubideak erkatu dira, eta aldarrikatu da emakumeok egun jasotzen duten baino gehiago kobratu beharko luketela, pertsona batzuk zaintzeko erantzukizuna dutelako, hori funtsezkoa izanik gizartearen berrekoizpenerako. Horren inguruan, Mónicak hau dio eztabaida-taldean:

> *Nire iritziz, ingeniari-lana baino hobeto ordaindu beharko litzateke hori. Ze nire eskuetan zure aitaren edo zure amaren osasuna izatea, hori niretzat... uauu! (ET5, atzerriko nazionalitatea, 50 urte).*

### 5.3.3. Etxeko enpleguak gainerako sektoreen tratamendu bera izateko premia

Hori da gehien errepikatu den aldarrikapena. **Landa-lanean, elkarrizketaturiko hemeretzi emakumeetatik hamabik, gorputz-lantegiko bi parte-hartzailek eta eztabaida-taldeko bostek aipatu dute etxeko enpleguko lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzako eskubideak beste sektore batzuetakoekin parekatzeko premia larri**a.

Langileek nabarmentzen dute oso lan gogorra egiten dutela, eta garrantzitsua gizartearentzat; horregatik, ez dute ulertzen gainerakoek dituzten eskubide berak ezin izatea. Horrez gain, salatzen dute jasaten duten legezko bereizkeria horrek ez duela arrazoi objektibo logiko bat. Honela adierazten dute Sandrak eta Enarak:

*Ba nik uste dut beste edozein lanaren baldintzak izan beharko lituzkeela, hau da, zure eskubideak, zure pagak eta zure oporrak jasotzen dituzten kontratuak egitea. (E15, Espainiako nazionalitatea, 45 urte).*

*Etxeko langileentzat batez ere, Gizarte Segurantzan erretirorako ez ditugu erregimen orokorrean dituzten eskubide asko. Orain badakit gaixotasun-bajak daudela etxeko langileentzat, baina gure garaian ez zegoen, ez zegoen. Eta kotizazio-tasarako ere bai. Bizitza osoan etxeko langilea izan bazara, ez duzu kotizazio on bat, pentsio on bat kobratzeko, erregimen orokorrean lan egin duenak izan duen bezala. (E17, atzerriko nazionalitatea, 43 urte).*

## 5.4. Sareak sortzeko beharra

Eztabaida-taldeko bost parte-hartzaileetako hiruk mahaigaineratu dute langileak “bakarrik” daudela. Hau da, oso sostengu sozial eta instituzional eskasa dute, eta –sektorearen bereizketari bakartasunean aurre egin behar diotelarik– daitekeena da askotan informaziorik ez izatea eta beren eskubideak eta haiek defendatzeko bidea ez ezagutzea.

Eztabaida-taldeko emakumeetako batek kontatzen duenez:

*Falta zaiguna da informazio gehiago izatea, ea nora jo behar dugun. Nik bilatzen nuen, etxeko zerbitzuan lan egiten duten emakumeen elkartea, eta Gasteizen ez zen ezer ateratzen. (ET2, Espainiako nazionalitatea, 51 urte).*

Eztabaida-taldeko beste emakume batek adierazten duenez:

*Elkarte horietako bat, informatzeko, bestela etxean ez zara ezertaz enteratzen. Interesgarria da, batzuetan nondik hasi ere ez dakizulako. Eta jakin hori egon daitekeela, eta joan, eta informatu egin zaitezkeela. Batzuetan ez duzu ideiarik ere. (ET3, Espainiako nazionalitatea, 45 urte).*

Askotan, kontsulta bat egin behar da eta/edo lanpostuan gertatzen dena partekatu egoera uler dezakeen beste langile batekin edo aditu batekin, baina ez dakite nora jo. Sektorearen prekarietatea eta haietako askok bizi duten gizarte-bazterketa direla bide, elkartzeko eta antolatzeko zailtasuna izateaz gain, Vitoria-Gasteizko hirian ere ez dago elkarterik, gaur egun, etxeko langile gisa haiei laguntza eta sostengu legal, psikologiko eta/edo emozionala emateko.

Informaziorik gabe, sostengu instituzionalik gabe, sozialki gutxietsirik, eta gizartean ikusgai egon gabe, langileek oso zail dute beren eskubideen alde borrokatzeko eta esplotazio eta indarkeriazko lan-harremanetatik irteteko garaian, gizarte-bazterketako egoeran eta beharrizan ekonomiko larriekin badaude batik bat.

Hartara, funtsezkoak dira erakundeen, familiartekoen eta/edo elkarte-munduaren laguntzak, adiskideak, herrikideak edo etxeko enpleguan ere lan egiten duten pertsonak. Maitek bere esperientzia partekatzen du, lanpostuan indarkeria jasaten ari zen adiskide bat salatzera animatu zuenean. Honela kontatzen du:

> *Nik esan nuen: eta nola jasaten duzu hori, Ane? Baina, nola jasaten duzu? Ez dut jasaten, ezin dut jasan. "Maite, baina nola egin zenuen zuk hasieran...?" Nik esan nuen: ea, hitz egin behar duzu. "Ez, ez, ez, ez, begira, Sara, edo dena delakoa, ez zait ondo iruditzen, errespetua galtzen ari zara, nik errespetatzea nahi baduzu, errespeta nazazu zuk". "Nolatan hitz egingo dizu berak oihuka?" Nolatan...? Ohe hau txarto eginda dagoela, eta berriz ere desegiten du. Baina hori zer da Hori lan-jazarpena da, eta ezin dugu onartu (...). Nik esan nion: ba, Ane, txarto bukatu duzunez, zera, horretan ari zarenez, berak ez badizu egiten likidazioa behar bezala, bost urte edo bost urte eta erdi egin dituzula, zuk auzitara eraman ezazu. "Eta haiek badakite larrutik pagatuko dutela, ezin dutelako neska bat eduki Gizarte Segurantzarik gabe". (E18, nazionalitate bikoitza, 51 urte).*

Langile atzerritarrek aipatzen dituzte gehienbat halako egoerak. Haiek izaten dira, oro har, helmugako herrialdera iritsi berritan sarerik ez dutenak, ez familia-sarerik, ez sare sozialik. Halako egoeretan, bakartasuna eta desinformazioa areagotu egiten dira, eta bakartze eta eskubide-urraketako egoera larriagoak ekar ditzake horrek.



# 6

# ONDORIOAK
# ETA GOMENDIOAK



# 6. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Zaintza lana atxikita dagoen ikusezintasunak eta sistema kapitalista, matxista, arrazista eta klasistan sortzen diren botere eta menderakuntzako harremanek arrisku larrian jartzen dute bizitzaren jasangarritasuna eta izaki independenteen eta mendeko izakien arteko dikotomia faltsua ezartzen dute, kontuan hartu gabe pertsonek gure bizitzako fase guztietan dugula zaintzaren beharra, neurri handiagoa edo txikiagoan, eta, hartara, izaki interdependenteak garela, zaintza jasotzeko eskubidea aldarrikatzea beharrezkoa delarik.

Hala ere, gure egungo gizartean dagoen zaintzaren zentraltasunik ezaren nahiz bizitzaren jasangarritasunik ezaren aurrean, antolaketa publiko, integral eta bidezko bat falta zaigula atzematen dugu, eskubide horri erantzuteko modukoa. Horrela, zaintza-eskariak banaka konpontzen dira, eta era prekario batean, bi bide baliaturik, funtsean: edo inperatibo sozialez lan hori doan beren gain hartzen duten emakume batzuen bidez; edo lan horiek egiteko kontratatuiko emakume pobretu, migratu eta bereizkeriaz tratatu batzuen bidez. Etxeko enpleguaren eta zaintzaren sektorean lan egiten duten emakumeei dagokienez, maiz eta era normalizatuan topatu ohi dituzte aitormen sozialik eza, legezko bereizkeria, eskubide-urraketa, eta indarkeria matxista, arrazista eta klasistak jasateko arriskua, beren lantokian, alegia, alderdi enplegatzailearen etxean.

LANEren kalkuluen arabera, munduan 55 milioi emakume daude etxeko langile direnak, eta 11 milioi neska, 5 urtetik 17 urtera bitartean, etxeko enpleguko zereginetan dihardutenak (OIT, 2013). Espainiako Estatuan, kalkulatzen denez (Díaz Gorfinkiel eta Fernández López, 2016), 2015ean 614.200 pertsonak lan egiten zuten sektorean, haietatik ia % 90 (% 89,7) emakumeak zirela. Eta 2015. urtean, Gizarte Segurantzako afiliazioak ia 425.000 ziren sektorean; hartara, kalkulatzen da informaltasun-tasa % 30 inguru dela.

EAEri dagokionez, 2015eko abenduan guztira 29.543 pertsona zeuden *SEEH* sisteman afiliaturik, eta haietatik 28.112 emakumeak ziren (% 95,2). Arabako Lurralde Historikoan, *SEEH* sisteman afiliaturiko emakumeak 3.152 ziren, eta haien artean 1.253 atzerritarrak ziren. Hortaz, etxeko enplegua, atzerritar emakumeentzako lan-nitxo bat ez ezik, haien lehen jarduera ere bada, emakumeentzat sortutako kontratu-kopuruaren aldetik.

Ondoren, landa-lanetik nahiz ikerlan honen aliatuekin eginiko bi lantegietatik atera diren ondorio eta gomendio nagusiak bildu ditugu.

## 6.1. Etxeko enpleguaren inguruan maila sozialean lan egiteko gomendioak

### 6.1.1. Bizitza zaintzeko lanen eta etxeko enpleguaren antolaketa publiko eta bidezkoa

Bizitzaren zaintza berriz erdigunean jartzea funtsezkoa da, eta lehentasunezko arazo bat izan dadin maila sozialean zein politikoan. Beharrezkoa da gure arreta zaintzaren antolaketa publiko eta bidezko batean jartzea, aldaketa demografikoak, sozialak, ekonomikoak nahiz familiaren, politikaren eta generoaren arlokoak nabarmenduz, antolaketa sozialaren barruan bidegabeko egoerak betikotzen dituzten egungo engranajeak bestelakotu eta eraldatzeko.

### 6.1.2. Etxeko enplegua duintzea eta aitormen sozial, ekonomiko eta politikoa ematea

Ikerlan honetan parte hartu duten emakume guztiak bat datoz sektoreak gutxiespen sozial handi bat jasaten duela. Diotenez, mespretxu hori atzematen da bai gizartean, ez baitu balioesten etxeko eta zaintzako lana, bai emakumeak kontratatzen dituzten etxeetan.

### 6.1.3. Etxeko enpleguak gainerako sektoreen tratamendu bera izateko premia

Hori da indar handienarekin atera den aldarrikapena, hala landa-lanean, nola aliatuekin eginiko parte-hartzezko lantegian. Zehazki, Ikerlanean parte hartu duten emakumeen % 60k baino gehiagok aipatu du etxeko enpleguaren sektoreko lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzako eskubideak parekatzeko premia hori.

## 6.2. Etxeko enplegua duintzeko behar diren lege-aldaketei buruzko gomendioak

2011. urtean egin ziren lege-erreformak eginik ere, badira oraindik lege-egoera batzuk, argi eta garbi bereizkeria dakartenak. Hurren, gomendio batzuk bildu ditugu:

### 6.2.1. Etxeko Langileen Sistema Berezia premiaz aldatzea, bi alderditan:

#### 6.2.1.1. Sektore honi langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzea.

Etxeko langileek aipaturiko alderdi garrantzitsuen eta aipatuena da. Zehazki, emakumeen % 30ek xeheki hitz egin du horren inguruan. *SEEH* sisteman jasotzen ez den eskubide bat da, erregimen arruntean ez bezala, arrazoi objektiborik egon gabe, etxeko enpleguaren kasuan halako prestazioa izatea beharrezkoa ez dela justifikatzeko. Kontingentzia horrengatik kotizatzeak ez luke gehiegi handituko ez enpresaburuaren eta ez langilearen kuota, eta beharrezkoa den babesa sortuko luke eskubide-urraketako eta ahultasuneko egoera berezi bat duen sektore honetan. Legea aldatzeko borondate politikoa baino ez da behar, eta etxeko langileei beste edozein lanbidetan dauden eskubide berak aitortu.

#### 6.2.1.2. Etxeko langileen kotizazio-oinarrien taula berrikustea, sektoreko informaltasuna nahiz prestazioen kalkulu kaltegarria eragozteko

Etxeko Langileen Sistema Bereziko (*SEEH*) kotizazio-oinarriak tarte batzuen arabera kalkulatzen dira, hileko soldata gordina kontuan hartuz. Ikerlan honetan bi egoera atzeman ditugu: edo langileak merkatu informalean geratzen dira, lehen tarteko soldata gordinera iristen ez direnean, "gainkotizazioa" ez sortzeko; edo tarte handienaren gainetiko lansari bat duten etxeko langileek kalte larria jasaten dute, gaixotasun, ezintasun edo erretiroko prestazioen kalkuluan, kotizazio-oinarria ez datorrelako bat haien benetako soldatarekin.

### 6.2.2. Familia-etxeko zerbitzuaren lan-harreman berezia arautzeko 1620/2011 Errege Dekretuaren aldaketak

#### 6.2.2.1. Etxeko enpleguan kontratatzailearen heriotzaren ondoko kasuak arautzeko gomendioa

Etxeko enpleguaren sektorean, ohikoa izaten da lan-harremana bukatzea enplegatzailearen heriotzagatik, askotan gaixorik dauden adineko pertsonak zaintzen baitira, haien osasun-egoera okerrera egiten duela denborak aurrera egin ahala, heriotza gertatu arte.

Ikerlan honetan parte hartutako emakumeen artean, % 20ren lan-kontratuak zaindutako pertsonaren heriotzagatik bukatu dira noizbait. Lan-harremanaren desegite horretan, hileko soldata bat soilik jasotzeko eskubidea sortzen da; horri gehitzen badiogu langabezia-prestazioa jasotzeko eskubiderik ez dagoela, etxeko langileen artean tentsio, antsietate eta ahultasuneko egoera sortzen du.

Gure aburuz, kasu hori berrikusi egin behar da, eta etxeko langileei babes-maila handiago bat eman, luzaroko lan-harremanetan bereziki, etxeko langilearen antzinatasuna aitortuz.

#### 6.2.2.2. Gauzatan ematen den lansaria kalkulatzeko irizpide objektibo batzuk arautzea

Legezko bereizkerien artean, aipatu beharreko beste bat da ostatuagatik eta/edo mantenuagatik gauzatan ematen den lansaria, ehuneko baten bidez kalkulatua, soldataren % 30 ere deskontatzeko aukerarekin. Ez dago justifikatzerik gauzatan ematen den lansari hori ehuneko baten arabera kalkulatzea, eta egokiena litzateke irizpide objektibo batzuk finkatzea, ostatu eta mantenu hori kuantifikatzea ahalbidetzeko. Gainera, logela zaindutako pertsonarekin partekatzen da sarritan, eta azken horren janari berdina jaten da, langilearen beharrizanak, gustuak eta nahiak aintzat hartu gabe.

#### 6.2.2.3. Gaueko lanaldia arautzea

Lege-hutsune bat dago gaueko lanaldiaren edo gaua emateko erregimenaren (*pernokta*) inguruan; halakoak familien –bereziki mendekotasuna duten pertsonen familien– zaintza-beharrizanei erantzuten die eta, erakundeen erantzun publikoa behar adinekoa ez denez, gaueraino luzaturiko presentzia-orduak dauzkaten langileak, lanaldia arratsaldeko ordu-tartean betetzen duten langileak edo barne-langileak kontratatzea ohiko praktika bilakatu da. Hala eta guztiz ere, kasu hori ez da ez aipatzen, ez arautzen indarrean dagoen araudian, langileei legezko bereizkeria eta eskubide-urraketa bat eraginda, familia kontratatzaileei segurtasun juridikorik eza sortzeaz gain.

Gainera, omisio hori deigarriagoa da, kontuan hartzen badugu LANEren 189. Konbentzioan eta 201. Gomendioan bereziki nabarmentzen dela zer garrantzitsua den estatuek gaueko lanaldia arautzea.

#### 6.2.2.4. Presentzia-orduen arauketa berrikustea

Presentzia-orduak ez dira beti diruz edo atsedenaldiz konpentsatzen, eta gertatzen dena da, barne-langileen artean bereziki, lanaldi arruntari ordu horiek gehitzen zaizkiola. Hala, bada, ikusten ari gara kasu gehienetan azkenean astean 60 ordu lan egiten direla, behar bezalako ordainsaririk gabe.

### 6.2.3. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legea erreformatzea, etxeko langileak haren aplikazio-eremuaren barruan sartzeko

LAPLak berariaz uzten ditu bere aplikazio-eremutik kanpo familia-etxeko zerbitzarien lan-harreman bereziak, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren irizpidearen arabera, arau horiek enpresetarako pentsatuta baitaude, familia-etxeko esparruan aplikagarriak izan gabe. Hala eta guztiz ere, beste lanbide batzuetan, hala nola etxez etxeko laguntza-zerbitzuari loturikoetan (ELZ), lege hori aplikatu egiten da, eta etxebizitzak egokitu, profesionalei prestakuntza ematen zaie, eta haien lanaren ondoriozko arriskuen kontrol eta jarraipena egiten da.

Hartara, kanpoan uzte hori bereizkeria larria da, etxeko langileak beren lan-jardueraren ondoriozko arrisku batzuen azpian jartzeaz gain, prebentzio-protokolorik, prestakuntzarik eta lantoki diren etxebizitza horien egokitzapenik eskatzeko aukerarik gabe.



## 6.3. Alertak Laneko Ikuskatzailetzarentzat eta arloan eskumena duten erakunde publikoentzat, etxeko langileen eskubideen aurka errepikatzen diren urraketak direla eta

Elkarrizketetan, emakumeen % 15ek esplizituki aldarrikatu du erakunde publikoen sostengu handiago bat, eta, landa-lanean parte hartu zuten guztien artean, % 16k aipatu du sektorean dagoen kontrolik eza.

Erakunde publiko eskudunek eta Laneko Ikuskatzailetzak, etxeetan kontrol-mekanismorik ezin ezar dezaketen aitzakiarekin, toki intimo eta pribatuak direlako, ingurune bat sortzen laguntzen dute, non baitirudi *"denak balio"* duela, sektorea ia erabateko inpunitatean utzita. Legea betetzen ari den ala ez kontrolatzeko ezintasunak (borondaterik eza, hobeto esanda) zigortzeko ezintasuna dakar berekin, eta, hortaz, babesgabetasun eta ahultasuneko egoera bat sortzen die emakumeei.

Emakumeek salatzen dute, baldin Laneko Ikuskatzailetzak bere lana egiten ez badu eta inork ez badu kontrolatzen etxeen barruan gertatzen dena, arauak betetzea kontratatzaileen aukeramenaren mende geratzen dela.

Gainera, babesgabetasun eta ahultasuneko egoera hori larriagotu egiten da emakumeak migratuak direnean eta, herrialdean legezko bizilekua izateari dagokionez, egoera irregularrean daudenean.

### 6.3.1. Etxeko enpleguko informaltasuna

Ondoren, Laneko Ikuskatzailetzak eta erakunde eskudunek jarraipen eta kontrol zehatzak egin beharreko alderdiak azalduko ditugu xeheki:

#### 6.3.1.1. Idatzizko kontraturik ez egotea

Informaltasunaren ondorioetako bat da sarritan idatzizko kontraturik ez egotea, eta horrek argitasunik eza eragiten du, lan-harremanen esparruan egin beharreko zereginak zehazterakoan. Ikerlanean parte hartu duten emakumeen % 70ek baino gehiagok aditzera eman du lan-elkarrizketa gehienetan ez direla xeheki zehazten zeregin guztiak, horrek dakarren segurtasun juridikorik ezarekin, eskubideen urraketaz eta eskubideok eskatu ahal izateko babesgabetasunaz gain.

Bereziki, ez da bereizketarik ezartzen zaintza-lanaren eta etxeko lanaren artean. Alderdi hori barne-langile jardunez esperientzia duten emakumeen kontakizunetan agertzen da gehienbat. .

#### 6.3.1.2. Gizarte Segurantzako alta ez izatea

Ikerlan honetan parte hartutako emakumeen % 40k esan du enplegatzailearekin arazoak izan dituela Gizarte Segurantzan alta egin diezaioten. Nahiz eta, estatuan, 2012az geroztik *SEEH* sistemako altek gora egin duten, kalkulatzen da estaldura-tasa % 69,1 inguru dela; ondorioz, merkatu informalean dauden langileak % 30 baino gehiago dira.

### 6.3.2. Soldatan deskontuak egitea Gizarte Segurantzako enpresaburuaren kuotagatik

Maiz ere gertatzen den beste egoera bat da, langileek aipaturikoa, etxe batzuetan alderdi enplegatzaileari dagokion diru-kopurua beren gain hartu nahi ez izatea eta Gizarte Segurantzako kuota langilearen soldatatik deskontatzea.

## 6.4. Lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzako eskubideak urratzea

Laneko Ikuskatzailetzak eta erakunde eskudunek etxeko enpleguaren merkatu formalaren barruan gertatzen diren eskubide-urraketak ere zaindu eta kontrolatu behar dituzte. Zehazki:

### 6.4.1. Zereginak gehitzea, soldata gehitu gabe

Ikerketa-prozesuan parte hartutako langileen erdiek baino gehiagok esan dute –nola barne-langileek hala kanpo-langileek, Espainiako nazionalitatea, atzerrikoa zein nazionalitate bikoitza izan– noizbait egokitu zaiela lan-harreman batean zereginak alde bakarreko erabakiz gehitu izana denborak aurrera egin ahala, lansaria igo gabe, eta ordutegi berean.

### 6.4.2. Azkotan ez dira errespetatzen lan-ordutegiak, ez eta ordu estren eta presentzia-orduen konpentsazioa ere; eta atseden-denborak, jaiegunak eta oporrak izateko eskubidea ere ez

Elkarrizketaturiko emakumeen ia % 50ek kontatu du, zenbaitetan, lan-ordutegiak ez direla errespetatzen. Batzuetan hori gertatzen da, dirudienez, enplegatzailea enplegatuaren eta mendekotasuna duen pertsonaren artean ezartzen den pertsonarteko harremanaz aprobetxatzen delako eta langile askok –gizarte matxista eta patriarkal batean sozializatzearen ondorioz– izaten duten hiperrerantzukizunaren ondorioz.

Zaintza-lanen bereizgarrietako bat da premiazko zereginak izatea, beharrezkoak, saihetsezinak, ez jaiegunak, ez atsedenaldiak aintzat hartzen ez dituztenak. Esan nahi baita, mendekotasuna duten pertsonek 24 orduetan dute mendekotasun hori. Etxeetan bizikideek lan-merkatuan lan egiten dutenean –zaintza-beharrizanak asetzeko baliabide publiko egokirik gabeko gizarte batean, bizitzaren jasangarritasuna kontuan hartzen duen lan-eskubiderik ere ez dagoela–, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko pertsona bat behar izaten dute, “sekula ere” huts egingo ez diena. Hortaz, askotan, etxeko langileari ez zaio errespetatzen atseden-denborak, jaiegunak eta oporrak izateko eskubidea.

Azkenik, ez ordu estrak, ez presentzia-orduak ez dira beti diruz edo atsedenaldiz konpentsatzen.

### 6.4.3. Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko ezintasuna

Ikerlanean parte hartutako emakumeen % 40k baino gehiagok aipatu du nolako zailtasuna duen bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko. Aditzera eman behar dugu emakume langile migratuek soilik kontatu dutela laneko eta familiako bizitzak bateratzeko ezintasunaren esperientzia hori.

### 6.4.4. Lan-istripuko, lanbide-gaixotasuneko edo gaixotasun arrunteko baja hartzeko eskubidearen urraketa.

Ikerlan honetan parte hartutako emakumeen % 30ek baino gehiagok esplizituki esan du arazoak izan dituela, enplegatzailearekin eta/edo osasun-erakundeekin, lan-istripuko, lanbide-gaixotasuneko edo gaixotasun arrunteko baja hartzeko garaian. Lanbide-gaixotasuneko edo lan-istripuko baja hartzeko, langileek topatzen dituzten oztopoen artean dago, nahiz eta baja hartu nahi duten eta horretarako arrazoiak dituzten, ezin dutela bajarik hartu, *SEEH* sisteman aseguraturik ez daudelako eta idatzizko kontraturik ez dutelako.

Bestalde, *SEEH* sisteman alta baduten langileak maiz beren beharrizanak alde batera uztera beharturik sentitzen dira, beren osasuna arriskuan jartzeraino ere, lan-harremanean sortzen den indarkeria sinboliko, psikologiko eta emozionala dela bide, eta lantokira joatera, beren osasun-kontingentziagatik ere.

### 6.4.5. Amatasun-baimena ez betetzea

Egoera hau agertzen da amatasuneko bajaren eta atsedenaren oinarrizko eskubideak, besteak beste, betetzen ez direnean, emakumea babesgabe utzirik, oso ahultasun handiko une batean.

### 6.4.6. Bidegabeko kaleratzeak

Sozialki eta legalki gutxietsitako sektore bat izanik, oso kontzientzia gutxi dago gaixotasun-bajen inguruan. Zifretan, elkarrizketaturiko langileen % 25ek baino gehiagok lan bat utzi zuen edo kaleratua izan zen noizbait gaixorik edo haurdun egoteagatik.

Elkarrizketaturiko langileek diotenez, horrelako bidegabeko kaleratzeak –antzinatasuna eta kitoa ez onartzea– ematen duen baino ohikoagoak dira.

### 6.4.7. Aurreabisurik ez ematea

Aurreabisua emateko betebeharra ez betetzea ere ohikoa da sektore honetan, eta ez dago etxeko langileak babesteko kontrolik edo ikuskapenik.

## 6.5. Etxeko enplegua eskuratzeko bide informalak eta lan-bitartekotzako erakunde ofizial eta publiko baten beharra

Gaur egun badaude enplegu-agentzia eta etxeko zerbitzuen agentzia pribatu batzuk, zaintza-beharrizanak asetzeko erakundeen erantzun publiko eskasaren aurrean, mendekotasun-kasuetan bereziki, egoera horri etekina ateratzen diotenak, irabazi handiko eta kontrol askorik gabeko merkatu bat eskura daukatela, etxeko langileen aurka batzuetan gertatzen diren ondoriozko botere-abusuko kasuekin.

Ikerlan honetan parte hartutako emakumeen % 20k dioenez, sektore honetan lan-bitartekotzako erakunde ofizial eta publiko bat behar da, botere-abusuko egoerak gerta ez daitezen edo, gertatuz gero, toki bat egon dadin bi alderdien –enplegatuaren zein enplegatzailearen– eskubide eta betebeharrez galdetzera joateko.

## 6.6. Sindikatuentzako gomendioa, etxeko enpleguaren sektoreko negoziazio kolektiboa sustatu eta bultzatzeko

Etxeko langileak bakarturik, sakabanaturik, eta prekarietate-egoera batean egotean, negoziazio kolektibo bat egiteko aukerak urriak dira, eta, ondorioz, baldintza ekonomikoak zein lan-baldintzak hobetzeko aukerak ere bai, banaka egin dezaketen negoziazioa gorabehera.

Emakumeen % 20k aipatu du lan-eskubide kolektiboak ez direla gauzatzen. Horrek berekin dakar etxeko langilea desabantaila argiko egoera batean aurkitzea negoziatzeko, adosteko eta bere eskubideak eskatzeko kontratu-harremanaren iraupen guztian zehar, eta, hala, kasu batzuetan, egiazko lan-esplotazioko baldintza batzuk betikotu egiten dira.

Nolanahi ere, badirudi sektore honetan ezin dela hitzarmen kolektibo bat onartu, patronalari dagokion alderdia banakako etxeak liratekeelako, horiek gaur egun ez antolatuta, ez elkartuta ez daudela. Hala eta guztiz ere, beste herrialde batzuetan, hala nola Italian, Frantzian eta Alemanian, hitzarmen kolektibo bat egitea lortu dute.

Hartara, uste dugu posible dela sektore honetan hitzarmen kolektibo bat negoziatzeko behar diren baldintzak sortzea, eta sindikatuei gomendatzen diegu kolektibo honen beharrizanak eta eskubideak aintzat har ditzatela eta haren lan-baldintzak hobetzeko akordio edo hitzarmen bat susta dezatela, edo ezar dadila zein den hitzarmen aplikagarria.

## 6.7. Vitoria-Gasteizko kolektibo feministei, emakume-elkarteei nahiz beste elkarte batzuei zuzendutako gogoeta

Eztabaida-taldeko bost parte-hartzaileetako hiruk mahaigaineratu zuten langileak "bakarrik" daudela. Hau da, oso sostengu sozial eta instituzional eskasa dute, eta –sektorearen bereizketari bakartasunean aurre egin behar diotelarik– daitekeena da askotan informaziorik ez izatea eta beren eskubideak eta haiek defendatzeko bidea ez ezagutzea.

Etxeko langileak, sektorearen prekarietatea eta haietako askok bizi duten gizarte-bazterketa direla bide, elkartzeko eta antolatzeko zailtasuna izaten dute, baina, gainera, Vitoria-Gasteizko hirian ere ez dago elkarterik, gaur egun, etxeko langile gisa haiei laguntza eta sostengu legal, psikologiko eta/edo emozionala emateko.

## 6.8. Indarkeria matxista, arrazista eta klasistak ikusgai jarri eta salatzea

Historian zehar zaintza-lanari eta etxeko enpleguari sozialki emaniko balio eskasa dela eta nahiz bizi garen sistema kapitalista, patriarkal eta arrazistak hura izozmendiaren alde ezkutuan mantentzeko duen beharra dela eta, halakoa beti lan informal bat izan da, gutxietsia, prestigioz gabetua, eta mendean atxikia. Herentzia horrek badirau bizirik oraindik ere, eta etxeko enpleguko lanetan diharduten emakumeek beren gorputzetan bertan eta beren bizitza-historietan pairatzen dute. Tamalez, indarkeria matxista, arrazista eta klasistak gertatzen diren egoerak ez dira kasu bakan eta salbuespenezkoak; aitzitik, sektorearen ezaugarrietako bat dira, bertan erabiltzen eta gauzatzen baitira emakumeak jasateko arriskuan egon ohi diren sistemak –menderakuntzan, asimetrietan eta botere-harremanetan oinarrituriko sistema batzuk, hain zuzen–.

Etxeko enpleguan interakzioan dauden menderakuntza-sistema guztiak aintzat harturik, enplegu horretan emakumeek bizi izaten dituzten indarkeria matxista, arrazista eta klasistako egoera zehatzak deskribatzen dira jarraian.

Ikerlan honetan parte hartu duten emakumeek lan-ingurunean gertaturiko jazarpen eta abusuko kasuak kontatu dituzte, baita sexu-erasoko kasuak ere. Elkarrizketaturiko emakumeen % 30ek baino gehiagok salatu du eskaintza sexualak jaso izana lan-bilaketan. Gai hori atzerritar langileek soilik aipatzen dute; hala, horrek adierazten du emakume migratuak direla horrelako abusua jasateko arrisku handiagoan daudenak. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi Euskadiko edo Espainiako langileek horrelako abusurik eta indarkeriarik jasan ez dutenik; alabaina, esperientzia horiek maizago gertatzen dira emakumeak ahultasun sozial eta ekonomikoko egoera handiago batean daudenean.

Funtsezkoa deritzogu etxeko enpleguaren arloan gertatzen diren indarkeria-egoera horiek ikusgai jartzeari, desnaturalizatzeko eta baliabide sozial eta publikoak garatzen laguntzeko helburuz, baliabideok prebentzioa aurrera eraman dezaten eta egoera horiek bizi dituzten emakumeei babesa eta laguntza eman diezazkieten.

## 6.9. Etxeko alderdi enplegatzailearekin nahiz maila sozialean landu beharreko gaiak

### 6.9.1. Etxeko langilea ez da familiako kide bat, eta ez da zilegi *surplus emozional* bat eskatzea

Alderdi enplegatzaileak etxeko langileei *surplus emozional* bat eskatzen die familiako kide gisa joka dezaten eta arreta berezia jar dezaten zaintzen duten eta/edo mendekotasuna duen pertsonarengan, berarekin lotura emozional bat duen familiarteko baten eran. Enplegatzaileak askotan oso soldata txikia ordaintzen du, gainerako sektoreetan baino lan-eskubide murritzago batzuekin, pertsona bat kontratatzeko, lan fisikoa (lisatu, garbitu, janaria prestatu) egiteko gai izan behar duena eta, horrez gain, lan emozional eta afektibo bat aurrera eraman (hezi, lagun egin, mimatu, estimulatu), psikologoak, pedagogoak edo hezitzaile sozialak balira bezala. Kasu askotan, aldez aurretik ziurtzat ematen da afektuzko *surplus* hori, lan zehatz bat denean, maila handiko inplikazio emozional eta afektibo bat behar duena.

### 6.9.2. Etxeko enplegua lanbide bat gehiago da

Batzuetan, langilea alderdi enplegatzailearen objektu, jabetzatzat jotzen da, eta indarkeriazko jabekuntza-harreman bat sortzen da, etxeko esparruaren barruan mugapenik gabe gauzatzen dena, mirabetza edo esklabotzako harreman batean. Emakumeen gaineko indarkeria eta muturreko kontrolari dagozkion egoera horiek larriagotu egiten dira barne-langileen kasuan.

Hartara, funtsezkoa da etxeko enplegua beste edozein lanbide bezalakoa dela ulertzea.

## 6.10. Enplegatzaileentzako gomendioak, beren enplegatuen lana segurtasun eta higieneko baldintza egokietan egin dadin zaintzeko

Alderdi enplegatzailearen erantzukizuna da etxeko eta zaintzako lanen ondoriozko arriskuak identifikatu eta prebenitzea, langileen osotasun fisiko eta emozionala ziurtatzeko. Hurren, gorputz-lantegian parte hartutako emakumeek identifikatu dituzten arriskuak jasotzen dira:

### 6.10.1. Ahitze fisikoa

Barne-langileen lanaldi intentsiboek edo lanaldi osoko edo etxe askotan diharduten kanpo-langileen gainean –ezarritako denboran etxeak behar duen guztia egiteko– egiten den presioak arriskuan jartzen dute langileen osasuna eta osotasun fisikoa.

## 6.10.2. Eraso fisikoak

Emakumeen % 20k baino gehiagok eraso fisikoak aipatu ditu, gutxi-asko larriak, premia bereziak dituzten pertsonekin edo gaixo senil edo mentalekin lan egitearen ondorioz.

## 6.10.3. Produktu kaltegarri eta arriskutsuen manipulazioa

